


400 anaitasuna 400

981.ko - UZTAILA ABUZTUA - 413. ALEA - 100 PEZETA

*** Joseba
Sarrionaindiarekin
hizketan**



*** Azken
bertsolari
gazteen
txapelketaz
hainbat
haburu.**

*** oporretan edo harremanetan? Dossierra.**



ZUEK OPORRETAN GU GARTZELAN

500 euskal atxilotu politiko dago gaur egun Espainiako presondegietan. Herri ttiki batentzat kopuru itzela.

Eta herri ttiki honen askatasun handiagorik eskatu duten guztiak elkar laguntza osoa merezi dute, **geu haiekin gaudela, haiek gurekin direla erakusteko**. Gizarte honen atal bi-ziak direla erakutsi behar zaie eta zaigu. **Kemena denok behar dugu.**

Elkarren arteko laguntza ttiki ttikiena ere balio-tsua bihurtzen da borondate osoz egiten denean. Gainera maitasuna edo eta adore iraultzailea denean ez dago ezer txikirik.

Zuen kartak, gutunak, errebistak, liburuak eta elkarrizketa batez ere behar dute eta behar dugu. **Izen bat** hautatu dugu gartzela bakoitzean. Beraren bidez gartzela horretako **edozein presorekin harremanetan sartzeko**. Izenik ez badakizu, **idatzi**, beraiek proposatuko dizkizute izenok. Eta ez ahaztu...**geu gara** haien itxaropena... **beraiek dira gurea.**



Madrid: Centro Penitenciario Femenino de Yserias. Arrate Mardaras Lejarreta.

Soria: Prision Provincial. Marques de El Saltillo. J. Antonio Torrealtonaga.

Madrid: Centro Penitenciario de Carabanchel. Joseba Sarrionaindia.

Bizkaia: Centro Penitenciario de Basauri. Joseba Cardenal.

c.c.: CLP/LAK: 19001589-1-
"Para carceles".

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO

9118

28 JUL. 1981



... ETA BITARTEAN GEU!

Madril eta Parisen arteko ardatz horrek beste aldi berezia ezagutuko duelakotan gaude. Baina bitartean euskaldunen arazoa hortxe dago ez Parisek, ez Madrilek nola konpon daitekeen ez dakitela.

Paris eta Madrilen arteko asmo ekonomikoak maiz egon dira aurrez aurre, horra hor historia frogatzeko: Italian, Flandesen Nafarroan, eta abar. Oraingo honetan berriro agertzen dira sarri ezaguturiko besteritziok errefuxiatuen arazoa aipatzen denean.

Baina egungo estiloa ez da guda zuzenera jotea, gainerako gerla mota horiek erabiltzea baizik. ta gainerakook ez dira izan inoiz Madrilgo espezialitateak, hori gakoa! Nola sartu C.E.E. horretan Frantziako laguntzaz ez baldin bada? Nola, ba, ez deuseztu Parisekiko hartueman politikoak? Nola gorde indatsuaren iritzia Auñamendietako mugetatik beherantz, "terroristak" espetxeratu gabe?

ZUEK OPORRETAN GU GART



- 3.or.- **Artikuluburua**
- 4.or.- **Aurkibidea**
- 5.or.- **Viñaspre:** Berarekin izandako elkarrizketaren bigarren zatia. Oraingo honetan "Tarabusi" lantegian jazarikoak kondatzen dizkigularik.
- 9.or.- **Jastizi administralgoa eta euskara alkar ezin ikusi.**
- 10.or.- **Mugartegi:** Berezko bertsolaria
- 14.or.- **Ilarduia:** Diputazioak uholdeak gutxitzeko dituen asmo berezietz.
- 16.or.- **Hankaz gora**
- 17.or.- **Dossier: oporretan edo harremanetan (I)**
- 25.or.- **Joseba Sarrionaindia:** Kartxelan diguten idazle preso horrekin izandako elkarrizketa.
- 29.or.- **Dossier: oporretan edo harremanetan (II)**
- 37.or.- **Federalistak**
- 38.or.- **El lolo:** beste bizitza bat
- 42.or.- **Bertsolarien txapelketa**
- 46.or.- **Euskarak ba ote du azentorik.**
- 48.or.- **Muñagorri:** Bertsolari karlista
- 50.or.- **Urrezko krabelin eta estabellarriak**
- 51.or.- **Agiriak**



anaitasuna

ALE HONETAN LANKIDE IZAN GARA

- I. Antiguedad
- J.I. Basterretxea
- J.R. Bilbao
- J.R. Etxebarria
- J. Idigoras
- I. Lasa
- J.M. Pastor
- T. Trifol
- R. Zumalabe



JUAN JOSE VIÑASPRE:

EGIAREN MINA (eta II)



Bidegaberiak joari eginiko elkarrizketan atzera jo dugu denboraren makina. Hala beste kontu batzu ageri zaizkigu. Izan ere, bere zintotasunagatik hainbat jazarpen eta oztopo jaso duen gizon horren pairamena ez zen Eusko.

Trenbideetan hasi, ez. Lehenago ere kristoren irainak hartu zituen. Horrexegatik kondatzen dizkigu TARABUSIko "odisea" eta beste batzu. Artikuluaren azkenean, eta oraingo arazoari dago-kionez, ez duela inor isilduko eta salatu behar den guztia ezaguteraziko digula diosku. Oro egia esateaz.

ANAIT.- "TARABUSI horren istiluak direla eta, noiz sartu zinen lan-tegi horretan?"

J.J. VIÑASPRE.- 1957 urtean. Ni delin-eantea naiz eta hara sartzean atal hauen erresponstabilitatea neukan *tentsio garaia; tentsio behea; tarteko tentsioa; aire konprimatua; propanoa; makina-instalakuntza; makina-konponketa; industri ura; ur edateko ona; lurrun sortzailea; alde z aurretiko mantenua; bialitatea; garbitzea; edifi-zioak, errepostu hornitzea; lanpostu eta instalakuntza guztientzako*

tresneria-mantenua; kalefakzioa."

A.- "Zeintzu izan ziren hango kon-tuak?"

V.- Makina bat. Nik banan banan kon-datuko dizkizut. 1962 urtean kotxe bat erosi nuen. Kotxe horrekin 40.000 km. edo egin nituen. Inoiz ere ez zitzaidan ezer gertatu. Zorrozaurreko lantegian nengoan eta egunero eramaten nuen automobila. **Hugo Tarabusik** lonjatxo bat zeukan kotxeak gordetzeko, lau baino gehiago ez zeuden arren. Nik be-ti kanpoan uzten nuen eta behin Una-ran pertsonago nagusiak beste haien

tokira sartzeko esan zidan. Horrela egin nuen eta, lonjaren barruan zeuden automobilak **Hugo Tarabusirena**, zuzendariordea, **Umaran** eta laurona genituen. Umaran-ek kotxea berebetean ipintzeko esan zidan eta gainera izena eta guzti jarri zuten nahasterik ez egoteko. Ba dakizu, garaje barruan ere diferentziak egin behar dituzte. Eta orduan izan zen **Lejarza** agertu zenean.

A.- Zein dugu hori?"

V.- Abokatu ekonomista. **Tarabusi**-k ekarri zuen ekonomi-arloaz ardura zedin. Bere bulegoan aire girotua zuen, **Hugo Tarabusiren** beraren bulegoan ez zegoena!!!. Behin, kotxea hartzea nindoalarik, Lejarza horrek esan zidan nire kotxea handik ken nezan berari tokia uzteko. Nik ez nion jaramonik egin eta joan nintzen, neure automobila emandako toki berean utzirik. Morroia oihuka hasi eta orduan bulegoko leihotik **Umaranek** kotxea kentzeko eskatu zidan. Nik ezetz esan nion. Toki hori **Umaran**-ek berak emana zen eta ez nion etorri berriari utziko. **Lejarza** "De ésta te acordarás" esaten hasi zen. Eguerdian kotxearen bila joanda lekutik at ikusi nuen. Haserre biziak alde egin nuen ezer esan barik. Bazkalostean berriz lantegira joan nintzen eta niri zegokidan tokia **Lejarzarena** zegoen. Bulegora iristean ohartxo bat idatzi nion **Lejarzari** bere jokaera salatuz eta nik urte gehiago lanean eta eskubideak nituelako toki hori neukala esanez.

"Ez dut frogarik baina kotxea norbaitek ikutua izan zela nik istripuz hil nendin"

A.- Ondorioak?"


V.- Ordu bi geroago **Umaranek** deitu eta arazoa pentsatu zutela esanda, *enplegu eta soldata etendurako hiru egun zigortzat jarri zidan, neure erresponzabilitatezko lanpostutik nagusi batez ez errespetatzeagatik!!*. Etxera joanda, emakume eta biok Frantziara abiatzea erabaki genuen bi umeak eronez. Frantzian politik babesa eskatzen nintzen baina ez zegoen arrazoi politikorik eta orduan han berriro lanean behetik hasi beharko nuen. Oso egoera latza zen, gainera umeekin... **Poitiers**-etik itzuli ginen eta biharamunean Umaran-engana joanda lanean hasi nintzen osterera ere. Kontxeak egindako bidaia haundia zenez garaje batetara eroan nuen baita txapista batengana ere. Dena jorratu ondoren berri-berri geratu zitzaidan. **Poitiers**-erako bi-

daian ez zitzaigun ezer pasatu. Lanean egun bat besterik neramala eta lantegira nindoalarik oso istripu arraroa jaso nuen: Deustuko erriberatik **MERCE-**

DES bat nire aurrean zihoan. Oso astiro aurreratu gura nuenean **MERCEDES**-eko morroiak azeleratu egin zuen. **ERCIA** lantegien jabea zen.



"Erdiko gizona Marcial Gil dugu. Alferrez izan zen eta oso harro agertzen zen Francori eskua eman ziola aipatzean".



"TARABUSI fabrikaren jauntxoak: Eskerretatik eskubitara: Marcial Gil; Lantegia 'Padriño'; eta Umaran. Lepoz dagoena, Aizpurua, zuzendari teknikoa".

Azkenean, zazpi bider edo ahaleginduta gero, MERCEDES-ekoa barrurako maniobra egiten hasi zitzaidan pasa nendin baina nik aurrerantz jotzean, kasik pasaturik nuela, kolpetxo bat sentitu nuen atzekaldean. Txit biguna izan zen. Kotxea dantzan hasita, kontrola galdu eta istripua!

Nik lau kotxe izan ditut eta sekulan ez zait halakorik jazo!!!. Mesfidantza hartu nuen arazoa. *Kolpe hori ez zen kontrola galtzeko 30 km-ko abiaduraz.*

"Hondakin guztiak eta azidoak Arratia ibaira botatzen zituzten. Ortega fabrika-nagusiak. "Sanísimo. Esto alimenta a la población. "Ziostan sarkasmoaz".

A.- Arlo ekologikoaz nolakoa zen haien joera?

V.- Entrepresari guztien bezalakoa. Dirua ez gastatzearen edozein basakeria naturaren kontra egiteko prest ditugu. Lantegian ba zen lurrun sortzaile bate-tatik pasatzen zen 600mm-ko galeria bat, fuelolioa zeukaten tuboak zeudena. Dena estalirik zegoen eta fuelolio-

iheste bat sortuz gero oso berandu konturatuko ginen. *Nik milaka aldiz tuboak airean, erraz ikusteko. Ipini behar zituztela esaten nien, baina haiek kasurik ez. Behin iheste bat izan zen eta deitu zidaten Bilbotik joateko eta hori konpontzeko. Iheste horretaz konturatu nahi izan zutenean 7 Tm fuelolio ba zeuden ibai barruan".*

Ba dago beste enplu bat ere: Igorreko lantegiaren jantokia funtzionatzen hastean Arratia ibaira zihoan amildegi bat zegoen eta orduan hondakin guztiak haraino bidaltzen zituzten baita mota guztietako azidoak ere: Arrain hondakinak, azalak, plastikoak, kristalak, elikadura ustelduak, azidoak, sulfurikoa eta sulfidrikoa batez ere. *Eta hauek, denok dakigunez, arras pozoi-tsuak ditugu. Hala eta guztiz ere, Ortega "Jaunak" (Lantegi-burua) faltsukeriaz eta sarkasmoaz ziostan: "Esto es sanísimo. Alimenta a la población".*

A.- Erremedioren bat jarri zuten?

V.- Arazo horretaz asko ekin ondoren, eta nire eritziagatik nitaz isekatu ondoren **Hugo Tarabusi**-k milioi bi ipini zuen labe bat eraikitzeko. Labea fuelolioaz hornituko zen. Nik tximinia baten proiektua aurkeztu nien. Tximinia horrek ez zuen fuelolio beharrik ezta langilerik ere. Oso diru gutti gastatze-koa zen. Irri asko eginda gero eraikitzen utzi zidaten. Oraindik **Igorren** dute eta hartaz baliatzen dira, hasieran *lelokeria zela pentsatzen bazuten ere".*

"Hugo Tarabusik 9mm-ko astra aerodinamiko bat eskaini zidan "para que se protega usted de los obreros" esanez".

A.- Noiz heldu zitzaizun **TARABUSI**-ko odisearen klimaxa?

V.- 1968 urtean **Igorreko** instalakuntza berriak amaitu zituzten. Entrepresak Zorrozaurretik **Igorrera** makina guztiak "a punto" jarri behar nituen eta gainera produkzioa galtzeke. Ipiniko denbora tarte horretan dena bukatu genuen. Orduan lantegiko pertsonekin batera lan egiteari utzi nion eta bulegora igon. Hala ere ez nuen departamentuko langileekin harremanik galdu eta oso ongi konpontzen ginen. 1.972 urtean **Hugo TARABUSI**-k bere bulegora joateko esan zidan eta 450.000 pezetatan soldata ipintzea eskaini —Nik 380.000 irabazten nuen urtean—. Baina igotze horrek baldintza bat zuen: *"Tiene usted que coger eso". "ESO" 30 x 22 x 7 zm-ko kaxa urreztatua zen eta barnean 9mm-*

ko aerodinamikoa, kargadoarerekin eta guzti gamuza berdean zuen sarturik. Y esto ¿Para qué? itaundun. Haren erantzuna hauxe izan zen: **Eso tiene que usarlo usted para protegerse de los obreros, con los que tiene usted que cambiar su "compadreo" por la disciplina inherente a un jefe.** Guztiz harrিতa galdetu nion:

-¿ Pero que pasa? ¿No rinde mi departamento?" Eta berak:

- Sí, sí, y muy bien. Por eso le ofrezco el dinero, pero no se puede tener la relación que usted sostiene con el obrero".

Nik, amorru biziaz, *uzkitik sar zezan esan nion. Hugo TARABUSI*-ren beraren ultimatum-a: **"De ahora en adelante que no te pase nada"** izan zen. Orain, Tarabusi kanpoan dugu, zerga iraultzaileagatik".

A.- Zer pasatu zitzaizun?


V.- Hilabete baten probokazio asko jaso nuela. Departamendu buruen bile-retan ere ziostaten. Behin **Garay delako batek izorratuko nindutela esan zidan fabrikatik aspertuta alde egin arte. Protesta moduan gose greba bi egin nuen baina jaramonik ez. "La Gaceta del Norte"**ra joan nintzen neure departamentuko zazpi langilerekin **Hugo Tarabusiri** gutun irekia argitaratzeko asmoz. **Portell**'ek *prometatu egin zuen baina gero atzeratu zen".*

A.- Lana utzi zenuen?

V.- Bai, beste posibilitaterik ez zegoen. Geratu izan banintz edozein txar-keria egingo nukeen. Hori aguantaezina zen gizaki batentzat". Baina alde eginda ere, sasoi baten jazarpen batzu egin zizkidaten. Garrantzitsuena, nire uestez hauxe izan zen: Behin, lana bilatzetik nentorrela, "Alameda de Mazarredo"tik nire urratsak segitzen zituena gizon bat gero eta hurbilago zegoen niregandik. Oso altu eta sendoa zen. Momentu baten, ia konturatu barrik, kolpera, atari batetara sar erazi eta han *pistola kopetan jarri zidan. Ez genuen hitzik egin. Elkarri begira une batzu eman ondoren, alde egin zuen ezer erran gabe. Morroi hori ez zen polizia, haren ezaugarri fisikoak hemengoak ziren. Hori pistolero bat zen".*

"Inauxa-k Ford-i bidaliriko materiala kontrol eta neurririk gabe zegoen. Ford entpresari egia hori esan nionean, Ford-ekoek beraiak kanporatu ninduten Inauxa-tik".

A.- Zeintzu izan ziren hurrengo gertaerak?



Tarabusiren koinatua; Hugo Tarabusi, "El

V.- **Ford** eta **INAUXA** entresenenak. Hasieratik kondatuko dizut. 1975 urtean **Colón de Larreátegui**-ko bulego baten egiten nuen lan. Ni delineante nengoen 25.000 pezeta edo irabazten nuen hilean. Behin **Inauxa** entresenaren gerentea zen **Zaballa** etorri zitzaidan lan eskaintza batez. Kalitate kontrolaren buru izateko esan zidan. Hilean 40.000 pezeta hartuko nuke —geroago aitortu zidaten beste delineante batzuri 100.000 edo ordaintzen zizkiela. **INAUXA**-n ikusi nuen jukutria salatú behar izan nuen. Esango dizut:

Entresena horretan **Tubos Reunidos**-ek lehenengo gaia eta kapitala jartzen zigun. Eibarreko **NORMA**-k kapitala eta materiala —tuboak—. Valencia-ko **Ford** multinazionalak Alemania-tik ekarri makina moderno bat —**Magnetark**— ipini zigun. Horretaz gain, gure bezero bilakatzen zen. **Ford bi funtzio betetzen zituen: bata, sozio kapitalistarena; bestea, bezeroarena.** **Ford**-ek kalitatea exijitzen zuen, epe batzu betetzea eta bere baldintzen plegua igorri zion **INAUXA**-ri. Nahi zuen bezalaxe egin ezik makina kenduko eta beste hornitzaile batengana joko luke. **Inauxa** entresena hornitzaileak multzoaren planu baten bidez piezei aplikatzeko zen kalitate kontrola adierazi behar zion **Ford**-i, baita jarraitzeko prozesuaren berri eman ere. **Ford**-ek begiratu ondoren eta onartuz gero, **Inauxa**-k xehetasun planuak egin beharra zeukan baina

Inauxa-k ez zituen xehetasun planuak egin. Xehetasun planu hoiek beste entresena batzuri bidali behar zitzaizkien pezak egin zitzaizten. **Inauxa**-k ez zuen baldintza hau bete. **Precicontrol**-i eta izena gogoratzen ez dudan beste lantegi bati emana, **Ford**-ed aprobata multzoaren planua izan zen. Planu hoietan ez zeuden xehetasun hoién marrazkiak, ezta pezen neurriak. **Inauxa**-ko **Zaballa** "jaunak" xehetasun planuak eskaini beharrean "A su aire" fabrikatzen utzi zien. **Precicontrol** eta beste entresakoek pezen nolakotasun eta ezugarriak imajinatu behar zituzten.

Momentu horretan sartu nintzen lantegira. Bakarrik multzoaren planuak zeudela ikusi nuenean **Zaballarengana** joan nintzen azalpen eske. Kasurik ez. Berak eta **Arturo RUIZ**-ek entzungorrenak egin ziren. Valencia-tik inspektore bat etorri zen kalitatea arakatzeko. **Zaballak** eskatu zidan ezer ere ez esateko. Ez nuen beharrik. Hura ez zen tentela eta berehala konturatu zen. Hori hartuko ez zutela zioskun.

Orduan **Inauxa**-koek soldaketa batzuez pezak konpontzea erabaki zuten, dirua ez galtzeko. Hura lardaskeria !!! *Eta orain harrigarriena: Ford-ekoi gutunez egia esan nienean Ford-ekoek beraiek kanporatu ninduten Inauxa-tik. Izan ere jukutriaren barruan ba zegoen Lopez de la viña, Valencia-ko lantegiko kalitate-gerentea, konponketa txar hori onartu zuena*".

"Nahiz eta epaiketan "despido improcedente" atera, Lain De la Torre-k ez nautela birsartuko esan du".

A.- Elkarrizketa luze hau bukatuz doa. Oraingo kontuari helduz, nolako martxa darama Eusko Trenbideetako arazoak? Zer pasatu zen kontziliapen ekintza horretaz?

V.- Ba dakizu botatzeren bat dagoenean kontziliapen ekintza bat jartzen dena, entresena eta langilea akordio batera hel daitezten ezta? Beno, ba, Ekainaren hamarrean izan zen hori. Nik Eusko Trenbideen ordezkariari alkoholemia delako frogara hori egitea eskatzen nion "kontziliatzaileari". Baina ez zuen nahi izan, arauetatik at zegoelako. Baten batek zergatik pentsatu du. Eusko Trenbideetan lan egin dudanez oso ondo dakit hango pertsona batzuk katu galantak hartzen dituztela lanean ari diren bitartean. *Eta nik ez dut gura kontziliapen ekintza hori egin agian txolindurik izango den ordezkari batekin*".


Orain epaiketaren zai nago. Ea zer erabakiko duten. Dena dela LAB-eko lagunek esan didatenez *Lain de la Torre-k ez nautela birsartuko esan du, epai-mahaikoek "despido improcedente" atera arren*".

A.- Juan José, bukatzeko, ezer gehiagorik gaineratuko zenuke?

V.- Ez nautela isilduko. Kanpoan gertatuz gero ekintza bat egingo dut. Ez dut biolentziarik erabiliko, ez baitu biolentzia Maite.

*Ez dut inor ere irainduko. Bakarrik egia kondatuko dut. Zein den egia? Etxean 127 errezibu ditudala, "recibi" horren sinadura gabekoak. Ezin esan daiteke lapurreta bat izan denik ez badago lapurrik. Hemen gauza bera gertatzen da. Erruduna ez da geltokiburua. Ez. Horrek ordenak betetzen ditu. Errudunik haundiena hau guztiau zuzentzen duena dugu, hots, **Garaikoetxea jauna**. Ba dakit neure burua nahi duena eta beharbada espetxera joateko arriskutan nagoela. Espetxean sartuz gero buruan ihardukiko dut, gose eta egarri grebak egingo baitut, eta hilik gertatuko banintz haren gainan erokiko litzatekeen gorpuak izango nintzateke. Eta, otoi, ez pentsa zoroa naizenik. Bakarrik giza duintasuna defendatzen dut. Ez dut esklabu bizi nahi*".

J.M. Pastor



"TARABUSI, Igorren. Ezkerretan ikus daitezkeen labe ttipi eta zuri hori Viñasprek eraiki zuen Arratia ibaia lantegiko hondakinez zikin ez zezaten".

Justizi administralgoa eta euskara

elkar ezin ikus

Joan den asteartean Iñaki Zabale-
tari egin zitzaion juizioan euskaraz hitz
egitea debekatu zitzaigun. Aurretik gu-
re asmoa: azaldu genion juezari eta
itzultzaile bat eskatu, han ez zen onar-
tua izan. Gero juizioan bertan Patxi Za-
baletak, abokatu defendatzailea, bere
burua eskeini zuen itzultzailetzat eta
tribunalak ezetz esan zuen, eta gaine-
ra, hau aski ez dela fiskalak eskeintza
hau "aberrante"tzat jo zuen.

Bai prozesatua eta bai lekukoak
euskaldun dugun eskubidoarilotuz
euskaraz hitz egiten hasi ginen.

Arazo honetan, zoritxarrez beste
askotan bezala garbi ikusten dugu,
euskararen genozidioa aurrera darama-
tela nahiz eta horretarako beren konsti-
tuzioak esaten duena hankaz gora bo-
ta.

Han gertatu zena gizaeskubide,
herri eskubide eta kultura unibertsala-
ren aurka doa.

Hau ikusiz gure buruari galde-
tzen diogu: nola egin dezake justi-
zirik pertsonen eskubideak zapal-
tzen dituen tribunal batek?

Atzerritarrei auzietan itzultzailea
jartzen zaie, guri aldiz, gure herrian eta
guk erdaintutako instituzio batek, at-

zerritarrei onartutako eskubidea, ukat-
zen digu.

Badakigu hau egunero eta toki gu-
zietan gertatzen zaigun dela, eta behar
bada horrexeagatik ohitu diskrimina-
tuak izatea, euskaldun gehienak ez dira
konturatzen euskaraz nonahi eta noiz-
nahi egiteko duten eskubideaz, eta ez
dute egiten guk egin genuena, hau da,
leku publiko batetan gure hizkuntza
erabili.

Bakoitzak bere hizkuntza erabil-
tzea, bere herrian oso normala da eta
gainera denoi normala iruditzen zaigu.
Gu ez geude gure herrian? Euskara ez
da gure hizkuntza?. Orduan zergatik ez
dugu denok euskaraz egiten hemen?

Denok euskaraz erabiliz, etxean,
eskoletan, instituzioetan, komunikabi-
deetan eta abarretan, sortuko genuke
euskara onartua eta errespetatua izan
dadin behar den giroa.

Oso garbi dakusagu gure hizkuntza
salbatzeko, orain arte erdaldunek era-
man dute jokaera eraman behar dugu-
la, hau da praxi elebakarra.

Zer gertatuko litzake birus batek
bapatean jo eta erdara betiko ahantzi
bagenu? Erantzuna erraza dugu: Epe
labur batean gure hitzkuntza normali-


zatuko litzateke, hau da, euskara
gauza normala izanen litzake leku gu-
zietan, bai administrazioan, bestela
zergarik ezin ordaindua izenen genuke,
bai komunikabideetan irrati eta telebis-
tan, bai kalean, dendan eta komertzio-
etan laster ikasiko lukete euskara beren
produktuak saldu ahal izateko. Meka-
tal elkarteak beren propaganda euska-
raz eginen ligukete eta abar

Hau da hain zuzen erdaldunek da-
ramaten jokaera, jakin badakigu hau
momentu honetan euskaldunontzat
utopia dela, baina pixkanaka horrela
jokatuz hau ez da utopia izanen eta or-
duan gure eskubideak benetan erres-
petatuak izanen dira.

Azken aste honetan gertatu dire-
nak ikusita Iñakiren juizioa, Losakakoa
(Gobernadoreari arrazoia emanez)...
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ talde-
ak dei zabal bat egiten die euskaldun
guziei, euskara alor guzietan erabiltze-
ko, administrazioan bereziki eta zapal-
zaile hau salatzeke eta gure eskubide-
ak bere arazteko.

EUSKARA ERABILTZEAK EGITEN
GAITU EUSKALDUN

Nafarroako Euskal Herrian Euskaraz



Yunclake

JON MUGARTEGI: BEREZKO BERTSOLARIA

Gure Herrian zehar bizi diren jendearen bizitza eta lana apur bat hobeto ezagutu nahiean, Berriatu aldera abiatu gara oraingoan hurrengo urtean omendua izango den JON MUGARTEGIrengana. Gizon zintzo hau, berak jakin barik harrapatu genuen, bere etxean presentatuz, eta hala egon ginen ordu bat, zerbeza batzu artean zirela berba egiten, bere alaba Nerea lekuko moduan ondoan genuela.



Jon Mugartegi, 1933 urtean jaio zen bizi den baserri honi Astapotza esaten diote, kamino aldean potzu bat zegoelako, eta orain askok jakin ere ez daki baserriaren izena Patrokun denik.

IKASTEN EZ DEN GAUZA

ANAIT.- Noiz eta non kantatu zenuen lehen aldiz?

JON.- Amoroetoko jaietan; nik orduan 17 urte egiteko neukazan eta Azpillagak 15 egiteko, eta han egon ginen biok, Angiozarreko ltsuak jarri zizkigun gai batzu kantatzen. Biok bakarrik egon ginen.

ANAIT.- Non eta nogaz ikasi duzu bertsotan?

JON.- Ikasi? hauxe da ikasten ez den gauza bat. Lehenengo nire amamak zekizkien bertso batzu ikasten genituen, eta heuren kantatu, Santa Agedakoak eta holan. Gero, nik 12-13 urte neukazala, Basarri eta Uztapide etorri ziren kantatzera eta gustatu, eta ordutik hasi nintzen.

ANAIT.- Berriatun badago bertso-girorik?

JON.- Berriatun beti izan dira bertsolariak. Plazan ibili denik ez dut ezagutu, baina tabernan bertsotan ibili djrenak bai: Matías, Hilario, hau gerra denboran beste aldean ere egonikoa, gero Urresti eta Ezkerra ez nituen ezagutu nik, baina esaten dute bertsolariak zirela. Orain gazteak ere ba dagoz, hor da Salvador, orain gitxi Gabirian txapel-dun izan dena.

ANAIT.- Zure ustez zer behar da bertsolari izateko?

JON.- Lehenengo afizio handia, bertso jarriak eta ikasteko, eta gero jarraitu, norberak bere burutik zeozer ateratzen hasten bada, ba, geldigeldi, aurrera segi, pazientzia hartuta.

BAINA BESTE BATZU


JOATEN DIRENEAN...

ANAIT.- Gustatzen zaizkizu txapelketak?

JON.- Gustatu ez, hori inori ere ez, baina beste batzu joaten direnean norbera ere joan egin behar.

ANAIT.- Baina zu hainbatetan egona zara. Konta iezaguzu zure bertsolari-historia.

JON.- Lehen esan dudan bezala, umetatik hasi nintzen bertso batzu ikasten, eta 16 urte gaz hasi Amoroetoko, baina soldadu joan orduko ez nintzen asko ibili. Gero soldadu joan nintzen Burgosera eta han gaixotu, eta hiru urte egon nintzen kantatu barik. Gero, 1959 urtean edo, Bizkaiko Txapelketaren barruan, komarkalean hirugarren geratu nintzen; urte berean Ondarroan beste txapelketa bat edo bi, ez dakit, Bizkaiko bertsolariantzako eta neuri eman zidaten txapela. 1960an, Bizkaiko Txapelketan txapeldun atera edo neuri eman zidaten behintzat. Loiolako Irratiak antolatuta. Azpeitian, gazte-



entzako sariketa batzu egon ziren, eta batean bigarren eta bestean lehenengo (1964an) geratu nintzen, eta urte berean Bizkaiko Txapelketan bigarren.

Euskal Herriko Txapelketetan ere egona naiz, hiru edo lau bidera neuk ere ez dakit seguru. Azkenean ere bai, baina ez nintzen allegatu Donostiara.

GIPUTZAK BETI HEURENA

ANAIT.- Gaurregun kantatzen duzu?

JON.- Kantatu bai, baina asko? asko ez dut uste inor dabilenik. Baina nahiko, bota urteen hogeitamar-berrogei aldiz edo.

ANAIT.- Eta non?

JON.- Edonon, berdin Bizkaian nahiz Gipuzkoan.

ANAIT.- Eta euskalkia ez da ozpoto bihurtzen gipuzkoara zoazenean?

JON.- Begira, ni mugakoa naiz eta berdin dit bizkaiera ala gipuzkera egitea, baina besteei ere berdin. Normalean, bizkaitarrok ikasi egiten dugu gipuzkeraz, eta bertsolariek oraindino gehiago. Aldiz giputzak, nahiz eta hainbat urte bizi Bizkaian beti segitzen dute heurena egiten, eta orduan, bertsolari bizkaitarroi Gipuzkoan ondo ulertzen diguten artean, bertsolari giputzei Bizkaian sarritan ez diete ulertzen.

OMENALDIA

ANAIT.- 50 urterik ere ez duzu oraindino, gaztea ez zara oraindino, Omenaldia egiteko? Zergatik aukeratu zaituzte?

JON.- Ba, ez dut uste ni gaztea naizenik, 48 urte oraintxe egiteko ditut eta, buena, zaharra esateko modukoa ere ez baina... Zergatik aukeratu?, ba, igual askotan gaixorik ibili naizelako edo... gehien bat hori izango da, eta gero beste bauza bat ere bai: hortik pasatzeko gogorik inork ere ez du eukitzen, norberarentzako ere nahiko hestetak izaten dira eta. Dena dela, ez dut pentsatu erretiraterik oraindino, aurtan ez behintzat; gero, Omenaldia pasatzen denean ikusiko dugu erretiratu ala aurrera segi.

KASSETA

ANAIT.- Bertsolari batzuk liburuak edo kasettak atera dituzte. Ez daukazu horrelakorik egiteko asmorik?

JON.- Nik bertsoak idazteko ez dut afi-

zioa handirik euki, eta erreztasunik ere ez. Eskolan ere gitxi ibili nintzen eta idaztea eta kantatzea ez da berdin: kantatu berba egiten dugun moduan egiten da, baina idazterakoan ezin da korapilorik idatzi, berbak osorik baino. Baina egiten hasiz gero egiten ditut neuk ere.

Orain grabatu dut kassetta bat Donostian, eta laster ateratzeko dago. Bertako bertsoak, gahienak jarriak dira. Plazan kantutako bakarrak, Marikinan herriko gazteak eta lagun batzuk,

ANAIT.- Bertso entzuleengan ba dago diferentziarik, lehendik hona?

JON.- Edadeko jendea lehengo bertsolarien aldekoa dela uste dut, oraingo ikasiena baino, aldiz gazteek, oraingoa ikusten dute hobeto. Beste alde batek, orain dela 20 urte gaur baino bertso-giro beroagoa eta jende gahiago ikusten zen plazetan. Gaur gazteen artean ez dut uste giro handirik dagoenik; izan daiteke oraingo gazteak euskeraz ere gitxiago dakitelako.

Edakeko jendea lehengo bertsolarien aldekoa da.

gaixorik egon eta gero egindako omenaldian bota nituen lau bertso dira. Beste guztiak jarriak: gai sentimentalak nire alabatxoari bost edo sei hilabete zuela (orain 11 urte ditu) egindakoak, herriko gazteei beste batzu, atzeratu bati, Berriatu eta Ondarroaren arteko gora-beherak, bat-bateko heriotza izan zuen anaia bati, elkarrekin Etxebarriari idi-probak ikusten joanda hil zena. Lasterr izango duzue entzuteko aukera.

BERTSOLARIA = GOLFOA

ANAIT.- Seme-alaba bi dituzu, Jon 7 urtekoa eta Nerea 11koa. Botatzen dute bertsoak?

JON.- Prestatuak bai, baina bat-batean botatzeko ez dira kapaz oraindino, baina gogoia badaukate egingo dute.

ANAIT.- Eta zure emazte Rufinak zelan hartzen zaitu, artista ala juergista bezala?

JON.- Juergista bezala, hori seguru. Bertsolariak golfoak direla esaten du. Bertsolariak juergistak direla artistak baino, pentsatzen da.

BERTSOLARITZA TRADIZIONALA ANAIT.- Non ikusten duzu zuk lehengo bertsolarien eta oraingoan arteko diferentzia? esate baterako, Uztapide eta Amurizaren artean edo Jon Enbeita eta zure artean?

JON.- Uztapide jatorrizko bertsolaria da, baina Amuriza jakinduria aldetik Uztapide baino aurrerago dabil, euskeraz ere ikasiagoa delako. Amuriza, Enbeita eta hauek ikasi duten bertsolariak dira, gu baino preparatuago dagoz: guk geure buruz ikasi dugu. Preparatuta dagoen batek ba daki gaia nondik datorren eta zelan doan, baina ikasi bariarik dagoen batek igual hartzen du eza gutzen ez duen gai bat eta asko kostatzen zaio.

BERTSOLARIAK

ANAIT.- Zuk 30 urte baino gehiago daroazu kantari eta bertsolari asko ezagutu duzu. Ea nolakoak diren edo ziren esaten diguzun hitz gitxitan: guk izena eta zuk izana.

XALBADOR.- sakona, sakontasunean bertsolaririk handiena; behar bada herriarentzat ez zen beste batzu bezain alaia, eta gainera Bizkaian eta Gipuzkoan ez zen ulertzeko erreza, baina bertsolari handia izan da. Txapeldun izatea merezi zuen eta hori Euskal Herri osoak onartuko zuela uste dut. Gaurregun ez dut ezagutzen haren mailako bertsolaririk.

UZTAPIDE.- denean ona: sakonean, arinean. Berezko bertsolari handia. bertsolaritzarentzat, gaien aldetik, euskera aldetik, eta estiloa ere berezia zuen. Bertsolaririk onena zela, diote baina inoiz entzun dira honelako gauzak ere: Uztapide berez Basarri baino hobea da, baina Basarrik jakin daki asko eta...

MATTIN.- jendeak ondo hartu duen bertsolaria. Errez kantatu, aurpegi onekoa, bizkorra: txori alaia.

BALENDIN ENBEITA.- fina. Batera ibili ginen kantatzen Txorierrri aldean, eta esan nezake lagun ona eta gizon atsegina zela. Sasoi hartako Bizkaiko bertsolaririk onena.

LASARTE.- Batzuk onenentzat daukate, baina beste batzu hain dela sikua diote... Ez da inoiz txapeldun izan, baina berak dioen bezala, ez da txapelketetarako gizona.

LAZKAO TXIKI.- nik uste dut historiarako geratuko den bertsolaria dela. Inork uste ez duen alderditik irteten du gauza batzutan, eta horrek asko gura du esan, jendea beti dagoelako gauza berriak entzuten zai, eta honek honelako kolpeak ematen ditu. Hutsak ere ba



ditu, baina, bertsolari ona eta pertsona hobea da.

AZPILLAGA.- herri-bertsolaria, gizon ederra, ederto kantatu, errez eta bertso onak. Alderdi bi daukaz onak, alde batetik, herria beragaz, eta bestetik, bera herriagaz, eta horrek biak batuz gero...

LOPATEGI.- beste era bateko herri-bertsolaria, sakona eta serioa. Ez da Azpillagaren modukoa, beste era batera moldatzen da, baina oso ona da.

AMURIZA.- hau ere Lopategiren antzekoa: bertsolari moduan bertsolari, baina jakin ere asko daki, eta asko dakien batek bertsoak egiten ere ondo badaki, ba, atera kontuak. Gure bertsoak eta haren bertsoak diferentiek di-


ra, baina elkarrekin ondo konpontzen gara eta denontzat dago lekua bakoitzak bere bidea aurrera eroanez.

Zerbeza amaitu da, eta guk prestatuta genituen galderak ere bai. Magne- tofoia aparte utzita, elkarrizketak aurrera egiten du, oraingo honetan Ne- reak ere parte hartzen duela; gainera, ikastolan ikasitako bertso batzu ere kantatu dizkigu.

Baserritik irten eta argazki batzu egiten geundela bertsolariaren maila sozialetaz egin genuen berba, hau da: oso gitxik kontsideratzen dute bertsolaria artista moduan, eta gu, gitxi hauen artean gaude noski. Eta zergatik? Ba, hau argitzeko bertsolariaren kontra botatzen direnak erantzuten ha-

Euskal Herrian, ahozko literaturak idatzi- ariak baino garrantzi handiago duela.

MUGARTEGI etzun duen zenbatek ez du sekula **GABRIEL ARESTI** irakurri? Eta Aresti aipatu dugu, Gabrielelek, poeta sozialik gorenekotzat emana izan zen honek, bertsolaria apreziatzen zuelako, eta Baserriri hau idatzi ziolako behin: (ikus **ARGIA** 914.zka)



siko gara:

1.- bertsolaria sarritan, tabernetako arlote erdi mozkortia da: eta beste "artista" (sarritan) boite eta gau- klubetako arlote erdi mozkortia izaten da, baina kontuz, bertsolaria ardoz mozkortzen den bitartean, "artistak" kuba-librea edo porroa hartzen du, eta klaro, diferentzia hori **izugarria** da.


2.- Bertsolariak egiten duen ahoz- ko literatura hori oso kalitate eskase- koa da: noski, bat-batean egindako li- teraturari nola exigitu kalitatena. (Bat- zuk uste izango dute hori ez dela litera- tura ere, baina hau beste baterako utzi- ko dugu). Baina jende horrek gitxitan pentsatu du, behar bada, euskaldunak 500-600 mila garelako, eta euskaraz egin- dako literatura idatzia, gehienetan ez duela 1.000 (mila) pertsonak irakur- tzen, eta bertso saioa bakoitzera 200 pertsona badoaz (eta gitxitik botatzen dugu), urtean zehar, Mugartegi beza- lako bertsolari bat 6.000 pertsonak ent- zuten dutela. Beraz, gaur behintzat,

"Bertsolariak ere poetak dira, po- eta baserritarrak, (nire lagun on ba- tek dio bertsolariak direla egiazko poeta sozial bakarrak), eskolarik gabeko poetak, baina nire iritzian euskaldun poetarik hoberenak, olerkari guztiak baino hobek. Eta ni olerkaria naiz".

Gu ez gaude erabat ados Arestire- kin, zeren uste bait dugu bera baino poeta txarragoa den bertsolaririk izan dela eta ba dela, baina bestea hor gel- ditzen da.

Amaitzeko, beste gauzatxo bat ere gehituko genuke: entzulegoa eta den- bora izaten direla nor den bertsolaria eta nork ez duen izen hori merezi izate- ko minimoak betetzen esaten dutenak. Baina hau literatura idatzian ere berdin gertatzen da: poema-liburu bat publi- katzen duen oro ez bait da poeta. Bert- solaritzan ere plazaratzea ez da nahi- koa.

ITSASO ETA HARKAITZ



ARABAKO ILARDUIARREN ALDE

Prentsan Ekainaren 13an agertu zitzaigun Arabako Diputazioak uholdeen arriskua ekidin nahian zer egin eta ibai-bazterretako zuhaitzak ebakitzea erabaki du. Zorionak!

Eta bertako lagunak haserre omen daude: "La gente que ha ordenado en nuestro pueblo esta catástrofe argumentan que los árboles perjudican a SUS fincas o parcelas..."

Honela diote bertakoek eta ez zaie, ez, arrazoirik falta haserre izateko.

Diputazioko "teknikoak" hain astokilo izatea!

Vecinos de Ilarduia y concejales denuncian la grave deforestación de los ríos de Alava

VITORIA (EGIN).— Un grupo de vecinos del pueblo alavés de Ilarduia y el grupo de concejales independientes (apoyados por HB) coincidieron ayer en denunciar, de forma separada, la fase de deforestación que con la tala indiscriminada de árboles está realizando la Diputación en las riberas de los ríos alaveses y que tienen como objetivo la evitación de posibles inundaciones.

Para los vecinos de Ilarduia, la forma con que se están llevando a cabo estas talas contribuyen a una "mayor degradación del suelo alavés". Dicen en un escrito enviado a nuestra redacción, que su indignación no es "únicamente por motivo sentimental, sino por lo que el hecho implica de destrucción del medio ambiente. La gente que ha ordenado en nuestro pueblo esta catástrofe, siguen diciendo en su nota, argumentan que los árboles perjudican

a sus fincas o parcelas, pero no recaban en los beneficios que les aporta, y que se derivan fundamentalmente de la protección del viento, atracción de lluvias y sujeción de la tierra".

Denuncian a la Diputación alavesa que ha ofrecido de forma gratuita la utilización de excavadoras a los afectados, lo que ha producido el amontonamiento de tierra extraída a ambos lados del río, "destruyendo de esta forma la pesca que había empezado a potenciarse mediante reposiciones piscícolas". Los vecinos de Ilarduia exponen en su escrito como solución "más laboriosa hoy por hoy en cuestión de tiempo, pero que a la larga será más efectiva y barata, la limpieza de zarzas y matorrales del fondo de los ríos, que es lo que retiene la tierra en el río disminuyendo el cauce y provocando las inundaciones, y el sembrado de árboles en

las orillas dejando un cauce o anchura según el caudal del río". Finalmente piden a la Diputación que detenga la destrucción de los ríos alaveses, y el "encauzamiento del problema por vías racionales ecologistas y lógicas", a la vez que hacen un llamamiento a organizaciones y partidos para que se posicionen frente al tema.

Denuncia de los Independientes


Simultáneamente, el grupo de concejales independientes (apoyados por HB) hicieron hincapié en este mismo tema, dentro de la habitual rueda de prensa que ofrecen los viernes.

No dudaron de calificar el tema de "verdaderamente serio" y especialmente preocupante en las zonas de Maestu, Antoñana y Atauñi y responsabilizaron a la Diputación como máximo organismo provincial de todos los destrozos que están ocasionando en las riberas de los ríos alaveses.

BASOA ETA URA: basoek galerazi egiten dituzte katastrofeak: uholdeak, inguru idorrak...

BASOA BAI

BASOA EZ



BASOA BAI:

- euria bada, jausitako uraren parte haundi bat lurtzoruak gordetzen du. Ur hori astiro-astiro iragaziz doa lurpeko uren alderdira (akuiferora) arte (2). Baso horren babesean dagoen lurtzoruaren estalkia aberatsa da humusez. (1)

- euria gertatu ondoren, lurpeko ura hibaiarantz abiatzen da gradualki. Era berean, hibai-maila goratu egiten da.

- Aste batzutako idortea gertatzen bada ere, oraindik lurtzoruak urak beheko uren alderdira pasatzen jarraitzen du. Ibai-maila beheratu egiten da oso astiro.

BASOA EZ:

- euria bada, lurtzoruak oso arin saturatzen da urez. Honez gero jausten den ura ibaiarantz da lurgainetik, inongo oztoporik gabe.

- euria gertatu ondoren, ibai-maila arinki goratzen da uholdeen arriskua izanik.

- aste batzutako idortea gertatu ondoren iturriak agortu egiten dira lurpeko uren maila beheratu delako. Ibai-maila, ere, agudo beheratzen da.

Akaso ez dakite hoiak zuhaitzek lurrari ematen dioten "bizia"?

Ilarduiarrek ondo dakite hori, "teknikoak" ez dira eta: "protección del viento, atracción de lluvias y sujeción de la tierra".

Bai, bai, zuhaitzak eta arbolak.

Ez kendu, ipini baino.

Eta berau da nazio desarrollatueta egiten dutena, uholdeen arriskuak galerazi gura dituztenean behintzat.

Batzuren eritziz, gaur modan dago-

en "ekonomistena" beren interesek mugatzen duten eremutik kanpo ez da existitzen. Irakurtzen ez dakitenez, ia ikusten dakiten!

Hor doazkie irudi azaltzaile batzu. Seguru komikiak direla pentsatuko dute. Eta Europatik datoz, ez ditu hementxo ekologistaerradikalintuklearezlogiko batek egin!

Arazo honetan, beste guztietan legez, irtenbidea herriak berak ematen du: "encauzamiento del problema por vías racionales, ecologistas y lógicas". Filosofía sakona hor dagona.

Alderdi politikoei dagokienez, eta nire eritzi apalean, berdin zaie oraingo asuntua; Gernikako arbola ebakitzen ez dieten bitartean...

Hurrengo urtean Araban ikusiko den uholde itzela

Oharrak:

- higadura = erosioa
- irakurri Integral aldizkariaren extra monografikoa (nº 1)

Parlamentari Iruzurtzailea

Dela gutxi Israelen hauteskundeak izan dira Gobernu berria aukeratuz. Dena dela, ez gatozkizue haren berri erakartzen, baizik eta diputatu baten oihartzuna. Jakin izan dugunez, Jerusalem-go epaikariek Samuel Flatto-Sharon diputatu jauna kartzelara bidali dute hiru urte betez. Egia esan oraingoa ez da lehen zigorra, dirrela urte batzuk beste antzeko bat ezagutu baitzuen Frantzian. Orain jezartzen zaion salaketa sobornoa egiteagatik da. Aipaturiko soborno hau parlamenturako hauteskundeetan egina omen dago. Baina halan eta guztiz ere ez dirudi gure diputatu jauna harritzen denik bere kide batek, Shmuel Rehtman, beste horren besteko zigorra hartu ondoren indultoa jaso baitzuen.

Ohiturak gorde nahi


Italian jazorikoa eta benetan harrigarria. Paolo Floresta zen, zigor bat ordaindu behar zuen Catania ondoko herriska hatetan. Hango agintariek lau liratako zuen zorra zuzentzea eskatu zioten eta hori ordaintzeko epea eman ere. Nahi izanez gero lau urte ditu gure lagunak bere zorra aurrera ateratzeko.

Baina arazoa hementxe dago: Italian dagoen monedarik txikiena bost litarakoa duzue eta Paoloren zorra laukoa besterik ez da, nola egingo ote du zorra ordaintzeko? Horra hor gakoa.


Mundua lanik gabe

Bilboko Bankuak 1980. urteari buruzko informe batetik ateratako hainbat datu dugu gurekin. **Kasurereko aipa ditzagun langabeziari buruzkoak:**

Eta ikarak asko gustatzen zizkigularik ikus dezagun pezetak ezagutu duen bilakabidea urteetar zehar eta **munduko beste mone dekin konparatuz:**



	1978	1979	1980
Kanada.....	8,4	7,5	7,8
USA.....	6,0	5,8	7,2
Japoi.....	2,2	2,1	2,0
Alemania.....	4,3	3,8	4,0
Frantzia.....	6,2	6,0	6,6
Italia.....	7,2	7,7	7,8
Ingalaterra.....	5,7	5,4	7,4
Espainia.....	7,5	9,2	11,7



Arzalan eremuko debalupena eta gero



OPORRETAN EDO HARRERMANETAU?

Oporrak heldu zaizkigu. Urtean hamaika hilabetetan ezin egin dezakeguna hamabigarrenean egin behar. Hau bizimodua!

Abonotonia utzi, burua garbitu, lagunak topatu, mapak prestatu, maiuskulaz idien herriak utzi, azalteen ez dienaik aukeratu, furgoneta bete, iparorratea prestu, lehenengoa sartu brrrrmmmm..... bigarrena, hirugarrena, laugarrena.....

Agur!!! Agur betikoak!!!

hogeitamar egun barru arte!!!

ANAITASUNA

OPORRALDIAK, BIZIAREN IGANDE

Jendea oporretan hasten baldin bada beste erremediorik ez duelako izan ohi da. Gezurra dirudi baina hala izaten da. Urtean zehar lanak jan egiten du bat, gure herri eta hiritan ezin da bizi eta guzti honek eragiten du oporrek hartzera.

Kapitalismo industrialaren eraginak gizon librea, kateietan lan egiten duen gizon batetan bihurtu du, supermerkatuetan erosten duen gizon batetan eta telebistaren aurreko ikusle huts den batetan. Bidai agentzien bidez oporrek negozio batetan bihurtu dizkigute eta denbora libreтик diru egiteko beste

era bat sortu. Gizona turista batetan bihurtu digute.

Ez dago gauza berririk esan beharrik: hilabeteko opor horien helburua urte guztian pertsona zapaldurik jarrai dezan da. Hilabete horretan urtean zehar aurreratu duen dirua kentzen zaio. Horretarako autoaren eta apartamentuaren beharra sortzen diote.

Turismoa eta bidaiak ez dira berdinak. Leku batetara joan, hango jendea ezagutzea eta hango bizimodu ulertzea ez da turismoa.

Ez dugu bizimodurik aldatuko, lan eta opor zapaltzaileak ez baditugu aldatzen. Hori lortu gabe ez dugu askatasunik lortuko.

Gizarte berri batek lan egitea ez du beharrezkotzat hartuko eta ondorioz oporrek ez lukete sentidurik izango.

Lana eta atsedena, produzioa eta plazerra nahasturik egon beharko lukete. Lortu beharko genukeena zera litzateke; oporrek gure lurra ezagutzeko balio dezatela eta noizbait kanpora irtetzea erabakiko bagenu kanpoko kultura eta jendeak ezagutzeko izan daitezela. Eta inoiz ez turismoaren industria bati jokua egin diezaiozun.

Euskadi oso polita da eta leku ezberdin ugari du. Beraz, jende aberatsak urbanizazio eta txaletak ez ditzan egin leku ugari gorde beharko du herriak. Leku horik herriak disfruta ditzala. Herri aske batetako oporrak kanpamendu batzuetan igaro daitezke: hibai, laku, mendi, itsas aldeetan baina jabego leku-tan. Turismoaren zapalkuntza eta manipulaziorik egongo ez den leku batzutan.

**MARIO GABIRIA
(Zeruko Argia 839.
zenbakian)**

YUGOSLAVIA

Europako "ekialdekoa" daukagu Yugoslavia, beste Europakoa, hain zuzen. Bloke bereko beste nazioekin konparatuz (Txekoslovakia, Polonia, Rumania, Bulgaria...) Yugoslavia dugu burokratzia gutxienekoa, turista bezala sartzetakoan behintzat. Blokeko beste guztietan bezalaxe, Yugoslaviara sartzeko ere "baimen" baten beharrea aurkitzen gara. Berau Yugoslavia-k dituen enbaxadetan (Italian, Austrian...) lortzen da segurua, baina mugan bertan ere eskuratu da (momentuan ematen dute) eta ez da lar garesti ateratzen (50 bat pezeta). Baimen horrek hilebeterako balio du, baino lehenago irteten bazara, Greziara edo Bulgariara joateko, esate baterako, kendu egiten dizute eta bueltatzean beste bat atera behar duzu. Ez dugu hemen gauzak generalizatuko baina kontuz mugetan pasaportearekin. Aurpegi txarra jarri ohi dute ESPAÑA ikustean. Jakingo balute guri ere horrek ematen digun grazia!


Idea orokor batzu emango ditugu interesgarri izan daitezkeelakoan. Dena dela, kontutan hartu ezin daitezkeela arautzat jo, eta "egoerak" aldatu egiten direla urtez urte. Izan ere, Tito hil ondoren ez dakigu zernolako aldaketak izan diren. Joaten bazarete kontaktu!

Yugoslavia kontrastasunen lurraldea da. Ba dakigu edonon dagoela holakorik, etxetik irten barik ere igartzten da eta. Hala eta guztiz ere, Yugoslavian gogorrago azaltzen zaigu hori, beharba-

da beti sozialistatzen hartu dugulako eta beste era batetako gizartea zelakoan geundelako. Baina bai, alde bi bereizten dira "bistaz": itsasaldea (Adriatiko aldea, jakina) eta barnealdea; eta barnealdean ere desberdin gertatzen dira Beograd-en (Belgrado) ingurukoa, eta Kossovo izeneko errepublikakoa (Albania parean dago eta orain gutxi iskanbila gogorak izan ditu). Eta sailkapen hau "bistaz" egitearen arrazoia hau da: lurralde baten biziaz eta oituraz ondo jabetzeko bertan bizi behar, bizi zentzu guztietan, eta luzaron, eta hau ez da egun batzu pasatzera, oporretan, doanak egiten duena, bizi egiten du, bai, baina pasoz beste aukerarik ez duelako. Horregatik dinogu "bistaz". Hala ere, lehenengo burutapen hori lagungarri gertatzen zaigu: ezin daiteke ondo ibili hainbeste diferentzi egiten dituen herria.

Izan ere, Yugoslaviako kostaldea "tedeschi"-ena da goitik behera (tedeschi, horrela deitzen diete han eta Italian ere alemanei). Holakorik ikusita geneukan Andaluzian, Katalunian, Italian, Austrian, ... baina Yugoslavian ez genuen espero! Espero ez bagenuen ere horrela da, tedeschi-z beteta dago: Split, Dubrovnik, Makarska... eta horrelako hiriek ez dute ezer galtzen Europako beste hiri askorekin konparatuz.

Gauza ikusgarria: orain arte behintzat, gaur egun ez dakit, despelotea debekata egon da, baina bertakoentzat, tedeschi-ek nahi duten neurrian eta lekuan egiten dute eta. Asike, nahi baduzue eguzki-izpiak leku guztietan sartu dakizkizue, euskaraz hasi berbetan eta urrera!



Kontuz polizierekin, polizia leku guztietan berdintsua izaten da eta. Praka motzetan ibiltzeagatik, edo kotxeko gurpilak espaloiarenean gainean uzteagatik, edo kotxean inperioko "E" ez eroateagatik edo... multa. Eta hobe ordaintzea, bada espada. Tedeschi ez garenetz!

Kanping egiteko, leku ofizialetan bakarrik egin daiteke. Ugari dagoz itsaldean, baina barruan eskas. Kanping "basatia" debekatuta dago, hala ere saiatu zaitezke egiten, baina goiz-goizez altxa eta aurrera.

Trenez basoazte arazo bat dago: kostaldetik ez dago trenerik (jarri berriak ez badira). Splteraino heltzen da bat eta gero hortik behera autobusez edo stop-ez egin daiteke. Gero berriz har daiteke trenara Skopje-n. Hiri hau lurrikara batek deseginda izan zen 1963. urtean, mila bat lagun hil zirela, horregatik gaurko arkitektura ikusgarria gertatzen da.

Split-etik Skopje-rainoko bidea benetan polita. Lehenbiziko, kostatik jaitsi; Albania aldera heltzean ez dira tedeschik agertzen eta "basatiago" ematen du hango paisaiak. Irla bakartiak ere ba dira. Gero barrurantz sartu (Titograd: hiri kuartela) era Kossovo errepublika dago, jatorriz albaniarren diren jendez osotuta. Probezia begi-bistan azaltzen da edonon. Lapurrak dira, izan behar, Gauzak erosterakoan truke egin daiteke (errotuladoreak, txiskeroak, ...) eta dirua erabili gabe. Saiatu zaitezte! Skopje-n trenara dago berriz eta aukera dago Grezia aldeira joateko edo Beograd-era (eta hementik Bulgariara, Istanbul-era...).

BEOGRAD (Belgrado). Merezi du egunen bat geratzeak. Gauetz Skadarlika izeneko kaletik pasa, alde zaharreko erdian.

Yugoslaviako Youth Hostel (gazteen-tzako albergeak) ugari dira, batez ere kostaldean (begiratu aurtengo katalogoan). Esan beharra dago horietara joateko karneta behar dela, Euskal Herrian aiseki ateratzen dena (ikus txosten honen beste nonbait). Eta ez da lar garesti izaten horrelako lekuetan lo egitea. Ikasle-karnet internazionalaren bidez (ISC) abaintaila batzu izan ditzakezue: trenetan, itsasontzietan, museoetan....

Hona hemen gazteentzako bidai agentzia baten zuzenbidea:

Mose Pijade 12, Beograd (Belgrado).

ALBANIA

Hona ez dago sartzerik. Aukera bakarra taldetan sartzea da. Horretarako Paris edo Londoneko bidai agentzi "jatorretara" jo behar.

Hona hemen haietariko bat gure herrian: 438 49 87 (Barakaldo).

GREZIA

Batzuzentzat Grezia pasoko lekua da, Asiara joateko pasoa hain zuzen. Beste batzuzentzat, ostera, heltzeko puntua. Izan ere, Grezian ba dago zerikusi. Itsaldea leku guztietatik. Turista ere edonon, batez ere jende gaztea, Grezia azken bolada honetan mito bihurtu da eta. Irlak ere ugari: kriti, Karpathos, Rodos, Kalymnos, Samos, Corfu, Lesvos, Limnos.... Irlalara joateko ez da problema batere, itsasontzi asko dago eta.

Kanping ugari dagoz, bestela edonon egin daiteke. Dena dela, katalogo bat eskuratu. Greziara edonondik joan daiteke. Euskal Herriatik joanda (kotxez edo trenez) Yugoslavian zehar egin daiteke edo, eta hau askok egiten du, Hego-Italiara joan eta gero Bari-n, Brindidi-n edo Ancona-n ferry hartuta Corfu-raino edo Igoumenitsa-raino.



ATHINE (Atenas). Arkeologia eta historia maite dituenak ba du han ondo pasatzeko modua: Akropolia, Partenoia, Onena katalogo bat eskatzea. Kontutan hartu ikasle-karnet internazionalaren bidez (ISC) merkeago (edo ordiandu gabe) sartzen dela. Alde zaharrean, Akropoli azpian hain zuzen, azoka interesgarri izaten da, gauzarik bitxiak topatzeko aurkitu dezakezue giro ederra eta hango ardoa dastatzeko aukera ere. Lo egiteko Youth Hostel era Hotel batzu ere ba dira eta merke (100 pezeta inguru edo apur bat gehiago). Hona hemen batzu:

- Ilon House, Nikis kalea z° 48
- Hotel Diana, Kotsika kalea (lana topatzeko ere)
- Pagkation egoitza, Damarcos kalea z°75 (Pagrati)
- Ermou kalea z°66 eta 69
- Youth Hostel, Odos kalea z°57 (Kypselis).
- Organosis Xenonon Neotilos Ellados, 4 Odos Dragatsaniou, Plateia Klafthomas.
- Lord Byron Youth Hostel, Kallijoleos kalea z°20 (ikasleentzat bakarrik)
- YMCA, Omciou kalea z°28. Gizonezkoentzat bakarrik.

- YMCA, Amerikas kalea n° 11. Emakumezkoentzat bakarrik.

Athine-ko hotelik merkeenak, -generalean, Syntagnu inguruan dira. Merke jateko "tabernetara" joan errestauranteak garestiago dira eta. Athine-tik hurbil Pireos (Pireo) itsasportua dago. Ikustekoa. Hemendik edonora joan daiteke: irlalara, Turkia aldera.... Informazio hobe eskuratzeko jo hona:

INFORMATION DEPARTMENT (B3), Hellenic Republic National Tourist Organisation, Amerikas Kalea z° (Athine).

Eguzkia zelan sartzen den ikusi nahi dutenak Cap Sounion-era doazela. Bertan Poseidon-Tenplua dago. Athine-tik 60 bat kilometrotara, ekialdera, eta Makronissos izeneko irlatik hurbil. Alboan kanping. Autobusak ere ba dira Athine-tik. Galdetu nonbait.

Athine-tik hurbil, eta Elefsis-erako bidean Dafni izeneko herria dago (Athine-Delfi - 15 bat km), "ardo-hiria" izenez ezagunagoa. Era guztietako ardoak dastatzeko aukera duzue eta merke-merkea. Sarrera baino ez da ordaindu behar (100 pzt inguru, edo apur bat gehiago). Gainera, self-service zeozer jateko (ardoari laguntzeko) eta herriko dantzak (sirtaki). Gau-pasa egitekoa. On egin.

Greziako bigarren hiria Thessaloniki (Tesalonica) da, Athine-tik 500 bat kilometrotara, iparraldean. Historiako hiria. Ikustekoa auzo turkoa hiriko goikaldean. Hemendik errez daukazue Istanbul-eraino joatea; kilometro asko ez badira ere, bidaia luzea da (Athine-Istanbul - 40 ordu; Thessaloniki-Istanbul -28 ordu) eta arriskutsua. Kontuz karterarekin; luzea bada ere, ez egin lo, eta eraman jan eta edatekoa. Txartela merkeago ateratzeko jo ezazue hona:

"SPECIAL RAILWAY OFFICE" Parnepistimio kale (Chetour). Hau ATHINE-n dago.

Athos mendia ikustera ere joan daiteke, Thessaloniki-tik ekialderako punta -batean. Pila bat monastegi (20 bat). Jateko eta lo egiteko dohainik, diru barik (lehen behintzat). Lehen ere baimena behar zen sartzeko, enteratu turismo-bulegoetan, eta ez zegoen emakumezkoak sartzerik (?).

Greziako beheko aldea Peloponeso-a da, goiko aldetik Korinthos-eko kanalaren bitartez banatua. Hemengo hiri nagusiak: Korinthos, Egion, Patre, Pargos, Kalamata, Tripoli, Nafplion, Sparti. Zenbat eta beherago (Kalamata, Sparti) turista gutxiago. Trenak buelta osoa ematen du, eta dexente. Lo egiteko ez dago Youth Hostel asko (Nafplion-en bai), dena dela, hondartzetan egitearren ez dizuete ezer esango. Herri arrantzaleak direnez arrainak merke jaten dira. On egin. Peloponeso-n ere pila gauza historiko dagoz. Animatu ezkerero...

Ondo ibili.

KONTUTAN HAR

Etxetik irten aurretik enteratu diruaren truke zelan dagoen eta aldatzeko leku egokiena zein den. Eten-gabe aldatzen ari da. Lortu nahi den dirua ez bada hemen lortzen hobe litzateke momentuko diru "gogorra" eramatea. Normalean dolarrak edo markoak edo bestela Travels-Cheque. Hau guztiaun urrunera joatekoan. Hurbilean geratu ezkerdo edozein diruk balio du, pezetak izan ezik.

Beste gauza interesgarria: mapa onak. Michelinek ateratakoak horrelakoak omen dira, batez ere Afrika eta Asiakoak. Europakoak ugari dira. Ah, eta gauza bat, Michelin izena hemen aipatu arren ez dugu ezer ko-bratzen.

GAZTEENTZAKO BIDAIK (ez bakarrik ikasleentzat)

Erakunde ofizial batzuren bitartez, bidaiak merkeak lor daitezke, bai taldetan joateko, bai bakarrean. Urtez urte aldatzen direnez, egokiena unean enteratzea izaten da. Euskal Herrian, hegoaldean behintzat, "delegación provincial de cultura" delakoan ematen dute horren berri. Iparaldean ere, holakoren batetan izan da.

Kasu gehienetan ez da zertan ikasle edo estudiante izan behar, nahiko da "gazte" (?) izatea. Gauza batzutarako ez da toperik egoten adinean. Beste batzutan, oster, frogatu egin behar da ikasten zagozela.

Edonora joateko hantxe dago informazioa (Charter-ak, ostatuak, trenak, ...) eta bidai agentziekin konparatuz merkeago izaten da.

Ba dagoz egon karnet batzu askotan baliagarri gertatzen direnak, batez ere Penintsulatik kanpo.

— ISC (International Student Card - Ikasle-karnet internazionala).

Hau eskuratzeko ikasle izan behar da eta frogatu, matrikularen fotokopia edo. Horretaz gainera 75 pezeta eta argazkiren bat. Oso interesgarri toki askotan merkeago egiten dute eta.

— Ostatu-karneta.

Munduan zehar pila bat ostatu daude "International Youth Hostel Federación" erakundearen bilduta. Karneta **beharrezkoa** da horietaz probetxatzeko. Berori ateratzeko ez da ikaslea izan behar eta adinean ez da

go toperik. Hala ere, nazio batzutan eta leku problema badago, 27 urtez beharago izaten dute preferentzia. Karnetaren balioa 500 pzt (25 urtez beharagoak) eta 850 pzt (25-z goragoak); "delegación provisional de cultura" delakoan ateratzen da. Argazkiren bat ere behar da. Familia osorako ere egin daiteke.

- Inter Rail

Hau karneta baino trenez bidaiatzeko txartela da. Hamabost mila ta piku balio du eta hilabete batean edo, hobe esanda, 30 egun jarraietan Europan zehar ibiltzeko (trenaz jakina) balio du; ez da zertan inolako txartelik atera behar geltokietan, trenetan sartu eta baten bat hurbiltzen bada Inter Rail erakutsi, hau da dena. la Europa osoan balio du eta Marokkon ere bai. Baina ba du topea: 26 urte. Renfe-n ateratzen da eta momentuan ematen dute, ordaindu ezkerdo, noski! Txartela ateratzen den "nazioko" trenetan prezioaren erdia ordaindu behar da, beste guztietan ezer ere ez.



- Transalpinoa

Europatik trenez ibiltzeko beste metodoa. 26 urtez behekoentzat. Zer egingo dugu, ba? Merkeago ateratzen da trajektu batzuetan behintzat. Galdetu "delegación provincial de cultura" delakoan. (Hainbeste aipatu arren ez pentsa propagandatan gaudenik!).

Beste bide batzu ere egon ba da goz.



EUSKAL HERRITIK ANTOLATZEN DIREN TREKKING-AK

Trekking: munduko leku zoragarriak ezagutzeko modua. Ez turismoa egiteko, bidaiatzeko baino. Naturan barrenean sartzeko eta berarekin batera gozatzeko.

Euskal Herrian ba dira talde batzu honelako trekking-ak antolatzen dituztenak. Urte osoan aritzen dira hortaz, guk aurten egiteko direnak aipatuko ditugu.

IZADI ARTEAN

Zuzenbidea: 1016 gutunkutxa. Donostia.

Bestela telefono honetan (943) 46 66 25.

"Izadi Trek, abenturarako bidai erakunde da. Turismotik urrun diren Planetako leku zoragarriak ezagutzea hartu du helburutzat; mendiak eta oihanak, basamortuak eta kobak, hauxe da gure mundua".

Aurtengo egitaraua:

- PERU: inken aurreko zibilizazioak ezagutzeko aukera. Inkek eta ondorengoek egindako lanak gozatzeko. Trekking honek 28 bat egun betetzen du eta urtean bat baino gehiago egoten da. Prezioa 130.000 pezeta inguru. Taldearen muga 12-15 lagun izaten da.

- BOLIVIA: hemen aukera batzu eskeintzen dira, oinez joatekoak, jepeez joatekoak, Amazonian zehar, Uyuni basamortuan zehar ... Prezioak eta egunak aukeraren arabera.

- INDIA (LADAKH): India erlijio askoren nahasketa da. Ladakh izeneko haranean lamak bizitza ezagutu daiteke. Himalayan zehar egiten zen komertzioaren gunea. Trekking honen irteera Abuztuaren 3'an izango da 28'an bueltatzeko. Prezioa 100.000 pezeta. 12-15 lagun.

- Pirinioak: alpinismo ikasi eta egiteko ikastaroak. Espeleologia ere bai.

MENDIAK ETA HERRIAK

Zuzenbidea: Felipe Uriarte. Muralla

Uria, 10-4° izq. HONDARRABIA.
Tfnoa (943) 356602.

Bestela Viajes Iruña. Paseo Sarasate 7 Iruña (948) 221630.

- NEPAL: Rolwaling, Khumbu, Gokyo eta Imja izeneko haranetan zahar. Serpa Herri ezagutzeko eta sherpekin batera egun batzutan bizitzeko. Zer esanik ez, mendira igoteko aukera ere dagoela. Ibaldu hau 45 egunetan egingo da. Prezioa 200.000 PEZETA INGURU: Taldearen muga 10 pertsona. Irailaren 28-tik Arazoaren 11-ra.

- PERU: Uztailean zehar egiteko dira trekking bai Perura. Bata Huascarán eta hango beste mendi batzutarra igoteko asmoz, eta bestea bertako kultura ezagutzeko. Presioak 150.000 pezeta inguru.

BIDE BERRIAK

Tolosako lagun batzuk osotutako taldea. Autobus bat erosi eta horra hor mundua ezagutzera abiatu direla.

Aurton "NAIROBITARRA" antolatu zuten eta Tolosatik Nairobi-raino joan zitzaizkigun. Esperientzia ederra izan omen zen eta ba dagoz beste batzu prestatzen.

Informazio gehiago gura duenak hona jo beza:

BIDE BERRIAK. Manuel Mocoeroa eta Angel Ortiz. Arbol de Guernica, 3 TOLOSA
Tfnoa (943) 670130.

CLUB EDELWEISS

Zuzenbidea: Azordoiaga 63 - Alonso-tegi BIZKAIA. Tfnoa: (94) 4164596.

Mendizale talde honek hainbat trekking antolatu ditu aurton:

- Uztailean (11-tik 26-ra) ★ Eskozia. 15.800 pzt.

- Abuztuan (1-tik 22-ra) ★ Eskandinavia 25.000 pzt.

- Abuztuan (2-tik 15-ra) ★ Suizako Alpeak. 8.000 pzt.

- Abuztuan (2-tik 23-ra) ★ Kenia eta Tanzania. 59.500 pzt.

- Irailaren (5-tik 20-ra) ★ Yugoslavia eta Dolomitak. 11.000 pzt.

MENDIRAKO BIDEAK

Abuztuan trekking bat antolatu dute Peruko Mendikate Zurira. Informaziorako telefonoa: 4634780 (Bizkaia Ote?)

Honaino guk batu dugun informazioa. Gehiago ere seguru dagoela, baina... Zuek badaukazue baldu ANAITASUNA ia hurrengorako hobe egiten dugun.

ISRAEL



Ekialde Hurbileko giroa ezagutzeko aproposa. Israel-en juduak eta arabeak daude, denok aldamenean, baina ez batera.

Israel-era sartzeko bide bakarra (edo ia bakarra) hegazkinez edo itsasontziz da. Europako edonondik joan daiteke. Abentura gehiago gura bada Egiptotik sartu daiteke Sinai basamortuan zehar pasatuz. Israel-ek dauzkan beste muga guztietatik (Libano, Siria, Jordania) ez dago pasatzerik. "Kasko urdinak" baino ez dagoz mugetan.

Ez da behar inongo baimenik Israel-era sartzeko (hau ere momentuko egotera polikoaren arabera dator). Pasaporte nahiakoa da. Ez utzi pasaportea mugan zigilatzen, seilatzen, bestela ez duzu nazio arabeetara joaterik. Kontutan hartu gerran direla. Horregatik "katxeoak" ugari izan daitezke: aireportuan, leku erlisiosoetan, ... terrorista zarelakoan.

Hango dirua "libra israeliarra" da, baina dolarretan bizi daiteke. Merkatu beltzean aldaketa hobea bankuetan baino. Eta non dago merkatu beltza? Galdetu kalean banku bat non dagoen eta baten batek egingo dizu proposapena. Dena dela, kontuan hartu hango diruak ez duela handik kanpo balio.

Hizkuntza aldetik hebraiera eta arabiera dira nagusi, baina hainbeste judu dira kanpotik etorriak non beste hizkuntza asko ere baliagarri gertatzen dira: ingelesa, frantsesa, gaztelania... Prentsa ere hizkuntza ezberdinetan. Hizkuntz arazoa interesatzen bazaizu zoaz Ulpan-etara, hebraiera ikasteko egun osoko eskoletara.

Israel-en barrenean ibiltzeko, eta prisa handirik ez bada, auto-stopez egin daiteke, baina ez da erraza, pila bat soldadu gauza bera egiten egoten dira eta, harma eta guzti. Dena dela, "Buztanean" jarri eta itxaron. Aiseago ibiltzen da autobusez. Enteratu merkeago egiteko moduz: ikasle-karneta (ISC) edo... Halere, Israel ez da lar handia, Tel Avicitik Jerusalem-era 60 bat kilometro, eta handik Jordan ibaira beste horrenbeste.

Lo egiteko ba dagoz hotel merke eta Youth Hostel ere, azken hau Israel-go hiri nagusietan eta hartutako lurraldeetan. Kibutzetan ere saiatu daiteke. Asmoa baduzu denbora gehiago bertan geratzeko (Israel-en) lanaren beharra izango duzu. Posible daukazu tabernetan topatu edo bestela kibutzetan. Azken hauetako bizitza interesgarria izan daiteke eta geratu zaitezke han gura duzun denborean, baina lan eginda, jakina (ikus Anaitasuna 407). Ideologikoki era guztietakoak dira, horregatik komenigarria da alde aurretik panorama ezagutzeari. Honen berri jakiteko jo ona:

53 A Hayarkon Street, Jerusalem

Aukera izatekotan, ona litzateke Sinai-ra joatea, Itsaso Hileria (Hortxe dagoz Massada-ko hondamenak, eta Youth Hostel ere), Golan-era, hartutako lurraldeetan lehen ziren errufigiatuen kanpuetara, ... alde hauetan oso turista gutxi dira eta hitz egiteko asko. Joaten bazara, kontatu gero!

MAROKKO (MARRUECOS, MAROC)

Gerra isil baten azpian bizi da Marokko. Alde batetik Sahara eta Polisarioa. Bestetik, barneko egoera, oraintsu 200 bat hil probokatu dituena (Casablanca-n). Honek azaldu dezake han gertatzen den hainbat gauza: lapurketa eta abar.



Sartzeko pasaporte besterik ez. Hala ere batzutan koleraren txertoa ere eskatzen dute. Turista gutxi, eta ondorioz, Marokko asko. Jende jatorra, lapurra baina jatorra. Kontuz kotzarekin, diruarekin eta aldean daramazun gainerakoarekin. Beharrak eragindako lapurketak.

Kotxez joanda kontuz kamioiekin, eta kontuz ere trafiko-señaleekin, ez baitira guk ezagutzen ditugunen antzekoak. Gasolina-kontuan marka guztiak dagoz han, badaezpada, aukeratu beti berdina; eta kotxea ondo ekipatu, basamortu aldera bazoaz behintzat. Autostopez bazoaz, pazientziatz hartu; gehienetan dirua eskatuko dizute, dena dela, merkeago ateratzen da bide ofizialak baino. Enteratu. Trenez joanda mugatuago aurkituko zara-aukera asko ez dago eta.

Hango txanpona "dhirham" da. Euskal Herriko bakueteetan ez da erreztortzekoa, baina hala ere saiatu, askoz ere merkeagoa ateratzen da, han baino. Bestela, eta beste erremediorik ez balego, Ceutako merkatu beltzean aldatu, edonon. Behin sartu ezker bertako merkatu beltzean ere, baina kontuz timoekin. Marokkon bakueteak itxita egoten dira larunbatetan. Dhirham barik ere, dolarrak asko maitatzen dituzte.

Erosketak egitean truke egin, hangoek ez baitakite denbora zer den. Zernahi erosi dezakezu eta zuk zeuk gura duzun salneurrian (enganatu barik), baina prisa gabe. Aitu? Trukearen arazoa jatorragoa gertatzen da barnealdean itsasoaldean baino, azken honetan diruzaleagoak dira eta. Truke egiteko hornizioak eroan behar dira etxetik: akondarak, prakak (bakeroak batez ere), zapatak, txapelak, kaikuak, txirukak... han arraroa gertatu daitekeen edozer. Ah, eta prisa barik!

Hizkuntza ofiziala arabea izan arren, frantsesa edonon da ezaguna, kolonizazio-garaia utzitako saria.

Lo egiteko Youth Hostel ba dira (eskuratu nonbait katalogoa) edo bestela, Hotelak ere ba dira merke. Animatzen bazara, hondartzan. Youth Hostel ondoko herri hauetan ba dira: Ansi (Toubkat mendiazpian), Azrou, Casablanca, Erfoud, Fes, Marrakech, Meknes eta Rabat. "Fédération Royale Marocaine des Auberges de Jeunes" zuzenbide honetan aurkitzen da: 6 Place Amiral Philibert. Casablanca. Tfnoa 4743-01.

Kanping-ak egon ba daude, denak hain bigun ez badira ere. Izan ere, batzutan, harriak baino ez dira, bizkarra gogortzeko modua!

Bizitza, gu bezalako gizarajoentza ez da lar garesti gertatzen, baina berriro dinogu, sokatira egin salneurriekin. Ez zaituzte amerikanoak hartu!

Marokko-ko hiri guztietan interesgarriago izan daiteke alde zaharra (Medina) alde berria baino. Medinetan mundu berri bat aurkituko duzu: suge-sorgintzaileak,

eskorpio-sorgintzaileak, ipuin-kontatzaileak, ... sinisten ez duzun edozer. Behar bada, hiririk interesgarriena Marrakech izango da. Hemendik hegoaldera mendaik hasten dira (Goiko Atlas) eta gero basamortua. Oso turista gutxi alde honetan. Hemen ba dagoz herrikka batzu (bereberek) non euskaldunak oso preziatuak izaten diren. Izan ere, Imlil izeneko Asni-tik 14 kilometrotara (Marrakech-Ansi - 60 bat Km). Herri koskor hau (hamar etxe baino ez dira), mendietan aurkitzen da (mila ta piku metroan). Euskaldun etnologoak hainbat aldiz egonak dira han. Mendizale izanda hantxe da Toubkat, lau mila ta piku metro. Berebereen artean benetan egonaldi ederra: haiekin jan, haien etxeetan lo egin, elkarren artean festa eginez...

Marrakech-tik Fes-erako bidean Ouzoud-eko urjausiak dira. Zibilizaziotik urrun, oraingoz behintzat.

Gazteen giroa ezagutzeko, unibertsital herrietan (Fes, Meknes) da aukera. Enroilatzeiko ondo.

Txokolatea edonon, edonoiz eta edonola. Gamelu asko, konkordunak gutxi ikusten badira ere. Salneurrian sokatira egin, eta kontuz, lukainka ederra sartzen dute eta. Askotan polizia bera izaten da, eta hori ez da batere komeni.... Mugan bertan ez erosi.

Ondo ibili.

AFRIKA: ZERBAIT BERRI GURE AURREAN

SARRERA

Normalki nahiko kilometro egiteko prest gaudenean gure bidaiak EUROPARuntz jotzen dute. Ia beti ITALI, SUIZA, AUSTRIA, INGALATERRA, HOLLANDA edo urrutiago joatea izaten da gure helburua, hortarako FRANTZIA zehartatzen dugu eta gehienetan pasae-rako lurraldea besterik ez da.



ZERGATIK ez ba 1000 kilometro hoiak hego alderuntz egin eta AFRIKAN sartu?

Jendea, paisaia, ohiturak ezberdinak izango zaizhigu. AFRIKA abentura bat da, aurpegi bakoitzean misterioa dago, kaleetan ezezagun usaia... eta basamortuan gauza gehiegi... hemen hontatzeko

AFRIKA iparraldetik bidaiatxo bat egiteko ez da beste munduko prestaketarik egin behar, kotxea kondizio onetan, janaria... aduanetan pazientzi pixka bat eta bertako gauzak ulertu nahi izatea, han erlijioa sakratua da!!

Egitazko AFRIKA eta EUROPA ez dituzte Mediterraneo ITXASOAK banatzen, SAHARA baizik.

AFRIKAKO IPARRALDEA

Interesgarria da, joan baino lehen ahal den informazio guztia biltzea, bai liburu, gidak, mapak, turismo "folletoak" etab.

MAPAK

MICHELIN 169 eta 172
KÜMMERLY + FREY (alemanak).

Itsasotziz pasa beharko gara, AFRIKARA sartzeko, (MARRUECOS eta ARGELL) normalki). Hauetaz informazioa jasotzeko edorein bidai agentzietan jarrikingo dute, hala ere bertara inguratu gaintezke.

MARRUECOSera joateko

Algeciras - Ceuta
Algeciras - Tanger
Malaga - Casablanca

Malaba - Tanger
 Malaga - Melilla
 Almeria - Melilla

argelira joateko

Alicante - Oran

Udan neguan baino maizago (sarriagotan) izaten dira.

MARRUEKOS

Hara joateko Algecirasetik Ceutara pasako gara, bera da merkena eta motrena (ordu ta erdi).

Ceutan gure azken erosketak modu onean egin ditzakegu. Garrantzikoa izango da patrikarentzat MARRUEKOS-eko dirua hemen aldatzea ("DIRHAM"), merkatu beltzean askoz merkeago eta eriskurik ez dago, hala ta guztiz disimulo pixka bateaz egitea komeni du. (Kale errealearen atzean dagoen enparantza txiki batean). Beste dirua FRANCOTAN eramane MARRUEKOS barruan aldatu beharrean aurkitzen bazarete.

Depositua gasolinaz bete eta muga aldera, kotxe paperak, pasaporteak, carta berde etab behar bezala ematen badituzue eta suertea jende asko ez izatea,

problemarik gabe pasado zarete (asteburuetan eta abuztu hasieran jende asko).

Beste mundo bat izango dugu begien aurrean, abentura politena guk ezagutzea, regatoa beharrezkoa, timoa arriskua:...

FEZ, RABAT, MEKNES, MARRAQUECH eta beste leku asko ezaguta, hango kaleak, azokak, jendeak itxaroten dituzue.

GUIA DEL TROTAMUNDOS, liburuak MARRUEKOS-taz hitz egiten du.

ARGELIA

Bertara zuzenean itsasontziz joan beharrean merkeago ateratzen da Malaga edo Almeriatik Melillara pasatzea.

Hemen ere barkutik jeitxi ordurako dirua aldatzeko aukera izango dugu, MARRUEKOS-erako "DIRHAM", edo ARGELIarako "DINAR" azken hauek 7 edo 8 peztan ondo erosiak daude (DINAR-ekin kontuz ibili beharda, ezin dira ez ARGELIara sartu ez aterahortaz "dibisa deklarazioa", egiterakoan FRANKOAK eta BESTE diru klaseak deklaratu, eta gero banko batetan DINAR batzu erosi eta erresguardoa jaso).

MELILLATIK ateratzeko, aduaneroak pelmaxamarrak dira batzutan, OUJDA aldera hartu, hemendik ORAN, ARGEL, TUNEZera joateko, ez dago mapa hartu eta kilometroak egin besterik.

ARGELIan eta TUNEZ-en, "seriotasun" gehiago dago, Mediterraneo ondoan daudenak EUROPEAR kutsua dute.

SAHARA


AFIK-aren laurden bar SAHARA da, 10 miloi K2, Europa osoa baino zabalagoak dira,...

Sahara artifizialki ij nazio artean banaturik dago.

MARRUEKOS, REPUBLIKA DEMOCRATIKUA SHARAHUI, ARGELIA, TUNEZ, LIBIA, EGIPTO iparraldetik eta MAURITANIA, MALI; NIGER, CHAD eta SUDAN hegoaldetik.

Bost pistek zeharkatzen dute, ahuetatik bi dira ezugunenak:

- Bata, BECHAR, ADRAR, MALIKO GAOrano doana (REGGANetik -GAOraino 1500 Km pista).
- Bestea ARGEL, EL GOLEA, IN SALAH, TAMANRASSETik, NIGERneko AGADEZeraino (TAMANRASSEFIK-AGADEZeraino 700 Km pista).



- SAHARAKo maparik onena
MICHELIN 153 (lortzen oso zaila)
- Bi GIDA LIBURU onak badaude (biak frantzesez).
TRANS-AFRIQUE (TOURING CLUB)
GUIDE BLEU DU SAHARA (Hachette).

Hauek sortzeko. ALTAIR liburudenda
Riera alta, 8
BARTZELONA, 1
Tlfno: 3293466

(bidai eta abentura liburuak eta mapak saltzen dituen liburudenda espezializatu).

- Bertan egondako norbaiten informazio zuzena izatea komenigarri da.

KOTXE NORMAL BATEAZ EGIN DAITEKEEN IBILBIDE BATZU DESKRIBATUKO DITUGU

Gusdatik hegoalderuntz, FIGUIGko aduanara iritxi eta ARGELIAN sartu, lehen hiri handia BECHAR da, hemendik beruntz oasiak askoz txikiagoak dira, BECHARretik gertu TAGHIT herria eza gutzea merezi du, histori aurreko grabatuak, ikusmira onak oasi polita, hibai

lehor baten arrastoak bide ondoan utzi eta KERZAZera iritxi.

Hemendik bi aukera ditugu:

- Bata karretera hegoalderuntz jarraitu SDRAR eta REGANNErako eta bide berdinetik itzuli.

- Bestea ekialdera jo, TIMIMOUN oasiraino (hemen "desiertoko arrosak" aurkitu daitezke, kristalizazio forma berezi batzuta dituzten harriak dira eta inguru honetan bakarrik dauden), handik EL GOLEA; GHARDAIA, LAGHOUAT eta ARGEL. Azken hau oasi handien bira izango litzateke.

ARGELera iritxi eta handik karretera hartu, GHARDAIA, EL GOLEA, IN SALAH (hemen 700 kilometrotarako gasoila hartu behar du) eta TAMANRASSET.

TAMANRASSET, ARGELIAN hegoalde dagoen herria da, Turismoa pixkarrak irixten ari da, aideportua ere badago. Karretera orain urte gutxi asfaltatu dute. Oso leku interesgarria da HOGAR mendikatea, TUAREGjendea, bertan inguruak erakusten dituzten agintziak badaude. Han 3000 metroko mendibatean ASSEKREMgo ermita dago, orain 75 urte Pere Faucand, mundu hontatik erretira zen lekua, eta TUAREG

en hizkuntza artertu zuen gaur beste batzuta bizi dira.

Milaka kilometro zelaietan igeri dabil-tzan mendi hauek, kutsu berezi bat utzi-ko digute.

Basamortua erabat zeharkatzeko, lehen deskribatuko bi pista hamaituen dira. REGANNETik, GAORA (MALI), 1500 kilometroko pista, nahiko txarra, "experi-entzia", "todo terreno" autoa, eta gasoil, jarrari eta ura erreserbak beharrez-koak dira. MALIn sartzeko, bisadua eta txertoak beharrezkoak dira eta "papeleo" guztiak ADRAREN egin.

TAMANRASSETik, AGADEZera (NIGER) 700 kilometroko pista, bestearen kondizioetan Hondar biguna ere badago zatika.

NIGERren sartzeko ere bisadua atera eta txertuak hartu behar dira, "papeleoak" TAMANRASSETen.

SAHARATik ibiltzeko, garai onena irailetik martxora da.

- Arropak, botikina, ura leña tanto batez, eguzkiarekiko neurriak (betaurrekoak etab.). Preparaketak ondo egin da atera gero han gustora ibiltzeko.

AUZMENDI



SASTRE-VERGARA I.
DONOSTIARAKO ESTILOA.

JOSEBA SARRIONANDIA: PRESO DIGUTEN POETA.

Joseba Sarrionandia durangarra, 22 urte zituelarik sartu zituen gartzelara, orain zazpi-zortzi hilabete, 1980 urtearen amaieran. Berak dioen moduan, "berezi samarra" izan da urte hori, alde batetik, gartzelatze madarikatutako horregatik, eta bestetik, hiru literatur sari irabazi zituelako urtean zehar:


- Arabako Diputazioaren "Ignacio Aldekoa", "Maggi indazu kamamila" ipuinaz.
- Bilboko Udalaren "I Ciudad de Bilbao", "Enperadore eroa" ipuinaz, eta - Bilbo Aurrezki Kutxaren "VI Azkue", "Izuen gordelakuetan barrena" poema bildumaz.

Oraintsu heldu zait eskuetara poema liburua hau, eta uste izan dut aukera ederra dela Joseba beraren abotsa ANATASUNAREN orrialde-etara ekartzeko, dauzkagun idazle bakanak gutxitan agertzen direlako aldizkarietan, eta oraindik gutxiagotan preso dauzkagun lagunak, eta Joseba, gauza biak batera delako.

Elkarrizketa hau ez da elkarrizketa, elkarridazketa baizik (gutun bidez egindakoa), zeren "gartzela demokratikoak bost izarreko hotelak" direla badiote ere, oraindik ez digute uzten holakorik egiten; agian Tejeroren-gana

joan izan bagina bai, baina oraindik ez dugu horren interesik.

Normala den moduan, lehen galdera liburu berritaz izan zen:



Joseba Sarrionandia

ABERRIA HAUTATU EGITEN DA

Aberria hautatu egiten da —eta emakumea— edo bakardadeak edo besterik ezak ezartzen derauku.

ANAIT.- Argitara berria da "IZUEN GORDELEKUETAN BARRENA" poema-liburua. Zer senditzen duzu?

J.S.- Senditu? Ezer guti. Duela urte bete idatzi nuen; argitaratu orduko zer pentsatu eman zidan baina argitaratu ondoren ez zait gehiago ardura. Behin argitaratuez gero ezin duzu aldatu, eta amaitutzat eman behar duzu.

Irakurleek entelegatu eta atsegin dezatela desiratzen duzu, hori bai. Baina ezin duzu ezertan emendatu ahal, eta beste gauza berri eta hobeak egiten saiatzen zara.

ANAIT.- Jende gahienak prosista moduan ezagutzen zaitu. Ez zenuen nahiago izango zure lehen li-

burua nobela bat ala ipuin bilduma izatea poesia baino?

J.S.- Agian bai. Neuk ere mesfidantzaz begiratzen ditut ene poemok. Hizlaura, nobela nahiz ipuina, errezago idazten da poesia ona baino. Gainera, istorio bat kondatzeko "ideien eta estiloaren koherentzia literario bat" behar bada, "koherentzia poetiko" hori funtsean eta biluzik azaltzen da poematan, eta "norbere poetika" hori ez da goizetik arratsera sortzen —ez eta arratsetik goizera

EUSKAL LITERATURA

ANAIT.- Zelan ikusten duzu euskal literaturaren gaurko egoera? Gorantz ala beherantz doa?

J.S.- "Krisia" dagoela esaten dute, soziologiaren hetxizeroek. Baina hemen ez dago krisirik, hau basamortua da. Euskal literatura leku mortua da, letra handitan idazten den literatura bederen.

Heterodoxoek egin dute azken aldian egin den euskal literatura. Erabat marginalki egin da literatura; begira, esate baterako, zeintzu diren aldizkari literarioak: **Igela**, gero **Panpina Ustela**, geroago **Pott**... denak bazterrean sortu eta bazterrean itzaliak.

Oh! Euzkadi! geratzen da baina **Oh Euzkadi!** geratzen da baina **Oh Euzkadi!** ez da aldizkari literarioa, kultur kritikakoa baino. Eta kulturari buruzko eztabaida teorikoek tradizio han-

diagoa dute Euskal Herrian literaturak baino...

Baina "krisirik" ez dut uste, grafika estadistikoek gorantz edo beherantz goazela esan arren. Hau ez da Tour-eko etapa menditsu bat, hau lur mor-ua da. Lur idorra da euskal literatura-rena.

ANAIT.- Baina geroago eta liburu gehiago argitaratzen da. Geroago eta gehiago irakurtzen dela dirudi.

J.S.- Bai, geroago eta euskara-errezeko fabula gehiago, eta hiztegi piloa, eta euskarazko aditz-sistema adreilu hori ikasteko geroago eta metodo gehiago. Entropia linguistiko azele-ratua!

Egia esan, literatura ere argitaratzen da, baina oso gutxi, gutxi idazten delako eta gutxiago irakurtzen delako. Azkenaldian euskaraz, "literatura tipia" da hori.

ANAIT.- Zu Pott Bandan ibili zinen. Zer gertatu da bandarekin?

J.S.- Elkartu ginenean Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Josemari Iturralde, Jon Juaristi, Manu Ertzilla eta sei-erok ginen. Ruper Ordorikak musikarekin segitzen du, Anphora hautsi ondoren, Oinati aldean. Atxaga arabe ikasten, ume antzerkiak, eta enpara-urak egiten Barcelonan, Jimu Donostian, uste dut ipuin bilduma bat prestatu duela. Jon eta Manu, ez dakit zihur, Bilbo eta Durangaldean... guziak saka-banaturik, "munduan zabalik" nahi ba-duzu.

Ez dugu aldizkari gehiago aterako, oraingoz, klandestinitatera pasatu gara eta.

IRAKURRI ETA ITZULI

ANAIT.- Literaturazko galdera batzu. Asko irakurtzen duzue gartze-lan?, zer gustatzen zaizu zuri?

J.S.- Azkenaldian William Faulkner irakurri dut, honen nobelak literatur palazioak dira; Manuel Puig ere irakurtzen aritu naiz, eta Vladimir Nabokov, Stephen Crane, Julio Cortazar, Herman Broch-en "Virgilioren Heriotza", Merce Rodadera, Malcolm Lowry, Georges Betaille... golko handia... zenbat izen gehiago aterako dizkizut sakutik?

ANAIT.- Eta poetatan, zeintzu gustatzen zaizkizu?

J.S.- Gustatu?. Poesia, idazten bezala, irakurtzea ere zaila da. Gutxi ukitzen dizu bihotza. Baina izenak esaterik ez du zentzu handirik. Egunotan, gaz-

telaniaz, Pere Ginferer eta Agustín García Calvo ari naiz irakurtzen, eta la-kit zaizkit, gauza berriak aurkitzen di-tuzte.

ANAIT.- Eta poetatan, zeintzu gustatzen zaizkizu?

J.S.- Gustatu?. Poesia, idaztea bezala, irakurtzea ere zaila da. Gutxi ukitzen dizu bihotza. Baina izenak esate-rik ez du zentzu handirik. Egunotan, gaztelaniaz, Pere Ginferer eta Agustín García Calvo ari naiz irakurtzen, eta la-ket zaizkit, gauza berriak aurkitzen di-tuzte.

ANAIT.- Itzulpen batzu egin dituzula esan digute.

J.S.- Konstandinos Kavafis grekoaren itzulpen batzu egin nituen, baina gaz-telaniatik, T.S.Eliot zenaren "The waste land" ere hemen, gartzelan itzuli nuen. Orain, S.T. Coleridge inglesaren "The Rime of the Ancient Mariner" poema luzea ari naiz itzultzen, astiro-astiro, inglesa ikasten dudan artean.

Ihaz, bestalde, narrazio batzu itzuli nituen, Marcel Schwob sinbolistaren "La croissade des enfants" delako no-bela, eta R.L. Stevenson-en beste no-bela labur bat, François Villon poeta mediebalari buruz. Baina argitaratu ga-be daude.

MAGGIE ETA ENPERADOREA

ANAIT.- Zergatik situatu zenuen Txinan "Enperadore eroa" ipuna? Zergatik "Maggie" New York-en?

J.S.- Gaia hartu nuen lehendabizi "En-peradore eroa" idazteko. Eta gai hori Txinko elezaharren tankeran egoki eman zitekeela iruditu zitzaidan, eta aintzinako kontalari txino batek konta-tuko lukeen bezala eskribatu nuen.

Eta "Maggie" New York da. Ez di-tut Euskal lurraldeetan imini, zeren eta ipuin horik inork ere ere lituzke sinetsi-ko Durangon, Leitzan edo Deustuan situatu izan balira, istorio bakoitzari le-ku berezia dagokiolako.

ANAIT.- Jon Mirande-ren herent-zia somatzen da zure "Maggie" ipuinean, ez?

J.S.- Bai, haren ipuinen antza du agian, baina Jon Mirande-ren ipuine-tan senarrak hiltzen du emaztea, eta nirean emazteak senarra. Halaere, bro-maz at, Jon Mirande oso atsegina iru-ditzen zait, eta haren "Haur besoeta-koa" bezalakorik euskaraz guti idatzi dela uste dut.

MIRANDE, ATXAGA ETA ARESTI

ANAIT.- Zer iruditzen zaizkizu Jon Mirande-ren poemak?

J.S.- "Haur besoetako" berebiziko nobela iruditu zitzaidan lehen irakurke-tan. "Orhoituz" zailagoa da haria har-tzeko, baina poema miresgarriak ditu. Behin, Ruper Ordorikak abestu zidan "Kattalin" izeneko poema, badakizu doinua duea, abesti beltz oso polita da. Oskorri taldeak musikatu duen "Eresia" delakoa ere ederra da.

ANAIT.- Zer esan dezakezu egun-go euskal poemagintzaz?

J.S.- Ez dakit. Ez dago gauza handirik. Ezin daiteke ezer esan bost esalditan, baina liburu baten izena ematekotan B. Atxaga-ren "Etiopia" emango nuke, gauza on ugari duelako eta zabal-kunde aski izan ez duelako.

ANAIT.- Eta Gabriel Aresti, zer?

J.S.- Azkenaldian gairiditutzat ematen da, eta gutietsi egin dute, idazteko adiztaulak begiratu behar dituztenek ere. Hori ez dago ondo. Nire ustez, gutxi idatzi dute Gabriel Arestik be-zain ondo. Bai "Maldan Behera", bai "Harri eta Harri" eta ondorengo po-ema sozialak, bai, "Dekamerone Tipia" eta beste itzulpenak, oso onak dira. Estima handia diot Gabriel Aresti-ri, poemagintzaren beste planteamen-du bat izan arren.



Torturak izugarriak izan ziren, hiltzeko nahia sentitzera iristen zara hil zori amaigabe batetan bezala.

LITERATURA BURRUKARIA

ANAIT.- Poemagintza sozialez, ez duzu uste oraindik ez dela iragan literatura burrukariaren beharra?

J.S.- Ez dakit. Literatura burrukaria, zer da?. Entelagatzen dut zer adierazi nahi duen.

Ni ez naiz literatura soziala edo burruka poesia egiten saiatu. Ez naiz predikaria, eta alor horietan gauzak esanegiak daude azken urteotan Euskal Herrian, nik esango nituzkeenak behintzat esanik daude.

Gainera, espiritu epiko apur bat behar da eta, nik, Euskal Herriarekiko

bederen ez dut.

Halaere, poesia sozial ona egiten da oraindik munduan. Modaren aurka ere, nik nahiago ditut J. Gelman-en azken poemak Philippe Sollers-en azken textoak baino. Eta hor dago Mario Benedetti-k bildu duen "Poesia Trunca", Latinoamerikako poeta burrukan hilen antologia ederra.

ANAIT.- Eta zein mailatan ipintzen duzu zugar literatura eta burrukaren arteko harremana?

J.S.- Gai bizantino samarra da baina, uste dut niretzat bahintzat zeregin desberdinak izan direla. Ez naiz ausartzen Literatura niretzat zer den eta Iraultza Soziala niretzat zer den esplikatzen, luzeegia litzateke eta ez dakit ezer zentzuzkorik esango nukeen ere. Eritzi bat soilik.

Gizarte kapitalistaren egitura zantzailea da, eta hondatu egiten du gizasemeen libertatea. Orduan, derri gorrezkoa da gizarte hori salatu, burrukatu eta gizarte libroago baten urratsak ematen ahalegintzea.

Ez dirudi, bestalde, iraultza garaileak askatzailegiak suertatu direnik, baina saiatu egin behar da gizartea aldatzen. Ez dakit J.P. Sante-k ala A. Camus-ek esaten zuen bezala, ez dakit Iraultza ala Errebolta egin behar den; baina suntsitu egin behar da Estatu, aldatu egin behar dira gauzak.

Edozelan ere, literatura gauza pertsonala dela uste dut, eta sendimenduen adierazbidea, eta atsegina estetikoa eta enparauak. Baina ez dut uste, gauzak bortxatu ezik, harma politikoa izan daitekeenik.

GARTZELAREN "ABANTAILAK"

ANAIT.- Gartzelan, teorian behintzat, eta jende batzuren ustetan, idazte asti gehiago dago. Baina, idazten da?. Baduzu idazteko gogorik?

J.S.- Ezarri didaten etxalde hau ez da batere atsegina, eta oso zaila da hemen idaztea. Ez dakit nork asmatu zuen hemen asti gehiago dugula; ez da egia; ordu garbi gutxi ateratzen dira idazteko. Bestalde, gartzelako bakardadearena ere mito bat da, gartzela "demokratikoaren" funtsezko zereginetatik bat intimitatea galeraztea delako. Hirugarren eragozpen handia, kentzen dizun mobilitate eta informazio literarioa da. Gartzelak, bada, ez du abantailarik, eragozpenak ugari baino. Halaere, idatzi bai, idatzi egiten duzu, etsipenak irabazten ez dizun bitarte-



Pott: ez dugu aldizkari gehiago aterako, oraingoz, klandestinitatera pasatu gara eta.



Ni ez naiz predikaria, eta alor honetan gauzak esanegiak daude azken urteotan Euskal Herrian, nik esango nituzkeenak behintzat esanik daude.

etan bederen. Zeren eta, zorigaitzez, ezin duzu bizilekua hautatu eta, leku atseginagoen esperoan, idatziz iragaiten duzu denbora.

ANAIT.- Barrura sartu, eta handik denbora gutxi garrenera **EGIN**-en zure gutun bat agertu zen. Jendea harrিতuta geratu zen, komisarian pasatu eta gero, kanpoko "gartzela handi" honetaz ironizatzeko kapaz zinema ikusiz eta zure moralan hain goi zegoela egiztatuz. Berdin segitzen duzu? Gartzelako biziak ez zaitu barrutik jan?

J.S.- Gutun hura, ez dakit ondo adierazi nuen, komisariako torturak salatzekeo egin nuen batez ere. Tortura

izugarriak izan ziren, hiltzeko nahia senditzera iristen zara, hiltzori amaigabe batetan bezala. Estatu "demokratik", kristauen baimenarekin, hori egiten dutela adierazi nahi nuen. Baina "politika" baino sakonago erroturiko portaera bat zela iruditzen zaidala esan nahi nuen.

Momentu askotan tristura senditzen duzu gartzelan. Badirudi, gizasemeen sakoneko aldaketa hori, ezina dela; Estatua, Gartzela, ziudadanoetarik bakoitzak bere baitan daramala, daramagula dirudi maiz. Baina, tira, humorea ez dugu galduko horregatik. Humorea, galdu gabe, sortzen ahalegindu beharko gara.

ARREGI ETA TEJERO

ANAIT.- Zu hor barruan zaudenetik hainbat gauza pasatu dira, eta bi nabarmenduko ditut: Jose Arregirena eta Otsailaren 23koa. Ba dakigu Arregirenaren ondotik gosegreba sartu zinetena, baina, nola bizi izan zenuten Otsailaren 23 eta 24a Tejero Parlamentuan zegoela? J.S.- Arregirena gertatuko zena zen, torturak izugarriak ziren, eta bizirik irautea harrigarria zirudien askotan. Heriotzaren ondoren Parlaentoan mintzatu zirenak, hubildu behar lirateke, orduan eta oraindik ere, komisarietako lehiotatik iritetzen diren oinaze ohiuak aditzera. Demokrata omen diren horiek ez dute ezer egiten torturaren aurka, ez orduan ez orain.

Otsailaren 23ko arazo horrek, berriz, alde bi ditu. Guk nola senditu genuen, alde batetik; eta zelango analisi politikoa dagokion, bestetik. Era desberdinez bizi izan genuen; golpean ondo irtenez gero gugana sartuko zirela eta, batzu urduri, beste batzu lasai; ezin genuen deusere egin eta ni behintzat ez nintzen gehiegi arduratu, aukerarik ez duzunean beldurrik ere ez duzu ukan beharrik eta.

Analisi polikoari buruz, zer esango dizut?... Gehienetan ekibokatu egiten naiz, une honetan ez zait axola eta gai aspegarri samarra da. Gainera, luzatzen ari gara.

ANAIT.- Amaitzeko, bada zelan ikusten duzu zure eta euskal preso guztien etorkizuna?

J.S.- Preso bakoitzak egoera berezi bat du, baina guzcion arazoa da funtsezkoena. Nire egoera pertsonalari buruz, denpora baterako kondena izanen dudala uste dut. Baina funtsezkoena amnistiaren arazoa da. Euskal presoak Amnistiak bakarrik aterako gaitu gartzelatik. Baina, Amnistia, Euskal Herriko egoeraren arauera gertatuko da. Gu, funtsean, errehenak gara, hori gartzelan inon baino hobeto ikusten da, eta presoen arazoa —bahituen arazoa— gizarte burruka zabalago baten atal bat besterik ez da.

Nahiz eta betiko topikoetan erori eta planfletarioak garela entzungo dugun, amaitzean ezin izan dugu hitz hau gure orrialdeetatik kanpo atera: **AMNISTIA**, Euskal Herriak ezin duelako bere semerik onenak gartzelan usteltzen utzi.

Gero arte Joseba, eta gure amets hau mamitzen ez den bitartean, jakin ezazu **ANAITASUNA**-ren orrialdeak zabalik dituzula nahi duzunerako.

ITSASO



hil
ez da deus hiltzen
labanean doa eguzkia
ez da hiltzen eguna iragan baino
zimeldu arren liliak
zu gorpu zaren arren
zimeldu arren liliak
ez da hiltzen eguna iragan baino
labanean doa eguzkia
ez da deus hiltzen
hil

PERU



"Spain is different" denok noiz edo noiz entzungo zenuten. Estatu honetan bizi garenontzat, niretzat behintzat, esaera honek ez du esangura argirik, zeren segun eta noekin konparatzen dugun izango baita diferentea. "Mendebaldeko bizimoduaren" arauera bizi garenontzat, Europako Herrian artean ez dago desberdintasun sakonik, salbuespenak salbu, jakina.

Atlantikoa zeharkatzen badugu, irudia aldatzen hasten zaigu. Ipar Ameriketako bizimodua zaherki soilik ezagutzen dut eta berari ere beste esaera ezagun bat dagokio: "American way of life" delakoa hain zuzen ere.

Hego Amerikako Herrietatik Peru deritzona apur bat soilik ezagutzen dut, bertan hile bitan izan baitnintzen. Europa eta Peru arteko diferentziak hegazkina lurreratu bezain laster susmatzen hasten dira, baina heuren benetako dimentsioan neurtzeko Limatik irten arte itxadon behar da.

Hemendik aholkatu dizkizuedan tokiak ez dira, normalean, turista arruntetzat idatzitako liburuetan agertuko. Peruko leku eta bidaia tipikoetaz ezer jakin nahi duenak UNICLAM-ek argitaratutako liburutxoan, alegia, aurki ditzake (Peruko Gia, UNICLAM S.A.V., 63, rue Monsieur-le-Prince, 75006, Paris. Telef. 329.12.36. Gaztelaniaz hitz egin edo

idatz dezakezue Hego Ameriketako jendea baita. Liburuak 45 FF balio du, gehi 10 FF bidaltze-gastuak ordaintzeko; gia frantsesez idatzita dago).

Liman ahalik eta denbora gutxien egon zaitezte, garestia eta zatarra baita. Museo del Oro, Museo Nacional de Antropología y Arqueología eta artisauek egunero egiten duten erakusketa ikustea, eta bertan zerbait erostea, aholkatzzen dizuet. Jateko Restaurante Cordano-k nahiko fama ona du eta Plaza de Armas-en algoan, zentru-zentruan dagoenez ez dago problemarik bera aurkitzeko. Eska itzazue pankekeak postretzat.

Hegoaldera bazoazte eta Cusco-ra joan nahi baduzue har ezazue Huancayo-ra doan trena. Munduko trenik altuena da, 4800 m-tako altuera duten tokietatik pasatzen baita. Tarteko geltokiak La Oroya, meatoki oso inportanteak daude eta Jauja harana, oso polita da. Huancayo-tik Avacucho-ra autobusez 250-en bat Km egiteko 15 ordu autobusean. Honekin dena esanda dago. Ayacucho oso leku altuan dago eta airearen dentsitatea oso txikia denez hegazkinek problemak izaten dituzte aireratzeko. Honela, gauean behar den bezain besteko hotzik ez badu egiten eta beraz, airearen dentsitatea txikiegia bada, egun horretan hegazkinak ez dira aireratzen.

Hurrengo etapa Ayacucho-Abancay-Cusco. Egun eta erdi autobusean. Gringoek, europarrak ere gringoak gara, ez pentsa, autobusaren atzeko jarlekuak ematen dizkietenez eta bideak "primerakoak" izatez aparte, autobusek laburbideak, noizbehinka zelaietatik pasatzen dira, hartzen dituztenez, astinaldi ederra hartuko duzue. Ba daukazute, honela, ilobei zer kontat!

Hartzen duzuen autobusarekin kontuz ibil zaitezte, autobuskonpainia batzu erabat deskontseilagarriak baitira. Morales Moralitos delakoa hartzen baduzue lapurtuak izateko probabilitateak izugarri handitzen dira. Kontuz motxilekin!, zeren bidaia amaitzerakoan motxilaren bat faltatzea gauza arrunta baita, gringoari lapurtzea Peru-ko kirol nazionala baita.

Ayacucho-tik Cusco-ra zuzen-zuzenean joan beharrean, San José delakoa joan zaitezke eta oihanean, selban, sartu.

Cusco-tik Pisac bisita dezakezue. Igandea bada, Pisac inguruko alkateek desfilea egiten dute eta gero Meza quechua-z entzuten dute. Artisautza interesgarria. Inken harrizko hondarrak maitatzen dituenak, Ollantaytambo delako gotorlekua ikus dezake. Bertan, harrian landutako trepanazioak egiteko operazio-mahai bat ikus dezake.

Machu Picchu-ra joan nahi duenak har dezala Cusco-n goizeko bostetan ir-teten duen tren, eta ez turistentzat da-
goen tren berezia. Ezagutuko du pilatuta
joatea zer den! Machu Picchu-ra joateko
biderik politena "inka-ren bidea" egita

Wayna Picchu eta Hilargiaren tenplua
ikusit gabe ez zaitezte handik joan.

Cusco-ra zuzenean itzuli beharrean,
joan zaitezte Quillabamba-ra oihana bisit-
tatzera.

Ibiltzea gustatzen zaionari Ausangate
eta Salcantay inguruetatik trekking bat
egitea bihotzez gomendatzen diogu.

Cusco-tik Titicaca lakuaren ertzean
dagoen Puno-ra joan zaitezte. Taquile
irla ikustera joan zaitezte eta lo egin
ezazue bertako etxeren batetan (10 bat
pzta kobratu dizute). Artisautza oso po-
lita baina ez merkeegia.

Puno-tik Arequipa-ra trenez. Hiri hau
polita eta garbia da. Mendigoizaleei
Chachani sumendira joan daitezela go-
mendatzen diegu, basamortuan eta
5.100 m-tan denda gabe lo egin dezate-
la.


Alturara ondo moldatuta badaude
(aklimatatuta) hurrengo egunean Cha-
chani-ra (6.000m) joan daitezela. Pioleta
eta kranpoiak ia ez dira beharrezkoak, ez
baita ia isotzik zeren basamortuan
gaudela ez baita ahaztu behar. Trekin
gogorrago bat egin nahi duenak, Are-
quipa-tik Chivay-ra eta Cavanaughde-ra
joan dadila eta Colcas ibaiaren harana
ezagut dezala. Bertako kainoiak (arroi-
lak) 2.000 m-tako sakonera du eta kon-
dorrak eta pumak ikusteko aukera izan-
go du eta handik Andagua-ko sumen-
dien haranera joan dadila. Ondo aklima-
tatuta egon behar de 5.000 eta pikuko
lepoan zeharkatu behar baita eta desni-
belak handiak baitira.

Arequipa-tik iparraldera abiatzen ba-
zarete Nazca eta Paracas bisita itzazue.
OVNI-en arazoetaz arduratuta dagoen-
tzat Nazca oso ezaguna da. Paracas-
en itsasaldean guano-irlak eta fokan
erreserka ikus itzazue.

Geró segi Limaraino. Mendikate zuria
ezagutu nahi baduzue, joan zaitezte
Huarez ingurura. Herri honetan mendi-
goizale piloa batzen da. Garesti xamarra
denez hobe Yungay-ra edo joaten baza-
rete. 1970-ean Peru-k jasan zuen lurrika-
ran, lehen herria erabat desagertu zen.
Lurrikara honen ondorioak gaur egun
ondo ikus daitezke, Yungay zaharra ge-
ratu zen moduan laga dutelako eta herri
osoa hilerrri deklaratu zutelako; oraingo
herri berria beste leku batetan eraiki du-
te.


Mendikate zuriaren alboan Huaihuas
mendikatea dago. Ez da aurrekoa bezain
ezaguna baina oso-oso polita da. Berta-
ra joateko Chiquian-etik edo Huanuco-
tik joan zaitezke.

Azkenik oihana bizitatzea biziki go-
mendatzen dizuet. Joan zaitezte Pucal-
pa-ra edo hobe Iquitos-era eta bere in-
guruak ezagut itzazue. Nire ezagun ba-
tzu Peru-ra hilabete bitarako joan ziren
eta hile biak oihanean pasatu zituzten.
Datu hau nahiko adierazgarria da, ez
da?



da. Horretarako trenetik 88 kilometroan
jaitsi behar da, eta hiru bat egunetan
Machu Picchu-ra heltzen da. Lo egiteko
sakua eta janaria eraman behar dira.
Machu Picchu oso ikusgarria da baina

Cusco-tik goi Urubamba-rantz joan
zaitezte eta Alto de Tres Cruces-en lo
egin ezazue, munduan ikus daitezkeen
egunsentirik politena bertatik ikusten
omen da eta.



NORKAPP: GAUERDIKO EGUZKIAREN BILA

Geografia gutxi dakigunoi Norkapp edo Ipar Buru izenak, ia seguru hasieran ez digula ezer esango. Gauerdiko eguzkia aipatzeak norbaitengan harridura pixka bat sorteraziz landa, ezer gutxiago esango digu. Niri behintzat, honelako zerbait gertatu zitzaidan.

Ipar Burua Europako tokirik iparrena dela esatean, arazoa zerbaitxo argitzen hasten zaigu. Mapa batetara jotzen badugu, leku hori Norvegiako irla batetan kokatzen dela eta Zirkulu Polar Artikoa (Z.P.A.) baino dexente gorago dagoelataz ohartuko gara. Zer adierazten digu Zirkulu Polar Artikoak? Z.P.A. lerro imaginario bat da zeinen iparraldean kokatzen diren tokietan gutxienez urtearen egun batetan eguzkia ez baita izkutatzen. Poloetan egunak sei hilabete irauten duela eta gauak beste horrenbeste gauza ezaguna denez, ez dugu hemen ezer gehituko. Azken esaldi bietatik zer ondoriozta daiteke? Zera, zenbat eta iparralderago joan, eguna hainbat eta luzeago izango dela. Ederto, baina orain zuen galdera honen antzekoa izan daiteke. Eta Ipar Buru horrek zein berezitasun du? Ipar Burua Norvegiako irla batetan kokaturik dago eta urtearen hilabete batzutan ez da sekula gaua egiten. Geografia edo Geologia pixkatxo bat jakinez, gaueko hamabietan eguzkia Ipar puntu kardinala zeharkatzen duela dakigu.

Irlatxo honen iparraldea labar nahiko altu batetan (200 bat metro?) amaitzen da. Azken datu honekin ba daukagu irudia osoturik. Imagina dezagun orain eszena: labar horren gainean daude, gaueko hamabiak dira eta beraz, eguzkia Ipar puntu kardinallean dago; bestalde, gu ere Europako Ipar muturrean gaudenez, gure aurrean eta 200 bat metro beherago Ozeano Polar Artikoa zabalitzen da eta eguzkiak itsasoan islada luze-luzea egiten du eta, gainera, ez da gorria ipintzen eta handia egiten, bere itxura guztiz normala delarik. Aholkutz

bat, tenore horretan ez zaitzete Ipar Burua bertara joan, turistaz betetzen baita. Pixkatxo bat ezkererago (200-300 m), beste buru txikiago bat dago, bedarrez estalita. Etzan zaitzete bertan eta bizi ezazue momentu hori bakardade erlatibo horretan, ez erromantizismo gaueko turista zaratariz inguratirik.

Zer egin behar da mutur horretara heltzeko?: 5000 km inguru eta hiru ferry hartu. Bidaia egiteko ideatxo batzu emango dizkizuet.

Euskal Herritik hasita, normalera Parisera joatea izaten da. Bertatik Belgikara edo Luxenburgora joan zaitzete. Joan zaitzete Belgikara eta gero Holandara. Azken Herri hau miresgarria da; bere karalak, urrundik ikusita hurbitetik algaz beteta baitaude, haize errotak, polde-rrak, itsasoari kendutako lurak, oso politak dira. Bide generaletik joan beharrean atera zaitzete eta joan zaitzete herrikkak zeharkatzen dituzten bidexketatik. Proba ezazue Holandako esnea.

Pasa zaitzete Alemaniara eta bertatik Dinamarkarantz abiatzea aholkatzen dizuet. Baltikoan bainatzeko aukera izango duzue eta bere ur gazi-geza probatzeko ere. Copenhagen irla dagoenez Nyborg-etik Korsr-era bidaiaren lehen ferry-a hartu behar duzue. Dinamarkako hiriburuan "Sirenita" edo "ondinatxo" famatua ikus dezakezue (turista tipikoei hori egiten dute) eta Carlsberg edo Tuborg garagardo-fabrikak bisita itzazue, zerbait ikastez landa izugarrisiko garagardo dohainik hartzeko posibilitatea duzuelako. Copenhagen-tik Helsing-era abia zaitzete. Bertan bidaiaren bigarren ferry-a hartzen da eta Suediako Hälsingborg-era eramango zaituzte. Handik Estokolmora. Propagandak esaten duenez Estokolmo da Europako hiriburu bakarra zeinen kaian bainu bat har baitezakezue, kutsatzeko sekulako arriskuan jarri gabe, noski.

Bertatik Uppasalara eta gero kostaldekiko dena gora, zuezenzuzen iparraldera. Suedian bizilagun oso gutxi daude (8 bat milioi) eta Norrland-ean, iparraldean, gizaki-dentsitatea 7 bizilagun/km²-ra ez da iristen. Dena basoak dira; lehen bagoak, geroxeago izeiak eta azkenik urkiak. Tartean lakutzko piloa, Suedian 100.000 laku baina gehiago baitaude. Gelditzeko tokiak gura adina, oholezko mahai eta aulkiekin eta askotan roulotte-ak urakin etab. -arrekin ahoa garbitzeko, eta gainerako opariak bertan lagatzeko.

Suediako azken herria Happaranda izenekoa da eta Finlandiara Tornio delakotik sartzen gara. Handik zuzen iparralderantz eta Rovaniemi delakoa pasatu eta gero Z.P.A.-azeharkatu duzuela adierazten duen monolito bat ikus dezate.



kezue. Laponian gaude eta hemengo zuhaitz bakarrak urki nanoak dira.

Geroxeago Kautokeino-tik Norvegian sartzen gara.

Rovaniemi-tik gora lapoiak, aitona-monak eta ilobak, errenolarruak eta adarrak saltze ikusiko dituzue. Ez dira garestiegiak eta autoan tokirik edo bakarrik badaukazue, errenoadarrak eros ditza-kezue. Nik erreno-larrua erosi nuen bai-na ile piloa galtzen zuenez eta, beraz, logela beti garbitzen ibili behar nuenez, zaramara bota egin behar izan nuen.

Lapoiak ez dutenez, normalean, ingelesa ulertzen eta zuek lapoiera ere ez, salneurria erregateratzerakoan euskaraz egin dezakezue, guk horrela egin genuen, ez baituzue inolaz ere elkar ulertuko.

Kautokeino-tik Alta-ra eta bertatik Russenes eta Lakselvera. Hemendik zehar bideak nahiko txarrak dira. Han hirugarren ferry-a hartu behar duzue. Sekulako auto-hilarak daudenez, orduak itxadon beharko dituzue (guk 5 ordu baino gehiago itxadon behar izan genuen).

Ipar Burua dagoen irlatxoaren hiriburu Honningsvag deritzona da. Irla osoan ez dago zuhaitz bat ere ez eta Uztailean nahiz eta itsas alboan egon elur zati batzu ikusiko dituzue. Gu bertan izan ginen eguna, eguzkitsua izan

zen eta temperatura 12°C takoa izan zen. Goizean laino pixka batekin, 8°C-takoa zen.

Ipar Bururaino beste 30 km inguru daude, eta hara pasatzeko 10 Kr (130 pzta inguru) ordaindu behar da. Itzultzeko, berriz auto-hilarara, baina beti egunez denez ez da luzeegia egiten, herriatik bueltatxo bat eman daitekeelako, libururen bat irakur dezakezuelako, etab.

Berriz ere kontinentean gaude. Hegoalderuntz, berriz Suediatik itzul zaitezke edo Norvegiatik. Azken kasu honetan leku oso politak ikusteko aukera izango duzue baina Norvegia ez da Suedia bezain zelaitua eta mendi-bortuak igon beharko dituzue. Bestaldei fiordoren bat zeharkatzeko beste ferry bat hartu behar dela entzunda dut.

Dinamarkara berriz itzultzeko, kontra-ko ferry-a har dezakezue: Hålsingborg-Helsingor. Handik berriz Copenhague-ra eta nahi izanez gero, Korsor-era joan beharrea Rodby Havn-era joan zaitezke eta bertan Puttgarden-era doan ferry-a hartuz, zuzen-zuzen Alemanian zaudete.

Hemendik aurrera Euskal Herrira bueltatzeko bidea seguru eta bidaia zenbat luzatu nahi duzuen, baina Puttgarden-etik Lübeck-era joan zaitezte benetan pena merezi baitu.



BESTE EKINTZA BATZU

GAVARNIE

Abuztuaren 2-9: Pirineoetara ibilaldi gertatua. Bertan alpinismo ikastaldia egiteko aukera Martin Zabaleta eta Xabier Erroekin. Gavarnie-ko enparantzan bilera arratsaldeko ordu 2etan.

ESPINGO

Abuztuaren 9an Bagnères de Luchon-go ibilbidean arratsaldeko ordu bietan.

POSETS

Abuztuaren 16-23: Benasque-ko enparantzan arratsaldeko ordu 2etan.

ANETO

Abuztuaren 23-30: Benasque-ko enparantzan 23an eta arratsaldeko ordu bietan. Lau ibilaldiotarako zehaztasunak ondorengo helbideetan: Xabier Erro 64.39.10 telefonoa (hondarrabian) eta Martin Zabaleta Her-naiko 55.03.94 telefono honetan.

ESKANDINAVIA

Abuztuaren 1-22: prezioa 25.000 pta. Fiordoak, mendiak eta bertoko hiririk garrantzitsuenak ikusteko aukera.

SUIZAKO ALPEAK


Abuztuaren 2-15: zortzi mila eta bostehun pezeta.

KENIA-TANZANIA

Abuztuaren 2-23: 59.000 pta. Nairobi, Kenia, Kilimanjaro, Amboseli eta Mombasa ikusteko aukera. Azken hiru ibiladion zehaztasuna ondorengo telefono honetan: 4164596 (Algorta)



VERANEA EN EUZKADI



Ba omen datoz. Oporrak hortxe ditugu. Pentsatzen hasi behar.

Urterokoaren gisara, aurten ere zerbait egin nahi dugu, bai. Baina zer hori berezia izan dadila. Makina ideia, amets, betetzeko ditugu, seguru. Ahal izan behar hala ere, batzutan ez baita nahiko Seycheilles-erara joan nahi izatea.

Ez ardura, horregatik. Hurbilago ere ba da zer eginik. Euskal Herrian bertan ba da zer eginik. Nola ez ba ehundaka herri, mendi, milaka etxe, eliza zahar, milioika bizilagun dituen neurrian!

Oporrak Euskal Herrian. Horretaz proposatu didate idaztea, eta horretara noá. Nagusian ideia oso polita botako dizuet, neronek egiteko dudana. Zer hobe norberaren proiektua baino? Egiteko, baina ondo aztertua jadanik. Informazioa ugari botako dizuet: hutsunera batzu ere. Berdin da. Ideia hau betetzen hor nonbait topatzen bagara, elkarrekin argituko ditugu.

Baldintza bakar bat: ibiltzeko gogo eta ilusioa edukitzea. Ba dakit, hala ere, edozeinentzat ez duela balio. Azkenean beste zenbait ideia emango dizkizuet laburrean. Eginga dakoak eta egitekoak.

BILBO-IRUÑEA-DONOSTIA OINEZ

Ibilaldi ederra eta opor luze edo labur bakoitza norberarenaz konpon dadilabatzutan egiteko modukoa.

Nagusian, Bilbo, Gorbea, Aizkorri, Altsasu, Urbasa, Iruñea, eta atzera berriz, Irurtzun, Lekunberri, Leitza, Donostia litzateke ibilaldia.

Bost egunetan egin daiteke. Horretarako hala ere, oso indartsu eta kementsu egon behar da. Etapa nagusiak, Bilbo, Legutio, Altsasu, Iruñea, Leitza eta Donostia lirateke.

Luzeago eginez gero, ibilaldi aberatsagoa egin daiteke, eta lasaiagoa ere.

Luzeago eginez gero, ibilaldi aberatsagoa egin daiteke, eta lasaiagoa ere.

Bidea aztertu aurretik zerbait esan beharra. Udan eginez gero, zuzenena nire ustez, pisurik gabe egitea.

2. etapa

Arlabanera joan, bai kaminotik -km gutxi dira, bai Arlabaneko mendietan zehar Albertiara igota. Hemen, eta edonon, kontuz pinuekin. Hobe da bide ez hain zuzena eginda ere, pinu-basoetan bide segururik ez badago ez sartzea; bestela sasiz beteta bukatzea, segurua. Bertatik Aizkorriraino eramango gaituen mendikatea hartu, Usokoaitzara igota, eta aurrera jo. Oso mendikate berezia urratuko dugu. Txirrista baten antzeko mendikate honek Lazkaolatza eta Oltzara eramango gaitu. Horretarako Elgea, Artia eta Urkillako mendiak ibiliko ditugu



— bide-zati hau Gasteizetik Iruñerako kaminotik oso ondo ikus daiteke. Oltzatik Lizarrustira joan, eta Aratzen aurrera Altsasuraino irten, ezkerretara jota, Aratetik behera doan mendikatea eskuinetara utzita. —Olano mendia eta abar—, Arbarrainera joanda, eta bertatik seinaleak segituta: izugarrizko pagadi eder batetan zehar Altsasura itzalpetan helduko gara. Bigarren etapa bukatuta dago (10-12 ordu).

Lehen bezalaxe, 2. aukera zabalagoa emango dut.

Jaitsi ezik, Barazarrera jaitsi (2. gaua). Bertatik Urkiolara jo Dimako atean zehar. Horretarako Altungana igon (ez dago galtzerik. Bide erraza da. Mendiak gainean sudorre bat dauka), Dimako atera jaitsi, eta bertatik Saibigain igota Urkiolaraino joan. Hemendik Anbotora igon, eta harantza segituz Besaidera jaitsi, bertatik Udalaizt igotzeko, eta Arrasatera jaitsi. Hemendik Aretxabaletara joan eta Kurutzeberrira igon (hau denau nahiko erraz egiten da, galdu gabe). Bertatik Elgeako mendietan zehar Aumategigaña ingurura irtenda lehengo bide berberera jo dugu, hau da, Elgeako mendikatean zehar Aizkorrirantz gindaramatzana. Noski, hemen gutxinez 3 etapa emango ditugu. Adibidez, lehenean Besaiderraino eta Elorriara lotara jaitsi. Bigarrean Degurixa inguruan egin liteke —Aranguren mendiaren azpiko leal ederra—, eta hurrengo Altsasun. Era berean, San Adrianen (Lizarrustin) egin liteke, eta horrela aukera eman beste egun batez, Aizkorri eta inguruak.

Beste aukera bat da Plazaolako trenbidea segitzea, Leizaranen behera Andoainera irtenik (oso bide polita). Orain bai, problema gero letorke. Andoainetik Donostira joateko (agian, Buruntzatik Lasartera, eta handik Donostira).

Bigarren sisteman, azken hau bitan egin genezake, lotara Aranora jaitsita (2. gaua), eta gero Donostira atzekaldek (Landarbagoa eta abarretatik) helduta.

Besterik gabe, eguraldi ona dela, eta ibiltzera. Lagungarri gerta dakizkizuekeen zenbait liburu eta mapa:

- Bide guztiko katastralak.
- Javier Malo-k egiten dituen mapak.
- Euskal Herriko edozein mapa, aurrerki kutxek hainbestetan egindakoen gisakoa. Konkretuki, "Banco de la Vasconia" bankuak garaiera-marrak dituen bat du argitaraturik.
- Mendi elkargoak argitaratutako mapak. Niri 1968.ean argitaratutakoak oso baliagarri gertatu zaizkit.
- "Rutas montaÑeras de Guipuzcoa" liburua.



- Bilboko Museo Historikoan dagoen maketa ikustera joatea.

- "Mapa Mundi" bat, bide okerra hartuta, Saigon-en a5ertuz gero, itzultzen asmatu ahal izan dezazuen.

2. AUKERA: "LEIRE" INGURUA

Alpersamarragoek ere ba daukate zer egina. Hona hemen prepesamen bat kotxez dabiltzementzat: Leireko mendikatearen inguruak ezagutzen. Dendan joanez gero, Yesako kanpinean ipin daiteke. Hala ere, nik nahiago nuke Arbaiuneko arroilaren inguruan ipintzea. Beste aukera bat: hango herri txiki eta erdi hustuetara jo, lekua lortzen saiatuz Bigotzari Aizpurgi. Lehenengoak abantail bat dauka: Nafarroko udako gau ederretan lo dendatik kanpora egin daitekeela, eta xaguzaharrak linternaren argiaz segitzen jolastu. Gau erdian argiak ikusten hasten bazarete, egon lasai, ez zarete ametsetan ari: ipurtargiak ugari daude.

Ikusteko moduko lekuak: Leireko mendikatea (Arangoiti, mendi garaieneraino kotxez igon daiteke). Bigotzari (Bigüezal) herria, Aizpurgi, edota Nabaskoitze, inguruko handiena (en el país de los ciegos...). Era berean, Arbaiuneko arroila: bertan hegazti asko dago: saizuri ugari. Arranoak ere, antza. Illoneko mendikatea (goian ermita bat dago, San Kiriko edo). Ezkerretara jota, Irunberriko herria eta arroila, eta bai aitzinako herri erromatarra ere (ikusteko gauza handiegirik ez badu ere).

Leireko mendikatearen bestaldean, Leireko monasterioa, Yesako urtegia, beste zenbait herri (Zangotza adibidez), eta Xabierreko gaztelua.

Gorago, Ripodas-etik joanda, Ugarroiko arroila. noski, Km gehiago egiteko prest bagaude, aukerak zabaldu egiten dira. Ondo pasa!

BESTE ZENBAIT AUKERA

Beste mila aukera egon daitezke. Adibidez, iparraldea bizikletaz urratu —oso egokia—. Zerbait aipatu nahi nuen hala ere. Bizkaiko Enkarerrietan ba dela oso opor politak egiteko modurik (bai, nafartar irakurle?), bai mendi eta naturaren aldetik, bai herri eta giza-ekintzen aldetik ibiltzeko.

3. etapa.

Altsasutik Urbasara igon, Urdiainetik gora. Urbanan zehar, galpenik gabe, Gofñiraino irten, eta bertatik behera Iruñeraino. Azken zati hau kaminoz egin daiteke —3 orduatik gora—. Hoberik ote dagoen, nola ez! Inguru hori ez dut inoiz ibili.

Era berean, ibilaldia zabal daiteke. Altsasura jaitsi baino, Olazagutiara jaitsi. Bertatik Urbasara igon. Bide berbera egin, baina mendiak ezkerretara egiten duen ferra segiturik Beriaineka joan, lotara (7.gaua). Hurrengo egunean behera jo, Satrustegiko mendietan zehar Erroz aldera irtenik. Bertatik, lehen bezala, Iruñera (8. gaua).

4. etapa.

Iruñetik, Plazaolako trenbide zaharra segituta, Leizaraino joan, Irurtzun eta Lekunberrin aurrera. Egia esan, zati hau ez dakit nola dagoen. Mapa batetan trenbide osoa dut ikusita, eta hala dagoela entzuna ere. Begi bistan dagoena zera da, berau kaminoaren bazterretik egitea ez duela merezi. Beti ere, posible da Urbasa-Andiatik jaistean, Iruñera joan gabe, Irurtzunera zuzenean jaistea, eta handik Leizara joatea (etapa bat gutxiago gertatuz). Lekunberrin gutxinez, har daiteke trenbide zaharraren bidea.

Dena den, pena litzateke Iruñeraino ez heltzea.

2. sisteman, Irurtzunetik Madozera igon gintezke (2. gaua). Bertatik, Atako bailaran zehar San Migeleraino joan. Handik Igaratzara (10. gaua). Denbora edukiz gero, hango mendiak ibili (edozein gauza da polita Aralarren). Hurrengo egunean, Malloetan zehar Arribera jaitsi, eta handik Leizara Santa Barbaran zehar joan (11. gaua).

5. etapa

Leizatik Urepelera igon, eta bertatik Mandoegira, eta mendikatea segituta, Adarrarantz jo, Hernanin bukatzeko. Hernanitik Donostira, eta bidaiak bukatu zaigu dena. Hau da, sakua, jertsei lodiren bat, uretako kapa bi zapatilla pare, barne-erropa aldatzeko moduan, eta nahiko. Jateko, gauza hotzak —laranjak, gazta eta ogia ezitia...— Besterik ez. Non lo egin beti aurkitzen da.

Berau derrigorrezkoa da 5 egunetan egitekotan. Lasaiago egitekotan, denda arin bat ere eraman liteke, eta bai butanilloa eta abar ere.

Goazen ba, bidea aztertzeraz.

Lenengo etapa

Bilbotik irtenda, Gorbearantz joko dugu. Bidea, aski ezaguna: Pagasarrira igota, kamarakan zehar, Laudiora heldu —Santa Luziako bidea—. Handik Gorbearantz jotzeko, Untzuetara igon —juxtu aurrez-aurre izan duguna, Laudion beste aldera dagoena—, eta beraren mendikatea hartuta Itxina asperraino nahitaez goaz. Pagomakurreraino joan —pista dago—, Gorbearako bidea hartuta Arraba eta abar zeharkatu, Gorbeara igon gabe, Barazarreko bidean behera abiatu, beraun ezkerretara utzika —Aginalde eta Luisen aterpeak, eta abar dauden zelai eder horretan— Oketara joz. Zadorra Ramirio nazionalak duen zubitik zeharkatuta heldurik (hau da, mendikatza hego-ekialderantz segitza besterik ez da, normalean egiten den bezala, iparrerantz jaitsiz berau utzi gabe). Lehenengo etapa egina dugu (10 bat ordu).

Ohartxo bat. Alaprimera decambio, Pagasarrin bertan, sukokoren bat topatuz gero —ar zein eme—, utzi hau denan beste baterako, eta suari egurra. Bestela, aurrera jo.

Denbora gehiago edukiz gero, lehen etapa hau bi egunetan egin dezakegu. Hasteko Ganekogorta igon, Santa Luziarako bertatik doan bidea harturik. Lo Ibarren edo egin liteke. Hurrengo egunean, Oderiaga igon, eta atzekaldetik gurutzeraino joan.

SIZILIA

Mediterraneo itsas-aldean dago ir-
la hau. Grekoak, Italiako hego al-
dean egindako kolonia-herrietarik
bat. Kolonia-herri hauek "Magna
Grezia" izenez ezagutzen ziren. Ge-
roago, Normandar, Bizanziar, Ara-
biar eta Aragoarrek menperatua
izan zen. Gaurregun, irlan, herri guz-
ti hauen azterrenak aurkitzen ditu-
gu.

Bidaia

Hobee egazkinez egitea. **Bartzelona-
Erroma-Palermo**, eta azken honetan
auto bat alogeratu irlatik ibiltzeko.

1. bisita:

Palermo hiria, monumentala eta his-
toriaduna. Ikus: Katedrala, kapilla Pala-

tina bizanziarren mosaikoez josia, nor-
mandarrek egindako Martorana eta Ar-
keologi-Museoa. **Pellegrino** mendiara
igon. Ikuskizun ederra izango duzu ain-
tzinean: **Palermo** hiria eta bete itsas-
golkoa. Hiritik kilometro batzutura **Mon-
reale**, hemen ere katedrala, normanda-
rrek egina. Barnean, sekulako koloreak
eta dizdirak, eta ormak bizanziarren mo-
saikoz estaliak. Autoan irlan zehar ibili.

2. bisita

Segesta. Itsasaldetik barrurantz, lu-
rralde lehor batetan. Tenplo eta teatro
ikusgarriak. Gauza bakar biak: haien
motako besterik ez da gelditzen. Tenplo
dorikoa, harrizkoa, landugabeko fuste-
duna (zutabearen erdiko zatia). Inguru
lehorrak, tenploaren edertasuna handitu

BANCO DE BILBAO
nire soldatak
lan egiten du.
Bitartean ni atsedenean.



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak
lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu,
alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO
BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten
bidez eskuratu nahi duzula.


Honela, zure soldata egunero lanean arituko
da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik
babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero,
lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak,
eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde
zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen
ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua
behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24
Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost
minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak
zure soldatetik.

Eskura  delakotik
zure soldata

BANCO DE BILBAO

eta ugaritu baino ez da egiten.

3. bisita

Segesla-tik Selinunte-ra, itsasalde-tik, bide luzeagoa izan arren. Hondartzak nonnahi agertzen dira, eta bero-gaz atseginak izaten dira. **Selinunte-n**, Akropolisa eta tenploak. Dorikoak, zutabeen fuste landuaz, goit k-beherako hildoakaz. Kristo aurreko VI eta V mendeetakoak.

4. bisita

Selinunte-tik Agrijento-ra, Sciacca herri arrantzaletik pasatuz. **Agrijento-Akragas**, grekoen kolonia, aberatsena eta indartsuena. Azterren ugari ageri da. Jupiteren tenploa, Hercules-en tenploa, Konkordiaren tenploa eta Museoa ikusi beharrezkoak dira.


5. bisita

Gela, eta hemendik **Piazza Armerina**. Hemen, Villa du Casale-n, erromatarren mosaikoak; hainbat gai desberdin daude mosaikoz eginak: eliza, arrantza, guda, amodiozko eta gimnasiazko eszenak ere bai.

6. bisita

Ragusa-tik Sirakusa-ra.

Sirakusa-n tenploak: Apolo eta Diana-renak, dorikoak. Erdi-Aroko eta Errenaisantzako etxe batzu ere ba daude:



Maniace gaztelua. Katedrala: kanpo-aldea XVIII mendekoa, baina barrua Ate-ne jainkoxaren tenplo berriztua. Hemengo Grekoen teatroa, ondoen dagoenatarikoa da, hurbil, Erromatarren Anfiteatroa: kontutan hartzekoa da, mendiaren aldatz-beheraz baliatuz egina dela.

7. bisita

Catania, Palermo-ren atzetik irilako bigarren hiri-burua. Industri eta merkatal herria. **Catania-tik Etna-ra** igo daiteke, irlaren toki goitiena, 3.296 m. Sumendi honen, noiz behinka ahokada ederrak jaurtikitzen ditu. Aldamenean dauden herritxoen nekazaritza aberatsa da: jakina denez, sumendia jario duen **laba** hori ezin hobea da laborantzarako. Iparralderantz, 24 km. tara **Sapienza** izeneko refugio bat dago; telesferiko bitartez eta azkenez jeep bat hartuz, sumendira hurbildu daiteke, haren orroek entzunez, argia eta laba urtua ikusiz.

8. bisita

Taormina uda-lekua, turisten begikoa. Teatro greko-erromatar bat dauka, bertatik itsasoa eta **Etna** ikusten direlarik. **Taorminatik Messinara** kostatik joatea da hobeena.

9. bisita

Cefalu arrantza-lekua, nortasun handikoa. Katedrala eta mosaikoak.

10. ikusketa

Cefalu-tik Solunte-ra eta **Palermo-ra**

Zine-kontutan arduratuak ba dute zer ikusi. **Catania-tik Sirakusa-ra** bidean, **Acci-Trezza** herritxoa dago. Herri honetan, Luchino Visconti-k "Terra-Trema" egin zuen, herritarrak bertako jaun-txoengandik jasan izan zuten bortxakeria aipatuz. Hiru zatitan banatua izan zen: arrantza, laborantza eta meatza. Lehengo partea bakarrik egin zen, akto-reak herritarrak izanik; beste biak zentsurak debekatuak izan ziren. Neorealismoren moeta bat. Geroago, Viscontik "Gatopardo" ere Sizilian egin zuen.

Taormina- zine-topaketak izaten dira.

JAN-EDANA

Bidaia on bat egiteko, zer esanik ez, jan eta edan ondo egin behar denik. Baina ez izan beldur, ba dago zer jan (okelak, pizzak, gaztaiak...) eta zer edan (ardau gogoak, limoi urrezko zumo ederrak...)

Jesús Mari Txurruka

Josu Iztueta

Iñaki Lasa

Iñaki Antigüedad
Idazkuntza.

Angela Merino

Dossier antzeko hau lagungarri izan daitekeela koan burutu dugu. Asko ez dago, baina.....

Informazio gehiago beharko genuke hurrengo urteetan osoago eman ahal izateko.

Zuek oraingo operetan bidaiaren bat egiten baduzue, kontatu diezaguzue zelan suertatu zaizoen. Falé?

Euskara jalgi hodi mundura !!

FEDERALISTAK

Lehen bagenituen erregionalistak, foruzaleak, autonomistak, federalistak eta independentistak, eta orain ere bai. Hontan ez dago beraz berrikuntza handirik.

Gauza hauek hain zaharrak izanik ere, badirudi orain batenbatzuek deskubritu dituztela, baratxuri sopa "berria" balitz bezala; eta harrিতuta eta txundituta esaten dizute: atxeman dugu gure herriarentzako soluzioa; Federalismoa.

Horretarako ez da sozialista izan behar, ez. Batez ere hobe da ez izatea, zeren federakuntza burges indarren soluziobidea izan da. Pi y Margall-ek hori nahi zuen, Espainiako Estatu Sakratua atxikitzeko, federazioa sortu, Una, Grande, Libre bizi zedin. Eta hau ez da bakarra izan proposamen hau egiten.

Lehenago Hanek alde batetik eta gero Tsarrek bestetik egin zituzten beren inperioak harmen indarrez, eta Errege Katolikoak ere bai. Hauen ondorenak diren gaurko Estatu hauek ordea, badirudi ez direla izan zirenak, harmen indarrez "baturak" alegia; ez direla injustizi latz baten umeak, ez direla nazio asko-dunak; eta ez direla beuren nortasunera itzuli behar.

Gertakari burutu edo "hechos consumados"ko politika zein gozoa den! ez da hala?

Gorago nion, federakuntza burgesiarene soluziobidea izan dela, eta honi buruz zerbait gogorazi beharko dugu. Lenin, tsarren inperioa gorde nahiz, eta soluziobide on bat ikusten ez zuela eta, azken finean, federakuntza era bat onartzerara joan zen, nahiz teorikoki ez onar. Joera honek izan zituen bere tirabirak, zenbateraino libartatea utzi behar zitzaizkien nazioei, nolako loturak izan behar zituzten beuren artean, nolako gidaritzak ukan behar zuen nazio handienak, Eurrusiak, eta abar. Eta bestalde, Stalin eta abarrekin izandako gora-beherak honi buruz.

Baina gaurko errebizio zaleak, eta atzo marsista-leninista izandakoek ahazten dutena da, Leninentzako federakuntza, honen barruko libertatea "ematea", "dar mayor libertad (autonomía) para mejor unir" zela. Hau garbi ageri da bai teorian eta bai praxian Lenien eta Stalinen idazki eta ekintzetan.

"Importa que no demos pábulo a los "independientes", que no destruyamos su independencia, sino que creemos un piso más, una federación de repúblicas con derechos iguales". (1)

Hemen eta beti gauza bat garbi dago: Estatu Sakratuaren osotasuna gorde beharra, nahi eta nahiez, nola edo hala.

Batzuei ez zaie gaizki etorriko Leninen "Estatua eta Iraultza" berriro irakurtzea, Estatua zer den eta nola tratatu behar den ikasteko.



Denok dakigu S.B.-en, Txinan, Yugoslavian eta abarren nazio prolema konpontzeko dagoela, egin diren federakuntzak ez dituela nazio txikien eta ez hain txikien arazoak konpondu. Horrelako kasetan egin dena, autonomi kulturala, norbere hizkuntza erabiltzeko deretxoa onartzea besterik ez da izan; eta bide batez nazio handienaren, gehiengodunaren hizkuntza ikasi beharra eta erabili beharra nahi eta nahiez. Ekonomia, politika, hau da funtsezko gauzak zentralizatuak daude, beste nazioek ahalmenik gabe daudelarik, subiranotasunik gabe.

"En ce qui concerne les tendances centrifuges des républiques et des régions envers la Fédération, la clique renégate de Tito n'a pas mené une politique nationale marxiste-léniniste. Au contraire, les rapports entre les nationalités sont demeurés ceux qu'ils étaient à l'époque des kral, et le génocide a continué d'être pratiqué à l'encontre de certaines nationalités. Cette politique a eu pour effet d'exciter la haine et les querelles entre les nations et les nationalités de Yougoslavie: L'"union" et la "fraternité" des peuples, dont on parle beaucoup en Yougoslavie, n'ont jamais reposé sur les justes fondements de l'égalité économique, politique, sociale et culturelle des nations et des nationalités: "(2)

Ni halere ez nago ados honekin pondibatetan, zeren nerekin Lenin nazioekin soluziobidea ez da zuzena. Ni, besterik asko bezala, ez nago ados Leninek nazio arazoan proposatzen duen bidearekin nahiz halere marsista-leninista izate jarraitu.

Nazio problema beraz nola konpontzen da?

Federalistak abertzaleak ote dira?

Dolores Ibarruri ere federalista da abertzalea ote da? Nik uste ezetz.

Noiztik federalistak, espainol federalistak, Espainiako Estatu oinarritzat hartzen dutenak abertzaleak dira?

Edo orain basko-espainolak sortzeren ote goaz?

"Por esta razón los comunistas han luchado en todo momento en defensa de los intereses nacionales, viéndolos estrechamente ligados a la causa de la revolución y del socialismo.

El que los eurocomunistas nieguen la existencia en sus países de un problema nacional, concretamente la necesidad de luchar contra la dominación y el diktat de los teamericanos (etc.) y de consolidar la independencia y la soberanía nacionales, es otra prueba de su degeneración política ideológica, de su traición a la causa de la revolución"(3).

EIA-koek halere federakuntzaren aldeko ahaz... Espainiako S.B. bat proposatzen ote datoz...?

Abertzaleak zirenak ez ote diragehiago?

Non da haien marsismo-leninismoa haien iraultzailetasuna?

Gaur egun errebizio zaleak bilakatu dira, ez dute proletargoaren diktadura behar, ez dute Lenin behar; antileninistak ala antimarsistak bilakatu dira?

EIA-koek orain EE bihurtuko dira eta geroxeago EPC-rekin batuko. Hori lortzeren galtzak beheratzen ari ote dira?

Euskadiren askatasuna, Euskadin sozialismoa eraikitzen posible ote da burruka harmaturik gabe?

Partidua ere zerbait esan dezakegu baina beste aldi baterako utziko dugu.

1) Obras Escogidas - Lenin - Tomo III pag. 732.

2) L'"autogestión" Yougoslave teorikoki eta praktikoki kapitalistak" Enver Hoxha - pag. 57/8.

(3) "Eurocomunismo es anticomunismo" - Enver Hoxha - pag. 181.

Halere Mao-ri buruzko punduan eziz egon naiteke ados honekin.

Lolo. El Perillas sasizena. Egia esan guztiz asmatua daiteke. Zergatik ez?. Zertarako eman egiazko edo gezurrezkoa. Nekrofilia gehitzeko?

El Lolo: beste bizitza bat.

Bilboko guztiek ezagutzen omen dute. Beno, guttienez rolloan daudenak. Zein rollo?. Nork jakin!. Rolloa, erdi marginazio, erdi alfertasuna, erdi zapalkuntza, erdi ez dakit zeren eta Manolorekin txalinari eragin arren zail dut oraindik zeri jotzen dioen jakitea. Benetan. Egia eta gehikeriaren arrakal hutsetatik zelako ziriak zanpatzen dizkizu!. Den dena aldrebes ipintzeko moduan. Fuerza Nueva, Ezkerra, Copel. Denekin egin dezake lana, denekin eta konkretuki inorekin ez. Lolo-k, Pepe-k, El pollo-k edo nahiago duzuna saltsa guztietan sartzeko gauza da. Guztietan batetan salbu: Lanean. Hortaz ba du kontzientzia eta gainera franko. Ez du lanik egingo. Horri ez dio bere buruak eman, ezta ez zerua eroriko balitz ere. Burua eman ahal beste batek pegatuta?. Nahiago du gauzaren bat erakutsi.

Ebastea nahiago. "Zumbar un registro", dioen moduan. Jakina, ez lioke lagunari joko, rolloko lagunari.

Beraz eta dirudienez gure Manolok morala ba du eta morala duten guztien gisa bekatorea ere ba da. Gu bezala.

Loloren tentazioak itzelak ohi dira, neskak eta marikoiak bortxatzea esaterako. Baina lagunak ez dute ametitzen halakorik. Lagunak ordea sala daitezke, klaro; tentazio itzela lagunak salatzea. Boterearen sentzazioa atzematen omen da. Lagunak ez dute salatzea ontzat hartzen; gaizki kontsideraturik dagoenez laguneei traizioa egitea da, obsesio bat. Danok bekatore gara eta pitin pitian ez bada ere noizbehinka bekatutan erortzea osagarritzat hartu beharra dago. Zein bekatu dira? "Zeintzu izango dira joder?. Besteak. Besteak, besteak koñol"... "Baina besterik al ze-

goen? Ez al duzu esan beste bekatuak guk payok egiten ditugula?"... Eta Lolo mutu geratuko zaizu. Ez diozu txintik aterako. Hasi egingo zaizu keinuka, basoa ardoz betetzen gehiago edateko gomen-dioaz ea mozkortzen zaren eta zure beste munduko kontuak ahazten zaizkizun. Gero, derrepente, emazteari buruz itaunduko dizu arrazpiak. Ea zelan den, ondo ote dagoen, non bizi den. Terrorismoaren prozedura guztia topatuko duzu bere hitz jarioan.

Moral hestu hestua daukagu guk payok. Beti ideien alde asasinatu eta ohoztu egiten kristau semeok. Zerga biltzaileek Estatua indartzeko, terroristek Estatua deskojonatzeko, gobernukoek España handitzeko-batzeko, ETAkoek azkenek España bere triskatzeko eta Euskadi finkatzeko. En fin. Loloren

teoriak. Ia ia denok berdintsu. 21urte duen arren bost aldiz egon da jadanik preso, Talegoan.

Beti kondena txikiak, hilabete eskasak, gehien gehienik bost hilabete batera. Ateratzen denean, ahal duena altxatzen du. Kotxeetatik, etxeetatik eta beste nonbaitetik baina ez du esaten, ez baitu osorik kondatzen. Zuk aditu nahi duzuna, zuri aditzen gustatzen zaizuna bakarrik kondatzen dizu. Mozkor mozkor eraginda egon behar da bestelakorik egin dezán. Orduan ez du graziarik, oso osorik egoten da. Lolo artista bat da errealtatea nahi duen eran azaltzeko gauza denean. Aldrebeskeriaren maisu bilakatzen zaigu.

Bilbo Manoleria da. Manoloak



auzune guztietan daude. San Inazio, Otxarkoagan, Santutxun, Errekalden, Iturribiden. Nire Lolo horko batetan pausatzen da, poli-ziatik ez oso urrun, ia ondotoxoan. Lolori ez dio horrek buruhauste handirik ekartzen. Ez ditu maite egia esan, itzalak ere min ematen omen dio baina perpausa perifrastikoetan aditua denez sinesgaitza bihurtu zait.

Manoloren ustez kazetariak ondo bizi gara. Ideien maisuak politikariek jendea makilatzen dugunak beste rollo baten kinkiak, baskorroak, agur-benhur eta abarrekoak. Dena den baskoroen asuntuak ez dira Lolorenak. Beraren aurrean euskaraz eginez gero, **"txirripi zunbalaba ertzeaguritxi"** —a joko dizu aurpegira ondo egin duen galdetuz.

Lolorekin ondo konpontzen naiz, errondak berak pagatzen ditu. Ez nau uzten pagatzen. Dirua erraz topatzen da. Ez dago problemarik lortzeko. **"Zuk eta biok kriston atrakua egin genezake"**... diost. Bakeroen atzeko patrikatik laban luze bat atera zait; zioena egiaztatze-ko edo. Beste manoloak etorri dira bat batean, taberna laban luzez batetuz.

Ez da ezer gertatu. Norberak berea erakutsi nahi dit. Zorroztasunari buruz eztabaida interesgarria muntatu da taberna barruan. Hamazort-

taz arduratuta.

Mozkortu egin da Manolo. Ni ere bai. Sentitu egiten dut dioena egia daitekeela. **"Lan doblea eramaten dute payo horiek. Alde batetik zuen bilkuretan txulo agertzen dira baina gero beste gauza dira. Seguraski horiek sartzen dute droga"**.

Momentu batez G.A.A.ko jendexka baino inteligenteago izango ote den gure Manolo pentsatzen egon naiz.

Azken egunotan Manolok ezeri jotzen dioela dio. Registorik gabe gelditu dela, ikara itzela hartu omen baitzuen asuntu zikin batetik bajatzen zelarik. Bidea eragiteko laban kolpez aritu omen zen. Beraren esanetara makurtuta jo egin omen zuen pisuren batetan Bilbo partetik, Santutxun nonbait baina auzokoek konturatu eta joan omen zitzaizkion harrapatu guraz. Alde egin ahal zuen. Santutxuko etxeetan ez ohi dago gauza handirik. Talegorik gutti. Baina akituenean, langileen etxeetan dena errazago ez baitago txakurrik eta atezainik. Gero eta pobregero gero eta errazago. Honek ez du kezkatzen Lolo, bera baita pobreena. Halaxe dio. Zertan lan eginen luke? Ez du bere bizitza osoan lanik egin eta. Lantegi batetara behin joan zen lan eske, beno lan lan eske gehiegi litzateke. Eskatu egin zion entxufea, euskarria kapatazari baina

Horregatik frustraturik egoten denean kotxeak dibertsiorako lapurtzen ditu. Kriston rallyak egiten omen ditu Bilboko inguruetan, hiru buruan edonondik utziz. Hori bai, batzuk konpletamente deskojonata. Halaxe dio. Segun non daukan burua jarrita. Lehengo egunean zamarra beltz baten truke, lapurtutako automobil bat luzatu zion taldeko bati.

Ni eta Loloren artean dagoen ezberdintasun bakarra zera dela diost: Bera edozein gauza egiteko prest dagoela. Ni ez.

Manolok beraz edozein gauza egin dezake. Lehengo eguneko esaterako. Bilbo Zaharreko ikastolaren aldeko tabernan eskuin puntakoak sartu zirenean. Lolo hor ibili zen ere bai. Taberna guztia txikitu zuten. Baina eskuin puntakoak izan ziren. Lolo ez. Lolo taberna defendatzen egon omen zen baina gero 60 bizardun etorri omen ziren eta hanka egin behar. Ez du ententitzen askorik politikaz, jakina. Ez da bere registroa. Beno bada, etorri egin zirela 60 tipo bizardun horiek, morroiak baskorroak ganera. Kanoi moztutakoren bat edukiz gero hantxe bertan desarratuko zukeen baten bat baina ez zeukan eta hanka egin behar. Dena den puntakoekin ez zegoen. Hortaz zin egin dit. Nik ere zin egiten dut horrela kondatu zidala.

zi urtetako mutil batek txokolatea saltzen du. Mila duro eta nirea izango dela dio. Manolok alde egiteko diotso. Berarena den erreportaiari ez da inor gehiago sartuko. Txokolate ustela dela ahozkatzen dit, ziztu eta tabakoez egindako nahastura. Ez du merezi.

Kokaina askoz grabeago da eta arrisku handiak dakartza. Trafikatzaileen fama kiukiei leporatzen zaie, egiazko trafikatzaleak ez dira hor horretan arkitzen. Egiazkoak bilatzeko, ahaleginak egin beharko genituzke baskoroen artean. Hor omen dago merkatu nagusia, baskoroen estrukturan infiltratu diren payo batzuren bidez. Hauek saltzen omen diete kinkietako batzuei nahiz eta kinki gutti egon hor-

hark pikotxa eta pala eman zion konturatu gabe. Onrau batekin topo egin zuen seguraski. Manoloren ustez entxufe majo egon ohi da euskal entrepresetan lan zikinak egiteko. Putadak egitea osorik gustokoak ditu eta babes dagoela konturatzean arriskua ere ez dago. Tamalez Manolori gazteegia dela esaten omen diote. Manolok ez du orain arte entxuferik lortu horren aitzakiaz.


"21 urte pottozorri hauek! Ez naute hartze konfidantzaz. Hel-dutasunik ez dudala uste dute baina baten bati petxutik puñala sartu behar baldin badiot gibelo-tik sartuko diot, atzekaldetik, sekulan santan aurretik, aurpe-gia emanez. Atera kontuak ea heldu nagoen ala ez".

Kokorentzat janbak edo andrak pozgarri bizi bizi dira, edozein lekutan topatzeko modukoak. Berbera erakusteko kaletikan datozen bi harrapatu dizkit. Kolkotik heldu eta fotoa atera nezala jotzen dit. Emakumeak milikatu behar dira, norbera bete behar da emakumeekin, titiak eztitu, goxotu egin behar dira, titiak eta pottoak klaro. Norbera bete

eginda paraten dela errepikatzen dit. Bere tabernan ba dauzka hala-koak. Pitilina besterik ez dute antsio titi jorran hasteko prest. Gero eta mamitsuago, korrida zaratatsuago. Rally batetan legez.

Hogetasei urtetako neska baliante bat eskeini dit, osorik dohainik biok batera izorra dezagun berak gertatutako karkabaren batean. Nik atzetik zein aurretik eman ahalko diot, berak bitartean potro guztiak ahotik sartuko dizkio. **"Ya verás como parece un 127"** gaineratzen dit onratuki.

Baina bortxatzea ez da bere gustokoa izaten. Bortxatzea gaizki dagoela diosta: **"Dar hostias si, violar ná"...** **"Batzuri zoritxarrez**



txotxoka egiten erakatsi behar zaie, marikoiei esaterako".

Horretarako txakur txikirik gabe egoten denean, zerbait jo beharren aurkitzen da eta marikoiengana. Zer egin dezake gizarajoak!. Entzutekoa da.

"Behin frantses bat harrapatu genuen nik eta Talegoko batek. Bizioarengatik gindoazela edo, esan eta sinestarazi genion. Artxandako magaletan zuri zuri eginda utzi gero. Kotxea zeukan. Kendu egin genizkion diru guztiak, 20.000 jurdo, kotxea, urrezko santuak eta ea ea bitzitza ere bai. Abarra, abar zati mandoa sartu genion popatik gora. Zerri madarikatu hura, odollez blai ari eta norbera ikarazuskapa egin behar oraindik".

Hazaña ez kondatzeko aurpegi-razten dit. Politiko batek —of the record— aipatu duela esango zuke-

en. Lolok ez dakitza berba horiek eta siku siku ez kondatzeko errepikatzen dit. Traizioa egin diot Manolori, payoak bekatari handiak gara.



Gartzelaz ez du nahi gauzarik esan. Orbain ebantondo sakona gordetzen du handik oroigarri. Erakusten dit. Belaunetik behera orporaino doakio. Oheska batetan amarratuta zegoela baina mutu geratu zait mutila, gaina hartu dio mozkorrari.

Beti ohi dago arrazoi ezkuturen bat basakerien morbositateaz gozotasuna ateratzeko.

Tente jarri zait Manolo, tente eta serio.

Blaust botatzen du edonora: **"Es el vicio del poder el vicio de la dominación"**. Giza-arratoi eta ijituentzako menerapenaren gogo bizia, zapalkuntzak izerditan irakatsia. Gu benetan manoloak ere gara.

T. Trifol.

JAKIN

**EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA**

—hiru hilabetero
ateratzen da—

19/20 zenbaki
bikoitzaren gai
nagusia:

**ELEBITASUNA-
REN AUZIA
IKASTOLETAN**

*ikastolen hiz-
kuntz ingurugi-
roa * politika lin-
guistikoa * ira-
kaskuntzaren
sistema * hiz-
kutz interferen-
tziak * ikastolaz
ikastola elebi-
dun eskolak.

*Iparragirre bertsolari
*Diktablanda gogor ba-
ten birjaiotza

500 pta. ale bikoitz hau
1.100 pta. urteko harpi-
detza

Eskabideak eta harpi-
detza:

Ategorrieta hiribidea, 23,
1. esk.

Donostia-13
Telf. (943) 271713

cambi6

13 de julio de 1981
n.º 502
90 pesetas

La guerra de
las encuestas

Lo que piensan los vascos

GORA ESPAÑA

Independencia **12%** Autonomía **43%** Como con Franco **7%**



Miguel Ríos,
Victor Manuel y Serrat

Los carrozas
nunca
mueren

El don Juan encarcelado
Polonia en la estacada

anaitasuna

ANAITASUNA 1999.alea. Kakagilaren 45etik 68ra.

Euskaldunen %125a
independentziaren
alde.
Inkesta.

VIVA
EUSKAL
HERRIA

ANAITASUNAK G.I.O.(Geroglifikoetarako Ikastegi Ofiziala)ri bidalitako lan baten ondorioz euskaldunik gehienak Euskal Herria independente inkestearen alde agertzen dira. Inkesta zehatz hori pasatutako Txisagilan egin zen Euskadiko hiriburu eta herriskarik gehienetan. G.I.O. taldeak aditzera eman digunez oso datu fidagarriak dira amerikarrak eta C.I.A.koak iker-taldekide izan baitira. Dena den, horra hor gure irakurleentzat bereiziki ANAITASUNAK egindako inkesta, gure eskerrik beroenak G.I.O.koei eta C.I.A.koei eman diguten interesbako laguntzagatik.

ANAITASUNAK SARIAK AN-
TOLATU

Anaitasunak sari batzu antolatu ditu bere ohizko irakurleen artean. Sari honetan parte hartzeko

Anaitasunaren harpidedun izatea baizik ez da eskatzen.

Oraingo honetan banatuko diren sariak honexeek dituzue: lehennengoari hiru liburu eta bi diska, bigarrenari bi diska bi liburu.

Errotazar 40, 2 D Iruñea (iru liburu eta bi diska) eta Jesus Maria Usunarizi, Izarbekoa 31 iz. Zornotza (honi bi diska eta liburu bat karra).

BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA DELA ETA

Durango ikusi ahal izan dugunatik, ezere**n** beldurrik gabe esan genezake, bertsolaritzak gure Herrian urte askotarako kuerda duela entzulegoak erantzuten duen bitartean: nork entzun badago, nork kantatu ba dago.

Ekainaren 21ean, igandean, Durango ospatu zen Euskal Herriko Bertsolari Gazteen Txapelketa III Lauaxeta Saria, eta hara joan ginen bertsolarigaiak entzuteko asmoz. Hain eztabaidagarri eta subjektiboa den gai honetaz ez zaigu guztatzen idaztea, baina egin egin behar dela uste dugu, penagarria delako inoren irazkin barik gelditzea, edo iaz gertatu zen moduan, azken orduen epaimahaikoa zen batek, erdi kabreatuta, egin beharra izatea.

SAIOA

Ona eta jantzia, batez ere iazkoagaz konparatzen badugu. Iaz Mungian, landa batetan izan zen, alboan sukalki-txapelketa batetan parte hartzen zutenak

laguntzat genituela, eta entzun ere ez zen ondo egiten. Aurten berriz, Durangoko Frontoian entzun oso ondo egiten zen, tokia ere egokia zen, eta eraketa aldetik dena primeran.

JENDEA

Nahiko goizean eta asko arratsaldean, batez ere eguraldia eta inguruan zeuden ekintzak kontutan hartuz: lurretako Batzokiaren inaugurazioa, Urkiolako jaiak, Basaurin Etxahun-Iruriri omenaldia, eta azkenez, Altsasun "Nafarroa oinez".

Zenbat egon diren ez dugu esango, oso txarrak bait gara mota horretako kalkulak egiten, baina iaz baino askotaz gehiago Nabarmentzekoa da jendearen

adina: batazbestekoa ez zen 40 urtera helduko. Arrazoiak agian, Mugartegik lehen-goan esan ziguna izango da, edadekoen lehen-go bertsolariak gehiago gustatzen zaizkiela.

ANTOLAKETA

Sarritan esaten da eta guk ere hala uste dugu, lanaren kalitatea detalleek ematen dutela, eta penagarria izaten da horik ez zaintzeagatik ekintza osoa lurruntzea. Hau badiogu, ez da eraketa txarra izan dela uste dugulako, aldrebes baino: eraketa egokia izanik, Txapelketa hau urtetik urtera gorantz doa eta oraindino gorago joango dela uste eta deseio dugu, baina honetarako, gure begiek behintzat, zaindu-beharrezko detalle batzu ikusi dituzte.

**EUSKAL HERRIKO
BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA
III LAUAXETA SARIA**



1.- Goizeko saioan bertsolari lar: 18 bertsolari ezin daiteke neurtu saio batetan, eta horren ondorioak argiak izan ziren.

Agian ez zen posible izango ia zko moduan azken saioaren aurretik eliminatoria bi egitea, baina, lehen momentuan bertsolarien kupoa ipinita bazuten (12 bertsolari dirudienez), zergatik kendu gero? onenak azken orduan emon zutelako ize-na akaso?

2.- Honen lehen ondorioa: denboraz eskas ez ibiltzeagatik eta saioa ez luzatzeagatik batek bakarrik bota zuen agurra, eta hori ezin da egin. Eta ezin da egin, bertsolariaren agurra pelotari baten partidu-aurreko peloteoa bezalakoa delako: ezinbestekoa berotan sartzeko. Agurra ez botatzean bertsolaria ebakita geratzen da, denak ekartzen dütelako gutxi gora-behera prestatuta, eta kanta-beharrak dute konfidantza hartzen joateko.

3.- Bigarren ondorioa: nahi eta nahi ez, saioa luzeegia eta kontzentratuegia bihurtzea. Azkenean gax egiten zen atentzio osoz egotea.

4.- Hirugarren ondorioa: bakoitzak zazpi bertso kantatu eta gero, hamar bertsolari elimina-beharrak: lan latza epaimahaiko-entzat.

EPAIAK

Epaiei buruz berba egitea labankorra dela konsziente gara, baina saioa aztertzen hasiz gero ezin dugu utzi alboan. Ba dakigu subjektibitateak asko jokatzeko duela honetan, eta oraindik **gehiago** araudia zehaztu gabe dagoen arlo batetan, eta bertsolaritzan nola juzgatu behar den konklusio berdintsuetara heltzeko, ez da oraindik argi esan. Gero emango dugun adibide botetan ikusi ahal izango den moduan, potoa bera zer den ez dago argi.

1.- Denok dakigu han zeuden bertsolariarik 5 edo 6 lehen mailakoak izatera helduko direla, baina denok dakigu baita ere, bertsolarien egun onak eta txarrak izaten dituztela (hau heuren dakite inork baino hobeto) eta egun batetan eliminatoriak geratzeagatik ez dela ezer pasatzen. Honekin zera nahi dugu esan: epaimahaikoek ez ote dira sarritan aurretizietan oinarritzen? ez ote du bertsolariaren izenak izanak baino gehiago pisatzen? Kasu bitaz ari gara batez ere, bata, Jon Aurre arratsaldeko saiora ez pasatzeaz, eta bestea, Ziarda azken lauen artean ez egoteaz.

2.- Ez dakigu epaimahaikoen ala antolatzailen hutsa den: sariak hiru izanik finalista moduan lau uztea. Honela jokatzeko laugarrenari **bertsorik onenaren** saria ematera behartuta ez ziren aurkitzen? edo beste era batetara esanda, Murua, esate



baterako, hirugarren geratu bazen, **bertsorik onenaren** saria berdinean emango zioten laugarrena ezer barik utzita? ez dugu uste hori egiteko kapazak izango ziratekeenik. Ez dugu nahi esan Muruak ez zuela sari hori merezi, e, kontuz, bertso saritua biribila da eta.

GAIK

Gaiak, oinak eta puntuak ipintzea askok uste duen baino zailagoa da, eta saioaren kalitaterako oso inportantea. Hau honela izanik, 18 bertsolarik parte hartu behar duten saiorako lan hori egitea izugarri problematikoa da, baina klaro, lan hau beragain hartzen duenak ala dutenek erantzun egin behar dute, eta igandekoan floyotsu ibili zirela esango genuke, txarto ez, baina gure ustez serioegia eta piper gabekoa bihurtu zuten saioa. Guk ikusitako akats batzu:

1.- Goizeko ofizioak filosofi-examinak zituditen: baietza-ezeta, ezberra-eskoia, egia-gezurra, eta abar, eta gainera zortziko txikian. Gaiak hain antzekoak izanik, azken bikoetetara heltzean esanda zegoen dena.

2.- Puntuetan sarritan erabili izan dira esaera zaharrak, eta hori eginez bertsolaria lotuta aurkitzen da, esaera zaharroz bertsoa amaitzeko ondo daudelako, konklusio gisan, baina ez hasteko. Herriak hainbat urtetan mamitutako esaera bat, bertsolariak bat-batean hobetzea ezina da, eta bertsoak eskatzen duen progresiorako (azken puntuak indartsuena izan dadin hori egin behar du).

3.- Gaiak aseptikoak izan nahian, ezerezean gelditu ziren; gaurregun bizi dugun mundutik at zegoen saioa, eta bertsolariari sentitzen eta bizitzen dituen gaiak eman behar zaizkio, bertso ederrak atera nahi bazaizkio behintzat.

Ez dugu nahi esan, orain hiru-lau urte gertatzen zen moduan, amnistia, presoak, gartzela, errepresioa, Franco eta akabö egin behar denik, baina lanaren arazoa, dibortzioa, nudismoa, eguraldia (itzelezko lehortea genuen gainean), eta gure egoera politikoa ere bai (zergatik ez?) agertu behar diren gaiak dira. Gaurkotatzen usainaren falta nabaritzen zen, eta honetan, epaimahaien zegoen Abel Muriatekin izango du zer esan, maisua baita egunkarietako gaiak ipintzen.

Dena dela, bertsolarien heuren eskapadak, egin zituzten gaiak edo oinak mailgutasun nahikoa zutenean, baina ez askotan.

4.- Mesedez, kontuz emakumezkoekin!! Entzulego erdia andrazkoa izanik (eta izango ez balitz ere, berdinean) zelan ipin daitezke han ipini ziren gai batzu?. Eta kontutan eduki ez duela balio bertsolariari errua botatzea disparte bat esaten duenean, honek, bere lana ondo bete gura badu, suertatu zaion papera defenditu egin bait "Emazte zuria, senar zuria eta umea beltza", "behia antzu eta emaztea umetsu": gai hauetan esan daitekeen gauzarik txikiak ere min eman dio emakume bati. Errespetatu dezagun errespetatuak izan gaitzen.

GAI-JARTZAILEA

Azkenean denbora egiteko kontatu zizkigun txistek alboan utziz, saioa azkar eroran zuen eta ez zen protagonista bihurtu (eta hori da gure ustez gai-jartzaile baten egin behar duena, protagonistak bertsolariak bati dira), baina gustatu ez zitzaizkigun gauza batzu aipatuko ditugu:

1.- Gaiak ematerakoan errepikatu egin behar da, jendea ondo enteratua dadin, eta ez zuen egiten. Jose M. Iriondoren "berriz diot" faltan bota genuen.

2.- Euskal Herriko Txapelketa batetan zein euskara erabili behar da? edozein, hitz eta esaera lokalistak azaltzeko abilidadea edukiz gero, baina **mundu guztiak ulertu behar du**: berdinean da bizkaiera, gipuzkera, batua, bantua ala kakaztua, baina denek uler dezatela. Ezin daitekeena egin zera da: puntuak botatzerakoan (giputz bati) **olgetan**, Bizkaian soilik erabiltzen den hitza bota. Bertsolariak ulertuko ez balu (eta ez du ulertzeko obligaziorik) zer egin beharko luke, isildu eta galdetu, ala bertso huts bat bota oina gordez?

3.- Sariak eman ondoren, saioa amaitutzat eman zuen, eta publikoak eskatu behar izan ziren agurra irabazleei. Ondo dago agintariak agurtzea, baina bertsolariak ahaztu barik.

4.- Laugarren akats hau benetan gogorra: bertsolariak ordena alfabetikoan ateratzen zituen, beraz ordena aurrepentsatu batetan; baina **gaiak sortean barik**. Hori ezin da egin. Intentziorik onenagaz egin-go zuen baina txapelketa batetan gaien (eta bertsolarien heuren) zozketa egin behar da, zeren askok txarto pentsa dezakete eta arrazoiz. Gainera, detalle batzutan fijasen bagara, uste genezake ez zuela ordena zehatzik eroaten, kasualidade handia litzatekeelako bizarrari zegokion puntu bat egotea eta bizardun bakarrari suertatzea, eta era berdinean, txapelari zegokiona txapeldun bakarrari. Ez dugu uste inondik inora ere, Eguzkik gauza lohirik egin duenik, baina nahiz eta astiz hestu ibili, ez zaio inori susmo txarrik egiteko aukerarik eman behar.

BERTSOLARIAK

Bertsolariekaz sartu baina lehenago, komentario txiki bat gura izango genuke egin. Aurreko egunetan eta ondorenekoetan ere, egunkari batek bertsolari berritarrak eta hiritarrak zeudela eta, berritarrak gailendu zaiela hiritarrei eta esaten zuen, Hau da, ba dirudi haien zat muga bat dagoela: berezko bertsolariak eta ikasiak, eta gu ez gatoz bat iritzi horreki. Berezko bertsolariak ez dago, mundu honetan behintzat, eta bertsolariak urte urte landu behar da, eta ikasi, bertsolari guztiak ikasten dute. Ala Txapalketara joan aurretik entrenatu eta ahalegin bereziak egin barik joaten direla uste dute? Ba, oker daude. Beste gauza bat da, estudioetan. ohituta dagoen bertsolariak, bere prestakuntzarako behar duen materiala biltzen eta erabiltzen hobeto jakingo duela, baina materiala bildu, **denek** egin dute, bakoitzak bere aldetik, eta hori da txarrena. Hemendik aurrera, zorionez, hau aldatu egingo dela uste dugu, guztien indarrak batuz. Eta hitzaurre hau amaitzeko, Xalbador handiak gai honetaz Mattini botatako bertso bi ipiniko ditugu:

Jainkoak emaiten du zombaiti dohaina, nola guhauri ere baitauku emana.
Nork daki hazi hori non dagon eraina?
Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.

Zonbaitek uste dute, sortuz geroz behin bihia segur dela hazi onarekin.

Ez badugu laguntzen handi ta ont dadin, landare hoberena galduko da berdin: uzta nahi duenak behar du lan egin.

Esan behar dugu izena hemeretzik eman zutela, baina Begiristain ez zela agertu eta hamazortzik kantatu zutela



goizean. Hautariko zortzi pasatu ziren arratsaldeko saiora, azken partean lau gelditzeko. Goizean, 4 edo 5 inoiz honelako txapelketa batetan parte hartu gabekoak ziren, eta urduri agertu ziren normala den moduan eta ez ziren pasatu arratsaldera, baina ez zuten batere erredikulorik egin, eta saioan, mota honetako txapelketetan izaten den baino maila finagoa egon zen.

Bertsolari bakoitzak kantatutako bertso bana ipiniko dugu hemen, goizean apartakuta gelditu zirenak ere polito egin zutelako. Ordena alfabetikoz **Jesús Mari Jauregi "Altzo"** rekin hasiko gara. Honen honela erantzun zion bota zioten puntuari:

Zutik hil baino hobe, belauniko bizi:

Hori askotan guri gaur egin arazi era hortan mundu hontan geradela hazi zutik ahal dela behintzat gerra irabazi.

Iñaki "Antxiñako"ri lau hitz hauek eman zizkieten bertsoa osotzeko: egiz, handiz, ogiz, egarriz, eta hau osotu zuen: Esan behar dizuet sinez eta egiz hona etorri garenak gatoz gogo handiz baina gizonak ezin du bizi soilik ogiz. Eguzki: ekarri ardoa gauzkazu egarriz.

Jon Aurreri gai hau eman zioten zortziko handian kantatzeko: "txoria kaiolan zen Euskal Herriaren irudi. Gaurregun non ote dago txori hori?", eta erantzuna:

Gure txoriak bere barruan ba dauka hainbat hestura uda garaian, lehorten hontan beharrezko du freskura uxatu nahirik kantuan dabil

bere bihotzeko tristura askatasuna nahi

luke izan hainbat laserren eskura.

Iraolari eta **Iñaki Lasari** gai hau ipini zieten nagusian kantatzeko; "lehenago

bai, baina gero ez", eta **Lasak** hau bota zuen:

Neri barnean sortuzten didan sua nola azaldu nik zergatik hara sartzen dituzten batere kulpa gabarik. Justizi on bat ipinitzeko haiek ez dute gogorik: gezurra franko esanda baino hobe egonda isilik.

eta **Iraolaren** erantzuna: Gaiztekeria sarri egiten jarduten zaizkigu aurrez ikusten dituzten zenbat senide maite dauden negarrez. Errurik izan ezagatikan loturik daude indarrez: zenbat sufrizten duen barruak esaten ez da hain errez.

Iturbek honela erantzun zion jarritako puntuari: **Lana egiteak gaur ni ez nau samintzen** askorik egin gabe hamaika da bizitzen haiek jateko guk bizkarra bustitzen. Zergatik ez gara denok munduan gozatzen? **Jose Mari Pastor "Santurtzi"**ri eta **Kepa Urrutikoetxeari** nagusian egiteko gai hau ipini zioten: "txoria banintz", eta **Urrutikoetxeak**:

Hain hesturik gu gabiltza bihotza dela penetan nola bukatu nik ez dakit ta hau tristura benetan. Orain txoria izango banintz esan behar dut aldeetan askatasuna bilatutzeko joango nintzakela hegan.

eta **Santurtzik**:

Ni oraintxe txori naizenik zuek ez pentsatu, arren gurako nuke izan, batere hegorik ez du dan arren. Saiatuko naiz enitz hegoez askatasuna lortzearren Txori izanda egongo nintzen behin betirako pozarren.

Bertso honetan poto dago? Gure ustez ez, inondik inora ere, baina agian baten batentzat bai. Horregatik esan dugu lehen potoa bera zer den ere ez dagoela argi.

Zeberio Ilari emandako gaiak honela zioen: "Euskal Herrian euskaraz egiteko zer asmatuko?", eta botatakoa:

Gauza handi bat orain egiaz zuk hemen duzu aipatu euskera behintzat gurekin gainez sekula ez de (d)ila bukatu bera indartzen ta borrokatzen denok gaitezen saiatu eta behinik behin bihotz bihotzez barren barrerendik maitatu

Xabier Zorrotzari gai-jartzaileak galdera hau egin zion: "Zer erreko zenuke San Juan sutetan?", eta:

Aspalditikan gu euskaldunok askatasunaren bila ta gure kontra hor hainbat etsai gutxienez dira mila. Hori lortzea ez da erreza izango da nahiko zaila. San Juan bezperan R. jaun hori su hortan erre dadila.

Eta hauek izan dira eliminatuak geratu zirenek botatako bertso batzuk (magnetofoia ez genuen ondo entzuten eta berbaren bat txarto transkribatuta egongo da agian), eta ikusten duzueenez, ez dira baxter txarrak. Kontutan izan hauen artean 19 urteko euskaldun-berri bat dagoela, beste bat ere euskaldun erdi-berria eta plazan inoiz kantatu gabekoak 4 edo 5.

Arratsaldera pasatu baina azken lauen artean egoteko ahorea izan ez zutenak hauek izan ziren: **Elgetzu**, **Eusebio Lasarte**, **Ziarda** eta **Olalde**.

Elgetzuri emaniko gaiak goizean honela zioen: "Bat bitan banatzen da", eta erantzunak:

Gaurko egunez kontua horra beharko dugu atera gure anaiak asko joan dira Nafarroko hegaleria. Oinez kontuak eman guztiak hizkuntza baten aldera nahiz ta banatu gura gaituzten bihotzek anaiak gera.

Ziardenari oin hauek suertatu zitzaizkion: "sarri, larri, elkarri, ekarri", eta burutatakoa:

Gauza bat pentsatuten egona naiz sarri: gure Herria dabil hestu eta larri, lagundu beharra dago guztiok elkarri nahi bada askatasuna Herrira ekarri. **Lasartek**, "zerez ase egarria" galderari, lehen bertsoan **Euskal Herriaren betirako askatasuna** erantzun zuen, bigarren honela osotzeko:

Hainbat urteko zapalkuntzakin ez gara buruen jabe iluntasunez gaude guztiok ezin gara egon trebe bihar goizean gugana hori helduko balitza hobe baina ez pentsa, ez da helduko jaunak, borroka egin gabe.

Olalderi, goizeko saioaren amaieran galdera hau egin zioten: "zertarako gogoa daukazu?", eta noski:

Bazkari on bat egiteko hori zure iritzia aukeran gaia-jarri digute ba da zer erakutsia



Ez du merezi buka baino lehen saioa hau ere lagatzia nik nahi nukeena orain bukatu ta gerora pasatzia.

Lau hauek nola egon ziren galdetuko baligu norbaitek, zera erantzungo genuke: **Elgetzuk** konfidantza gehiagoz kantatu beharko luke: altuago; **Ziarda** gaztea da eta oraindino gorago joan behar du: bertsolaria da; **Lasartek** azkena hobeto prestatu beharko luke, lantzat egiten da, dudarik gabe, denetarik azkarrena zen; eta **Olalde** urduri agertu zen: nerbioak gaudituko balitu...

Azken laurak: **Murua**, **bertsorik onenaren saria** **Telleria** hirugarren, **Peñagarikano** bigarren, eta **Mendizabal** irabazlea.

Murua goizean hobeena egon zen gure eritziz, baina arratsaldean nerbioak gehiago egin zioten. Bertsorik onena hau izan zen, puntuari erantzunez:

Zer moduz dabilkigu txoria kaiolan?

bera dago lotuta, ez dakigu nolana dago hura triste nahi ez dun kaiolan bere burua askatzen ba dauka nahiko lan.

Telleria, bere mailan egn zen, bere neurtzeko sentidu izugarritz. Gartzelako gaia "Euskaldun makila" izan zen, eta **esnesaltzailearen** musikan hau bota zuen, aurrean zuen makila eskuetan hartuz:

Etortzerakon nik e hartu diot usai zer behar duen gai orain defentsarekin aurkitzen naiz lasai baina halare ez dut inor egurtu nahi baina agintetxo bat hemen ipini bai Honekin joago aiz abertzale itzai.

Peñagarikano eta berarekin egon ziren hirurak, lehen mailako bertsolariak izateko deituak dira, baina Durangon beste bazutan baino baxuago ikusi genuen hura: ez zuen bere eguna. Hala eta guztiz ere, bere espezialiteteko plater bat eskaini zigun, 9 puntuko bat, gaia hau zela: "Lehendakariaren aulkiari":

Zenbat negar dagoen Euskadi partian lehen egonak gara hemen lurpian Francisco izeneko bat gendun artian orain sartu dirade gehiago tartian suan eta kian bere atakian oserita aulkian nola litekian Utzi dezaigutela guri bakian.

Eta Mendizabal irabazlea, erregularren egon zen, goiz eta arrats, eta ondo merezia zuen eraman zuen txapela eta kopa. Gartzelako gaian (Euskaldun makila), bertso eder bi hauek bota zizkigun:

Makil koskorarentzat oraingo esana alboan emana ta eskeiniko diot ahal dezakedana. Gizon bat ba genduan hemendik joana Euskal Herri osoan ezaguna zana Hau ote da Monzonek utzi ziguana?

Zer esannahi ba dauka makilak gaurregun hain dugu ezagun hobeagoren bila ezin gindezkeen jun euskaldun guztiok gaur bilaturik lagun makila eskun hartu ta lanean jardun ta Monzonen bidetik jarraitu dezagun.

Sari bat zegoen doinu gahien erabiltzen zuenarentzat, eta hau ere **Mendizabali** eman zioten.

Hau izan zen dena. Amaitu orduko, zorianak gura dizkiegu eman antolatzaileei, **Eguzki** gai-jartzaileari, Epaimahaia osotu duten **Abel Muniategi**, **Adolfo Arejita**, **Erlatx** eta **Jesús Mari Etxezarretari**, eta nola ez, irabazi eta irabazi ez duten bertsolariei.

Datorren urtean ere elkar gaitzela.

JOSE R. BILBAO

- Buenó, geró-arte.
- Báí, geró arté.

Berríz eré. Báí, **Jóxe** — hori báí, berá **Jóxe** da, ez **Joxé**, Gipúzkoá aldeán ezá-gutzén ditúgunén gisará—, beheko basérríko gízón hain jatór horrék —Mungía aldeáz ari náiz— **“geró arté”** hain markatú horí esatén didán bakóitzeán, amórruá sorrérazten dít; báí, amórrú biziá, neronék ez baitút behár bezelá esatén. Hain dá zailá, gauéskolá etá abárretán hainbesté ordú ematén ditúenarentzát bereán segítzeá!

Besté zertxobáit eré sorrérazten dít, ordeá: idaztén jartzekó gogoá. Idatzí beharrá baitagó. Etá, dudarík gabé, ni bainó askóz eré jakintsuagó direnák ba dirá herrí hortán, bainá susmátzen dút askótán zertáz arí dirén ahaztú egitén zaielá. Báí, askó, ahál bezainbát jakíteá ondó dagó, bainá geró herrirá joátekó, herríarengán hizkuntzá mamítzekó... magnétofoiá erábílí behar dá, etá bildur náiz hemén ez delá gehiegí erábiltzén, edó ez delá erábiltzé horrén fruiturík ematén gutxinéz. Báí gramátikák emáterakoán, báí métodoák egíterakoán báí kritérioák hartzerakoán —Bainá honetáz besté egún batéz arítukó gará.

Gaurkoán azéntuáz arítú nahi dút. Zer delá etá? berori euskará ez dén neurrián, kontrá egín behár.

Garbí gerá bedí, dena dén, denók hola egíterá jó izán bagenú, problémarík ez légokéela, hizkuntzá bilákaera baitá. Gauzá, ordeá, ez dirá horrelá; bakarrík egóerá konkretú batzután gertatzén ari dá, geuré belarrí gaixoén kalté —etá honetáz, Donóstia aldeán, **“joan zaió”** etá, esatén arí dirá klaséetan, eta éz Bilbó aldeán ari dén **“jóan záio”** horí.

Garbí dagó, hemén esán nahi dítudanén frogá ez dágoelá idátzirík emáterik, entzunéz hartzekó modúkóa baitá. Halá eré, esán daitezke zenbáit gauzá, etá horrétará noá.

Lehenengóz irákurléari bidé zuzéneá eskainí nahi diót: har bezá, báí Donóstikó, báí Bilbokó herrí irratiá. Hantxé entzunó dítú entzútekoák **“jauzí jakó”, “egín dogúz”... “egín diteké”, “agertu diren”, “mutíl hoiék”... Gogó etá aukerá zabálagorík baleuká, bá zuzéneán, kasetá hartú, etá edozéin euskaldún herrítara jó. Hán gauzá berá ikúsikó baitú.**

Bigárrenéz zerbáit ekarrí nahi nuké honá. Etá zera dá: Añámendi-k **“Azkué”** bildumán 20 urté direlá argítará emándakó liburú batén berrí: Gaztelú-k idátzitakó **“Musiká isillá”**. Libúruarén mamián sartú ezík, hemén, bertán dakarrén euskál métrikarí buruzkó erázkiñá intéresatzén zaigú: métriká aztértú, etá bidé batéz,

EUSKARAK BA OTE DU AZENTURIK?

azéntuá aztertzén baitú. Honá hemén, zenbáit azálpenén geroztík ematén ditúen azéntuarén erábilpénarí buruzkó 4 aráu nagúsiák:

“Ar ditzagun bakarka itzak. (‘) ezaupide onekin izki pikoiezak (azentu gabeak, nolabait) mugatzen ditut; (-) onekin berriz pikodunak.


1) Izki batekoak.- Auek (an, or, zu, bat), une bateko izanik, eztute beraz igierarik osatzen, eta pikoezak dira; berez atonak direla esan diteke. Auetatik bi ta geiago alkartzen direnean, bi ta iru izkidunen arabera egiten dute; bestela, aurreko edo atzeko itzari datxikie. Adibidez: au da (‘-), ni naiz (‘-), ez naiz ni (‘-); gizon bat (‘-), bi mutíl (‘-), or dago (‘-), t.a.

4) Sei ta zazpi izkidunak. Igiera osotua ta atzizkidun dira auek eta azkeneko izkian ezezik, beste bi piko ere ba dituzte barnean. Adibidez: mutillarentzako (‘-‘-), Berastegiraño (‘-‘-); emakumearekin (‘-‘-), Arrasateraño (‘-‘-‘-).

Bi hitzetán esandá: euskál azéntuák bí etá hirú silábatakó errítmóá behártzen dú, bertán azéntuák hitzén azkén silabatáz bát egitén dirélarík.

Beráu egiá al dá? Frogatzát liburú horretán, tresná edó neurgailú akústikó-etáz egíndakó frogák aipatzén dítú.

Berriró diót, frogá nagúsiá norberák aurkí lezaké, hor zehár, **Euskál Herrián —nolá esán, éuskal herrían?; ezín eré—.**



2) Bi ta iru izkidunak. Auek, bai, igiera osatzen dute, ta aztuna dute azken-itza; bañan, geienetan beintzat, ez gatzel-itzak ainbat. Adibidez: bide (‘-), emen (‘-), aspaldi (‘-), zuentzat (‘-), t.a.

3) Lau ta bost izkidunak. Igiera osotua eratzen dute ta atzizkidun dira geienak; azkeneko izkian ezezik, beste piko bat ere badaramate barnean. Adibidez: orregatik (‘-‘-), Ondarrabi (‘-‘-); aspaldidanik (‘-‘-), Errenderira (‘-‘-), t.a.

ezín eré—.

Halá eré zenbáit datú ematén saiátuko náiz.

Lehenengóz, zein dá problemá? Bi pausó nabarí dirá azéntuarén degradazioán: lehenengotán, batéz eré, hitz bisílaboéi azentú agúduá kentzeá (**mútil hóri, hór díren gatzéak...**)

2.ez, azkén hortán zabaldúz doaná: hitz luzeéi eré azéntuá azkén aurrekó hitzá erámateá. (euskaldunák inóiz ez dú bigarrén silabatík aurrerá azéntoá emán ga-

bé pasatzén): **autobúsa, irabázi dúgu, emakumearekin...**

Noskí, zein dá hemén agéri dén jokábi-deá?: gaztelaniák nagusi dituen azentú "llanoén" erábilkerá, bestérik éz.

Besté akáts típiko bát: posésibiák éz azéntuátzeá: **nere osába** ("nere" atóni-koá). Gehienéz, etá batzután, "**nere osába**" esáterainó zuzendú izáten dá (beti ari náiz Bilbokó gauéskolá etá abárretáz); guk beti **neré-osabá** esán dugú.

Honetáz zer esán duté aipátutakó Gaztelúk besté jakintsuék? Denetik pixkát. Bainá dakúsagún horretáz Gaztelúk berák zér dioskún: "(...) Aipaditzagun zarren artean A. Oihenart, XVIII'gn. gizaldian, eta A. Larramendi XVIII'gnean; gure gizaldikoen artean, berriz, aipagarri dira berezienik R.M. Azkue, Lekuonatar Imanol, Altubetar Xeber eta Ormaetxeatar Níkola ("Orixe"). (...)

Auek guziak (...) eztituzte mintzoa ta igikera bear bezela berezkatu".

Aipámená kontéxtutik kanpó emáten dút, báí, bainá hemén haién erítziák éz emáteá, agián, batén batentzát erántzutekó eráginá gertátukó bide dá. Etá azkén batéz, jendeá kezká dadin dá honetáz intéresatzén zaidaná.

Neuré aldetik, azkén datú batzú eman-gó ditút (erábakítzaileák ez bádirá eré).

Lehéngoz, klasé-ingúruetan gutxién erábili izán dirén formatán "azentú berri hori" iá erábili eziná dá. Zergatik? Kutsátutá ez dáudelakó. Bi kasú:

- Esákerák. Nolá ahozká: hor konpon, ba zara, gero!, egonean egon...? Inórk ulértukó oté luké **bá zára, géro!**" entzúnenez gero? Ez ník gutxinéz.

Bigárrená, "hiká" joerá guziá. Emán dezagún ondokó elkár hizketá:

"- Etórrikó ál da?

- Ez zekiát. Ez gáituk berarékin égon.

- Bá dizkík potroák hórrek, géro!"

Zein ausártzen dá hori besté honén aurreán aukératzera?:

- "Etórrikó al dá?

- Etzekiát. Ezkaitúk berárekín égon.

- Bá dizkík potroák hórrek, geró!"

Tira bá! Besté datu bát. Béhin Doníbanekó neska bát ezágotutá,

Oñátibiaren métodoáz autódidáktikokí ikastén ari zela esán zidán. Zein azéntuázió-gisá esperó zitékeén neská hartáz? Bá ondókoarén modúkoák botá zizkidán: "**Gosé zaré?**", eta abár. Zergatik hori, eta éz "góse zára"? Garbí dagó, besté aldeko ikásleén suertéz, frantsesák hitz agúduák dituená, euskárazkoén antzerá. Etá egiáz gertátzen zén atséginá neská hari entzútea.

Datú gehiagó: ez ál duzue Xabier Letéz askotán entzún, osó polító hitzegitén zuená (ez náiz asmatzén ari. Ník askotán entzúndakoá, etá agián esándakó dá)? Zer dú Leterén euskarák berézirik? Soil-soilik azéntuá. Bestelá, euskará batuá edó iá batuá izáten dá harék jendé aurreán erábiltzen duená.

Datú gehiagó. Euskál kantari ezagún baték beré azkén diskoán "... **xurgatzaileek dioté oihuká...**" esatén duénean, ez dízué belárrikó minik erágitén? Edotá besté baték "**éz zegóen...**" osó markátu bát botatzén duénéan? Éz? Belárriak garbitzén hasi beharkó.

Zér esán "aita" hitzáz? Gúk (Gipúzkoá osoán) beti "**aitá**" esán dugú. **Bilborá etorri etá "áita"**; hara zein harridurá! **Bainá kontúz. Besteán berméotár lagún baték zioztán beraiék eré "aitté"** esatén dutená. **Noskí, halá izán behár!**

Datú gehiagó: "**káixo**" famatú hori. Entzún etá baték ba dakí ikaslé edó ingurú horrétakó batén aurreán dagóená.

Gehiagó. "Euskaldún kaxkarrák" aipá ditzagún; adíbidéz, Euskál Herritik kanpó luzároán egón etá euskará erdí aházturik itzúlitákoák; edotá ez hitzegítearen ez hitzegíteáz erdí ahaztú egíndakoák. Ondo dá; berauék gutxi egingó duté euskaráz, ez duté "diozadán" bát erábiltzén jakingó, bainá esándakó gutxi horretán inóiz ez duté "**jáutzi dírez**" edotá "**óndo zé-gok**" bát botakó. Hortán segurú egón.

P.D. gisakó azkén hirú ohár: lehená, neronék eré zenbáit urtetán hemén hauzitán ipinitakó azentú-eredú hoiék erábili egín ditúdanéz, honetáz, nire ikaslé izándakoei barkapén-eské natór.

Bigárrenéz, beronén helbúruá ez dá "ex cathedra" hitzegíteá, noskí. Arázoa dá jendeá kezkatán ipintzeá. Azkén batéz, errézagó deritzót hemén esándakoák frogátzeari, euskál mundútxoá honetáz kezkatzeari bainó.

Azkenéz, emándakó eréduák exzépzióák edukí ditzaké, agián, bainá garbí dagó exzépzióák landú etá finkátzekó aurretik erédua finkatú behar dená.

MUÑAGORRI: "PAKEA ETA FUERUAK"


Napar eta gipuzkoarrok!
Bost urte dira hondamen eta heriotza gure sorterriaren gainean daduzkagula. Gure lurraldean isuri den odola, anaien odola dugu; su emaile batzuek bultzata Printzipe baten alde burrukan ari diren anai kementsuen odola. Espanian Errege izateko baezpako eskubideak dituen baten alde emanak. Zer eskatzen duzue? Zergatik eta zeinentzat ari zerate sufan? "Pakea eta fueruak". Hauek izan behar ditugu helburu! Haundikiok errege alkia nahi baldin badute, hor konpon!

Naparroa eta euskal probintziak hainbeste adiskidetasun, odol, ohitura eta eskubidez elkartuak beti beren buruen jabe izan dira. Hemendik aurrera ere ez genuke jauntxo zikin hoi menpeko izan nahi. Agintzen ohituak eta behartsuen bizkar aberastutzen diren hoi mutil.

Gora gure askatasuna!

Har itzazute armak!
Pakea eta libertatea!
Zaudete agintari berrien esaneko!
Berastegi, 1838ko apirilak-19.
Askatasunaren buruzagi nagusi den
Gora gure askatasuna!

MUÑAGORRI.



- Deia edo proklama hau, ez da gaurkoa ikus dezakegunez, baina bere mamiak ez du gaurkotasan haundirik galdu, nahiz eta textuan azaltzen diren gauzak joan den menokoa izan.

Proklama honen egilea Joxe Antonio Muñagorri, izan zen. Muñagorri? Eta zertarako egin zuen proklama hau?

1.- NOR ZEN MUÑAGORRI?

Muñagorri 1794. urtean jaio zen Gipuzkoako Berastegi herrixkan. Bere aitona eta bere aita herriko eskribauak izan ziren, eta bere aitaren heriotzean eskribau berria bezala gelditu zen.

Eskribaua izatea ez da sekulan erraza izan, baina gutxiago garai hortan. 1808. urtean Napoleonen tropak Iparraldeko herrialdeak suaz eta garrak pakeztu ondoren Hego Euskal Herrian sartu ziren, eta ez ziren joango 1.813. urtera arte.

Urte beltz eta trixte hoietan zenbat odol eta zenbat kalte eta hondamendi ikusi ziren!

Euskal Herria mixeri gorrian, pobrezian gelditu zela, erraz sinistekoa da. Eta ez bakarrik ondasunez, jendez eta batez ere gaztez ere.

Egoera latz eta goibel hortan, hazi zen gure Muñagorri.

1833, urtean lehenengo gerrate karlista hasten da eta berarekin batera, heriotza, odol isurketa, eta trixtura gure herri eta zelaietako nagusi trajikoak bihurtzen dira berriz.

2.- LEHENENGO KARLISTADA.

Hasieran, Zumalakarregiren garaipenen ondorioz, karlistak Euskal Herrian nagusituko zirela ustean, karlisten aldekoa izan zen.

Bainan Zumalakarregiren heriotzarekin, ez zuen konponbiderik ikusten. Txapelgorriak eta txapeltxuriek euskal fueruen defendatzaileak proklamatzaren. Gerratea ari zen gehiegi luzatzen, eta karlisten garaipena oso urruti ikusten zen. Gainera Zumalakarregiren heriotzaren ondoren ez ziren euskal buruzagi gehiagorik ikusten ere ez, eta bi alderdietako euskaldunentzat karlistak sentidu gabeko gerrabat ari zen bihurtzen.

Iritzi hau txit Zabaldua zegoen gure gutzia galdu baino lehenago, gerra lehen bait lehen bukatzea hobe izango zela bururatu zitzaion Muñagorri.

Hortarako karlista banduaren barruan zegoen Berastegitik isilka alde egin eta liberalek agintzen zuden alderdira, Donostia aldera abiatu zen.

Liberalen arietan lehenotik zituen la-gun zaharrek oso harrera ona egin zioten,

eta haiekin batera armaz gabe gerra bukatzeko egitarau bat asmatu zuen, pakearekin batera fueruak eskainiz. Mugimendu berri honen gidaritzat Muñagorri aukeratu zuten.

Hemendik aurrera bere izena gorrotoz betea ahozkatuko zen karlista askoren ezpainenetan. Bere burua saldu zuela, Madrilko Gobernuarekin harremanetan zegoela, ziren susmo eta zurrumurru zabalduenak.

3.- MUÑAGORRI: "PAKEA ETA FUERUAK"

Gudatearen bostgarren urtea irixtean, Muñagorri "Pakea eta Fueruak" bandera ateratu zuen guda amaitzeko asmoz.

Gerrak ezer onik ekarriko zuela, mixeria eta gosea besterik, zabaldu egin zuen.

"Ez gaitzela Ebroz harunzko karlisten esperantzetan bizi! Odol isurtze gazteen lorea galizea eta anaiek anaien kontra burukatzea, gauza trixtea bait da! Gaztelerrriak nahi duen errege har dezala, guri Fueruak gorde ezker berdina zaigula edozein!", zen Muñagorri zabaltzen zuen dotriña.

Bere helburua zabaltzeko ahozko bertsoak aukeratu zituen, eta berak gerraren kontrako egindako bertsoak ahoz aho zabaldu ziren. Segituan famatuak egin ziren bai liberalen artean eta zer esanik ez karlistekin.

Hona hemen Muñagorriren Kantaren bertso batzu.

"Muñagorri diona
bere proklamian
- Gerrak hondaten gaitu
bostgarren urtian
Igaz jarririk Karlox
Madrilgo bidian
bultza zuten atzera.
Gerra bere onian".

"Agintari onenak
preso daduzkate
euskalduna izatea
du bakoitzak kalte,
Tejeiro ta Maroto
guztien alkate;
zer gozpm jpoetatol
espero gantzake".

"Hainbeste odol isurtze
ez da doloria?
Hilda probintzi hontan
gaztien loria.
Herria defenditzia
litzake honoria
anaia anaiaren kontra
txit gauza irixtia".

Laster bertsoak ugaritu ziren, baxter guztietan. Sagardotegietan ere bertsoak oso entzunak ziren, eta karlisten tropetan ere.

Muñagorriekin bertsoekin batera, eta gutun berdina zabalduz, herria hasi zen bere bertsoak egiten. Hauen antzakoak:

"Pakea ta fueruak
da gure bandera
gure anai maiteak

hatozte honera.
Nafarrak, alabesak,
giputz, bizkaitarrak,
hatozte guregana
gazte eta zaharrak".

"Beltzak eta zuriak
dira erausiak,
elkar hartu dezagun
euskaldun guztiak
egiten degularik
bizitza berria
defenditu dezagun
fueruen herria".

Hasieran pakea eta fueruak defenditzen baldin bazituen laster sartu zuen elementu berri bat: euskaldunen batasuna, nortasuna eta burujabetza. Bere inguruan bi mila laguneko armada bat eratu zen, nekazariak eta artzariak osaturik batez ere.

Bertsoek mendeetan zehar Euskalerrian izan duten indarra, nahiko probatua geratzen da ixtorio hontan.

Karlista Agintariak bere soldaduak bialdu zituzten Muñagorriren atzetik. Bere armadax amore emateko beharrean arkitu zen eta Muñagorri Baionara alde egin zuen.

Bainan hala ere Muñagorri ez zuen etsi, eta hiru edo lau aldiz gehiago, bere soldaduak antolaturik Nafarroa eta Gipuzkoako lurretan zehar ibili zen bere idealak zabaltzen.

Bainan behin guztietan derrotatua izan zen. Bere soldaduak baserritar onak izanen ziren, bainan ez ziren oso soldadu trebeak, garaiko bertso batek esaten digunez.

"Muñagorriren jendiak
sutan ez daude trebiak,
bila litezke hobiak;
santa sekulan ez dit gauza onik
hain gizon gogo gabiak,
endemas desertoriak,
diru bila ateriak
aditu behar zetiek beriak".

4.- TRAJERIAREN BUKAERAN

Bitartean gerra oso geizki zihoan karlistentzat, eta 1.839ko abuztuaren 31an, Maroto eta Espartero besarkatu ziren gudatearen amaiera azalduz.

Han Bergaran, Espartero faltsuak esan zituen bere gezur xebreak.

"Euskaldunak ez izan beldur!

Zuen fueruak erresperatuak izanen dira, eta norbaitek haien aurka zerbait egin nahiko balu, ni izango nitzateke lehenengo nere ezpata ateratzean bere defentsan jartzeko!".

Hitz politikak Esparteroenak, bainan historiak esaten digunez errealitatea ez zen hain polita izan. Gure fueruak lapurtu zizkiguten, eta karlista eta liberal espainarrei bost axola.

Bainan hori bai, Karlox erregeak nahiz eta Frantzian egon, ez zituen bere eskubiak baztertu nahi, eta hasi zen bere tropak prestatzen berriz, gerrate berri bat hasteko asmoz.

Hondamendi honen aurrean, Muñagorri Berastegi ondoan, Zumarristan zeukan burdinolara erretiratu zen pakea bilatzen.

1.841ko urriaren 14an Erramon Elorrio sarjento karlista Zumarristara joan zen soldadu taldetxo batekin, preso hartu eta hortan bertan bere emaztearen aurrean hil zuen.

Alargun atsekabeak negarrez eta malkoz maldizio hau bota omen zion Elorrio sarjentori:

"Gaiztoz hil duk nere senarra, bainan hi ere hala hilko haute".

Dirudinez maldizioa bete egin zen Ameriketako lurretan.

5.- IZEN BATEN OHIARTZUNA

1841an erabil zuten Muñagorri, bainan bere helburuak sekulan baino biziagoak iraun zuten.

Bere lana eta bere portaera, ez ziren saldukeriaren fruitua izan, Ez! Beti azaldu zuen argi eta garbi zein eta nolakoa zen bere jokaera, eta beti ibili zen ideal horren atzetik.

Badakigu karlistei kalte handia egin ziela, bainan fueruen alde egin zuen pargabeko borroka oso nabarmena izan zen, azken hau oso garrantzitsua da balorazio bat emateko orduan.

Ahozko literatuaren barruan izan zen oso imitatua eta bere aztarnak Iparragirre eta Txirritaren bertsoetan ikus daitezken.

URREZKO KRABELIN ETA ASTABELARRIAK

BERMEO'KO UDALA DEIA

Amai ondoren dabil Bermeo'ko Udala Antolatze arasuetan bere biztanlearen Autarki Lerrokada, Autarki Errolda eta Etxe Bizitzaren Errolda'rako.

Notintza ugaria dago ondikarren bakotxari emon yaken Errolda orriyak betetu barik, eta biarreskoa dan eskero ingi oneik betetuta Udale'ra eroatea ORRILLA'ren 25'erako, alegindu ba guztiok, an dagon lenengo oñean Oficinas del Censo Electoral deritxorenara.

Dei egiten yake barriro Bermeo'n bizi diren bistanle gustiari, etxetik kanpoan, izan ba'dira, Udal Ordela-riak ikertu dituanean, adieraso bat egin yake barriro, utsik egin barik, Autarki Errolda Aretora juatea orrilla'ren 25 baño lenago betetu dagit-zen zuen orriak Udal etxe onetan.

Bermeo'n 1981'gko Orrillak 7
ENDOREA

Luis Bilbao Madariaga

Ondarroko Udalak orain dela gutxi bizkaiera erabiltzea erabaki duela eta, "geure benetako euskera"-ren zaleak oso pozik dabilta. Ez dakigu Bermeon ere horrelako erabakiren bat hartzekotan dauden. horrela balitz, Jainkoak anpara gaitzala, zeren haien "benetako euskera" Udalaren Dei honetan agertzen dena bada, akabo. Horrela ez balitz, Bermeoko Endoreari (Endore = Alkate, hau, hone-lako "arasuetan" trebe ez zaudenentzat) zera eskatuko genioke:

- 1.- Gure hizkuntza nazionalarenganako errespeto apur bat, Horrela Dei bat ateratzea euskarari kaka egitea da eta.
- 2.- Udal abertzale horretan hori baino hobeto idazteko kapaz den inor ez badago, bila dezala norbait (hori egin duena deskalkifikatuta dago, noski)
- 3.- Alderdiari (denok dakigu zeini), alfabetatze klaseak antolatzeko eskatzea, ala oraindik errezago, herrian funtzionatzen dutenetara jo-atea.

ITZ SARIKETA NORBAITENGANA JO

Gaztelanizko recurrrir euskeraz zelan esan? Itz orrek gaztelaniz zer esan nai dauan jakin bear dogu lenengo. Ona emen Real Akademiaren litzegiak zer diñoan:

Recurrir (del lat. recurrere) Acudir a un juez o autoridad con una demanda o petición. 2. Acogerse en caso de necesidad al favor de uno, o emplear medios no comunes para el logro de un objeto. 3. Volver una cosa al lugar de donde salió. 4. For. establecer recurso contra una resolución.

Recurso. 4. For. Acción que concede la ley al interesado en un juicio o en otro procedimiento para reclamar contra las resoluciones, ora ante la autoridad que las dictó, ora ante alguna otra.

Iugarren adierazpen aide batera itzirik, besteak itzull bear ditugula uste dogu. Prantzesez faire appel o edo se purvoir en cassation esaten da. Orregaltik, lbarrarte'ren «Mitxelengo zubia»-ren zazpigarren bertsoak auxe diño:

Haizea, izanen duk
justiziaz gerla
segur duk preso ere
harturen hautela;
Balona'n gaitzen ba'dut,
Pabe'rat apela,
ezpadautak biurtzen
ebatsi xapela.

Gure aldean gora jo esan oi dogu. Olan lenengo ta laugarren adierazpena biurturik dagoz. Bigarrena be, lenengo adierazpenari dagokionez, bardintsu biurtu daiteke: norbaitengana jo. Emplear medios no comunes... diñona olan egin geinke: recurrir a otro medio = beste bide bat artu beste, zeozeri eldu; beste nora bait jo.

Beste izkuntza batzuetan: GB to appeal; NL Zich beroepen op; D Berugung einlegen; DK, hevende sig til; S appellera; IS afryja; SF turvautua jokin; PL odwoływac sien; CS odvol(av)ati se na; BL obzhalvanie; SU obzhalovat; Jarar. Ona emen beraz gure aukera:

Recurrir a una autoridad: GORA JO.

Recurrir a una autoridad superior: GORAGO JO.

Recurrir donde alguien: NORBAITENGANA JO.

Recurrir a otros medios: BESTE ZERBAITI ELDU.

Recurrir a otros medios: BESTELA MOLDATU.

Recurrir a otros medios: BESTEBIDE BAT ARTU.

Artutako erantzunak: Lege nagusiari eldu, Goko legera jo, Lege nagusiaren argibide, Obid3, Biz-bide, Eginbide, Bialibide, Azken aurretiko, Aldatze (Eskaria), Auzi erdebideko erabakia, Kontulari erabakien aurkako eskaria, Jo, Itzull, El-egin, Gora Jo.

1.— Zein irizpidez egin da esandako lege-salo horren idazkeran den zure Sailaren ihardutze-egituraketa?

Euskaraz agertzen diren testu guztiek ez dute euskara erabiltzen. Esan nahi da, nahiz eta testu bat euskaraz agertu bere barneko egitura ez da inolaz ere euskararena nahiz eta kanpotik horrela eman. Kasuak asko dira eta haietariko bat aukeratu dugu oraingo honetan urrezko astabelarriak eraman ditzan, testu hau "Eusko legebiltzarra" deitzen den aldizkari ofizialetik atera dugu. Testu batek ez du lortzen bere euskaltasuna batuaz etortzeagatik, baizik eta bere baitak horrela ematen diolako, hala ere kontrara euskara batuaren ortografia erabiltzen ez dutenek ez dute euskara txarrik egiten H-ak ez erabiltzeagatik soilik. Horra hor testu biak, aipaturiko "Adizkari Ofiziala" urrezko astabelarriak hartzeko eta bestetik "Euskerazaintza" taldeak argitaratutako artikuluxka bat urrezko krabelinak eramateko.

Bilbo Aurrezki Kutxak, bere Kultur Ekintzaren barruan euskal kultura laguntzeko

nahian eratutako VII AZKUE SARIKETAK, hiru arlo hartzen ditu: NOBELA, POESIA ETA IKERLANA

Nobela eta Poesia

1 SARIAK

Nobela: 400.000 (lارهun mila) pezeta
Poesia: 300.000 (hirurehun mila) pezeta

Sariok, zatiezina dira, eta sariketarako saridun gabe geldi daitezke: honela gertatuko balitz, saria hurrengorako gertatuko litzateke.

2 AUKERABIDEA

Sariketa hauetan partaide izango diren Nobelek eta Poesiek hurrengo baldintzok bete beharko dituzte:

- Euskaraz idatziak izatea (edozein literatur euskalkitan), egilearen naziotasuna hau nahiz bestea izan arren.
- Izenburu berdinez edo ezberdinez, erabakiaren zai dagoen beste lehiaketa edo literatur sariketa batetara aurkezturik ez izatea. Honela gertatuko balitz, partehartzailea deskalifikaturik gertatuko litzateke.
- Lanak originalak eta argitaragabeak izatea.
- Gai aldetik libreak.
- Aipatutako baldintzok betetuz gero, idazle bakoitzak lan bat ala gehiago aurkez ditzake.
- Lan bat aurkeztu ondoren, egileak ezin du bere lana jaso, ezta lehiaketari ukorik egin ere.

3 AURKEZPENA

Lanek, aurkezpen gisara hurrengo baldintzok beteko dituzte:

- Makinaz idatziak izatea, bi lerroune zuriz eta orrialdearen alde batetatik, folio deritzon neurriko orrietan.
- Lan bakoitzaren lau ale bidaltzea, ondo josiak eta era soil batez azalezatutak.
- Lanek, izenorde pean aurkeztu beharko dira, egilea nor den ager lezakeen azterrenik gabe. Itxita etorriko den gutun-azal aparte batetan, lanaren izenburua eta egilearen izenordea ipiniko da, eta barruan, egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa.

4 HEDAPENA

Nobelak: 125 (ehun da hogeita bost) orrialde gutxienez, 300 (hirurehun)etik gora ez izatea

komenigarri izanik.
Poesiak: 700 (zazpirehun) lerro edo verso gutxienez.

5 EPAIMAHAIK

Nobela-Sariketakoa:
Juan San Martin jauna,
Anjel Zelaia jauna,
Jon Kortazar jauna, eta
Jose R. Bilbao jauna idazkari bezala.

Poesia-Sariketakoa:
Eusebio Erkiaga jauna,
Alfonso Irigoien jauna,
Jon Juaristi jauna, eta
Jose R. Bilbao jauna idazkari bezala.

Ikerlana

1 SARIA

300.000 (hirurehun mila) pezetakoa izango da, zatigarria eta saridun gabe geldi daitekeena: honela gertatuko balitz, hurrengorako geldituko litzateke.

2 AUKERABIDEA

Sariketa honetan, hurrengo baldintzok betetzen dituzten Ikerlanak izan daitezke partaide:

- Euskaraz aurkeztu eta irakurritako Tesiak, Tesinak eta Karrera-Amaierako Projektuak.
- 1980.eko Urtarrilaren lehen baina beranduago irakurriak.
- Erabakiaren zai dagoen beste lehiaketa batetara aurkeztuak ez direnak. Honela gertatuko balitz, partehartzailea deskalifikatuta gertatuko litzateke.
- Lanek jasotako kalifikapena kontutan hartua izango da.

3 AURKEZPENA

Aurkezpen gisara hurrengo baldintzok beteko dituzte:

- Lan bakoitzaren lau ale bidaltzea, ondo josiak eta era soil batez azalezatutak.
- Egilearen izen-deituraz sinatuak izatea, heldidea eta telefonoa ere adieraziz.
- Jasotako kalifikapenaren agiria bidaltzea.

4 EPAIMAHAIK

Epaimahaiaren osoketa Bilbo Aurrezki

Kutxaren eskuetan geratzen da, eta lanek hartzeko epea bete eta gero ezagutaraziko da.

5 OHARRA

Oinarriotan zalantza edo hutsunerik egongo balitz, Bilbo Aurrezki Kutxari legokio zalantzok argitzea eta hutsuneok betetzea.

Oinarri Orokorrak

1 EMANALDI EPEA

1981.eko Urriaren 15ean, eguerdiko 12etan amaitzen da.

2 IGORPEN-HELBIDEA

Bilbo Aurrezki Kutxa, Gran Vía 23, Bilbao-9, VII "AZKUE" Sariketako zein sailerako den adieraziz.

3 EPAIA

Epaia noraezkoa izanik, 1981.eko Abenduaren lehen hamabostaldian izango da. Horretarako, Bilbo Aurrezki Kutxak, komunikabideen bitartez adieraziko du egun zehatza.

4 AIPAMENAK

Nahiz eta Epaimahaiakoek lan bati edo batzuei eman saria, egoki ikusten badute aipamen bat edo gehiago egin ditzakete aurkezturiko lanen bikaintasunak adieraziz.

5 LAN SARITUAK

Bilbo Aurrezki Kutxa jabetuko da sarituak izan diren lanek, argitaratze eskubideak bere gain hartzen dituelarik. Urtebeteko epean argitaratuko ez balitu, egileek jabetuko lirateke lanek.

6 SARITU GABEKO LANAK

Itzuli egingo dira eta egileek edo hauen ordezkariak jaso ditzateke.

7 POSTATRUKEA

Aurkezturiko lanek ez da postatrukerik izango. Erakunde babeslea ez da arduratzen itzultzean galtzen diren lanek edo kopiaz.

8 LEGE-BARRUTIA

Sariketa hauetara aurkezten direnak, beste edozein foru, albo batetara utziz, Bilboko Hiri Auzitegien jurisdikzio eta ahalpean geratzen dira.



Euskarazko Eleberrien TXOMIN AGIRRE saria

Euskaltzaindiak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean, 1981.ko "Txomin Agirre" Elebarri Saria eratzten du.

OINARRIAK

Lanei buruzkoak

1. Sari honetara euskaraz idatziriko edozein elebarri-lan aurkeztu daiteke, egilearen adina, bizilekua edo nazionalitatea edozein izan ahal delarik.
2. Sariketara aurkezturiko lanek orijinalak eta sekula argitaratu eman gabeak izan behar dute, beste lanen baten itzulpenik edo moldaketarik onartzen ez delarik.
3. Ez Bizkaiko Aurrezki Kutxak ez eta Euskaltzaindiak erantzungo dute egileek aurreko araua ez betetzeaz. Egileen heuren zintzotasunaren esku gelditzen da, beraz.
4. Bigarren arau hori ez dela bete egiaztatuko balitz, erakunde eratzaille biok eska lezakete saria itzultzea, emanda baldin balego.

Aurkezpenari buruzkoak

5. Sarigai lanek, tarte bika eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik, 125 folioko luzapena eduki beharko dute gutxienez ere.
6. Lanak, 1981.ko irailaren 15 baino lehen, hiru aldakirekin, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamentura bidaliko dira: 238 apartatua, Bilbora. Lanaren amaieran, lema bat jarriko da, eta hertsirik aurkeztuko den kartazal batetan, kanpoaldean lema hori jarriko da, eta barrualdean egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefonoa eta firmarekin batera.

Mahaikoei buruzkoak

7. Mahaia literatur alorreko pertsonalitate egokiek osatuko dute. Euskaltzaindiak izendatuko du.

Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin akordioz. Erakunde honek epai-mahaiko idazkaria izendatuko du, boza izanik baina boturik gabe.

8. Epai-mahaia erabakiak aldaezinak izango dira.

Sarietak

9. Bizkaiko Aurrezki Kutxak 400.000 pesetako sari bakar bat jarri du.
 10. Sariketaren dirutza banandu ezinezkoa da, eta mahaikoen esku geratzen da emangabe uztea, hala erabakitzen badute.
 11. Erabakia 1981.ko abenduaren 8-a baino lehen iragarriko da.
- #### Lanen jabetasunari buruzkoak
12. Saritutako lanen jaube egileak eurak izango dira, baina ezin argitaratu izango dute lanori urtebetean goian aipaturiko erakundeen baime-nik gabe.
 13. Saritutako lanak argitaratzekoan derriortz aipatu beharko da irabazitako Saria.
 14. Bizkaiko Aurrezki Kutxak saritutako lanok argitaratzeko eskubidea izango du lehen esandako epean, egileei adieraziaz eskubide horretaz baliatuko direla.

Lanen itzultzeaz

15. Epai-mahaikoen erabakia jakin ondoren, plikak zabalduko dira, eta saritu gabeko lanak beraitan jarririko norabideetara bidaliko dira.

Oinarri hauen ulertzeaz eta onartzeaz

16. Sariketa honi buruzko galdera oro, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamentura zuzendu beharko da.
17. Errekurtsorik aldatu gabe, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, dei honen tramitazioan eta sariketaren joatean sorturiko gora-beherak, erabaki ditzake.
18. Sariketa honetara aurkezteak, oinarri hauen onartze oso bat eskatzen du.

Euskarazko Saioen MIKEL ZARATE saria

Euskaltzaindiak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean, 1981.ko "Mikel Zarate" Saiakera Saria eratzten du.

OINARRIAK

Lanei buruzkoak

1. Sari honetara euskaraz idatziriko edozein literatur saiakera-lan aurkeztu daiteke, egilearen adina, bizilekua edo nazionalitatea edozein izan ahal delarik.
2. Sariketara aurkezturiko lanek orijinalak eta sekula argitaratu eman gabeak izan behar dute, beste lanen baten itzulpenik edo moldaketarik onartzen ez delarik.
3. Ez Bizkaiko Aurrezki Kutxak ez eta Euskaltzaindiak erantzungo dute egileek aurreko araua ez betetzeaz. Egileen heuren zintzotasunaren esku gelditzen da, beraz.
4. Bigarren arau hori ez dela bete egiaztatuko balitz, erakunde eratzaille biok eska lezakete saria itzultzea, emanda baldin balego.

Aurkezpenari buruzkoak

5. Sarigai lanek, tarte bika eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik, 125 folioko luzapena eduki beharko dute gutxienez ere.
6. Lanak, 1981.ko irailaren 15 baino lehen, hiru aldakirekin, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamentura bidaliko dira: 238 apartatua, Bilbora. Lanaren amaieran, lema bat jarriko da, eta hertsirik aurkeztuko den kartazal batetan, kanpoaldean lema hori jarriko da, eta barrualdean egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefonoa eta firmarekin batera.

Mahaikoei buruzkoak

7. Mahaia literatur alorreko pertsonalitate egokiek osatuko dute. Euskaltzaindiak izendatuko du.

Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin akordioz. Erakunde honek epai-mahaiko idazkaria izendatuko du, boza izanik baina boturik gabe.

8. Epai-mahaia erabakiak aldaezinak izango dira.

Sarietak

9. Bizkaiko Aurrezki Kutxak 300.000 pesetako sari bakar bat jarri du.
10. Sariketaren dirutza banandu ezinezkoa da, eta mahaikoen esku geratzen da emangabe uztea, hala erabakitzen badute.
11. Erabakia 1981.ko abenduaren 8-a baino lehen iragarriko da.

Lanen jabetasunari buruzkoak

12. Saritutako lanen jaube egileak eurak izango dira, baina ezin argitaratu izango dute lanori urtebetean goian aipaturiko erakundeen baime-nik gabe.
13. Saritutako lanak argitaratzekoan derriortz aipatu beharko da irabazitako Saria.
14. Bizkaiko Aurrezki Kutxak saritutako lanok argitaratzeko eskubidea izango du lehen esandako epean, egileei adieraziaz eskubide horretaz baliatuko direla.

Lanen itzultzeaz

15. Epai-mahaikoen erabakia jakin ondoren, plikak zabalduko dira, eta saritu gabeko lanak beraitan jarririko norabideetara bidaliko dira.

Oinarri hauen ulertzeaz eta onartzeaz

16. Sariketa honi buruzko galdera oro, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamentura zuzendu beharko da.
17. Errekurtsorik aldatu gabe, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, dei honen tramitazioan eta sariketaren joatean sorturiko gora-beherak, erabaki ditzake.
18. Sariketa honetara aurkezteak, oinarri hauen onartze oso bat eskatzen du.

KATALUNYAN INDEPENDENTZIAREN ALDE

Uztailaren 31, Abuztuaren 1 eta 2an Catalunya independentistak bilera bat izango dute. Urtero egiten ohi den bilera hau aurten Tàrbena-n (Valezia) egingo omen. Antolantzaileek honako egitarau hau gertu digute: Uztailaren 31an "Estatutua ala Independentzia" debatea. Abuztuaren 1ean "Borroka ekologista Katalunyan herrietan" eta "Estatu kolpearen beldur ikara". Abuztuaren 2an, egingo den inkesta baten ondorioak aztertuz beste debate bat. Halan eta guztiz ere, dena debatea izan ez da din lean ibilaldi bat antolatu da Denia-ra Jaialdi bat dartzatze, eta 2an, afari herrikoi baten ostean Catalunya senyerak duen zentzuna azalduko omen da.

IPARRAGIRREAREN BIZITZA KOMIKIETAN

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak babestuta Uztailan zehar Miguel Berzosa marrazkilaria esku Iparragirreraren bizitzari buruzko komiki liburu bat argitaratuko omen du. Liburu honek 15.000 ale izango ditu salgai eta bere prezioa 150 peztakoa. EREIN argitaletxea dugu lan honetaz aritzen dena eta Eusko Gobernuaren ustez 1981. urteko "Uda Liburu" izango da ospatzen ari den "Iparragirreraren urte" horren barruan.



DIRUA ORDU GUZTIETAN

Ordu guztietan Kutxaren zerbitzuak zure mesedetan daude.

Hemen duzu gure Txartel Berdea. Txartel Berdearekin eragiketa guztiak, diru ateratzea, diru sartzea, etab. edozein ordutan egin dezakezu, gauean edo egunean, lanegunetan edo eta jaiegunetan. Txartel Berdeak ez du ezagutzen jairik.

Erlojua begiratu barik, behar dituzun soluziobideak zeure eskuetan daude:

- Edozein unetan dirua ateratzen.
- Dirua sartzen.
- Zure saldoa berehala ezagutzen.
- Taloi txekeak eskatzen.

KREDITUA EDOZEIN TOKITAN

Bidai agentzietan, hoteletan, jate-txetan, dendetan, erostetxe handietan.

Bizkaian 2.000 toki baino gehiagotan.

Munduan zehar 2.600.000 tokitan.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartela erakutsirik **NONAHI**, txakur txiki bat ere gabe, erosiko duzu.

Horrela, ez duzu gainean dirurik eraman behar ez eta konturik atera behar.

Gauzez gozatzeko ez duzu itxaron behar. Pagatzeko itxaron behar duzu, gure kreditu osoa duzu eta.

ETA 5.000.000TAKO SEGURU DOHAIN BAT

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartelarekin harantz honuntz ibiltzea ez da bakarrik eroso. Segurua baita.

Abioiez, trenez edo eta itsasuntziz egindako bidaiak txartelaz abonatzen badituzu, zuek eta zeure etxeok

istripuen kontrako aseguru bat duzue. 5.000.000 pztako aseguru hain zuzen. Dena debalde.

Horregaitik ere Bizkaiko Kutxaren Master Charge-a eduki eta erabili behar duzu.

Seguru gaude.

CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Herriarekin eta herriarentzat.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa 